

ttipi-ttapa



Arturo ELOSEGI IRURTIA | Ekologian katedraduna

«ARTIKUTZAN NATURA ZIZTU BIZIAN BERE LEKUA BERRESKURATZEN ARI DA»

Enobietako urtegia hustuta «onurak askoz gehiago» izan direla dio Leitzako adituak.

Goiko irudian Artikutzako urtegia 2013ko apirilean eta irudi handian 2020ko ekainean. / 8

ARTURO ELOSEGI IRURTIA

(H)ilbeltza hilaren 24tik 30era

Ohiko formatura bueltatuz, aste batez nobela beltzari lotutako hainbat ekitaldi egingen dituzte Baztanen. / 41



Euskal hezkuntzagintzari buruz argitaratu duen liburuaz Nora Salbotxekin / 12



Garikoitz Urroz izendatu dute Doneztebe Futbol Taldeko presidente / 27

Euskal Artzainak Ameriketako museoa ireki dute Elgorriagan / 25

Zapatillera proiektua abiatu du Baztango musikazaleen elkarteak / 42

SINADURAK

 HARITZ BEREAU MUTUBERRIA / 3	 AITOR AROTZENA ALBIZU / 3
 AITZIBER ALMANDOZ LARRALDE / 3	 JOANES ILLARREGI MARZOL / 4



ZOZKETA / 21

BERA

LESAKA

Agenda

2022

URTARRILA

www.berakoagenda.eus

www.lesaka.eus

LESAKAKO

UDALA

15 | **FILM EMANADIA**
OSKAR ALEGRIA
"ZUMIRIKI"

19:00 Harriondoa Kultur Etxea
Sarrera 2 €
Informazio gehiago www.lesaka.eus

LESAKA

16 | **KULTURA**
ZINEMA
HARRIONDOAN

17:00 Harriondoa Kultur Etxea
Laguntzaileak Irain eta Tantirumairu
Guraso elkarteak

LESAKA

29 | **EMANALDIA**
TRIKITIXA
JAIALDIA

LARUNBATA

LESAKA

Liderrak

gure eskualdean

eta baita azterketa egiterakoan CIESeK **Nafarroa Garaiko mendialdean** hartu duen 111 udalerrien eremuan ere.

erran.

9.000 erabiltzaile

noticiasdenavarra.com

8.000

diariodenavarra.es

8.000

berria.eus

3.000

naiz.eus

2.000

navarra.com

1.000

SEXUAREN ARABERA

♀ **%70,8**

EMAKUMEAK

♂ **%29,2**

GIZONAK

ADINAREN ARABERA

Adina (urte)	Porzentaia
14-19 urte	%15,4
20-24 urte	%0
25-34 urte	%0
35-44 urte	%14,9
45-54 urte	%14,7
55-64 urte	%45,8
+64 urte	%9

IKASKETA MAILAREN ARABERA

Maila	Porzentaia
Oinarritzko ikasketak	%15,5
Oinarritzko batxillergoa	%9
Goi mailako batxillergoa	%24,1
Unibertsitatea	%51,4

DATU ITURRIA: CIES, 2021eko lehen neurketa

SINADURA: Ttipi-Ttapa

2 ttipi-ttapa | 797 zk. | 2022-01-13



NIRE TXANDA

HARITZ BERAU MUTUBERRIA

Bazterrak

«Mundua ederragoa da hurbilduz bazterrera». Horixe izan zen Saioa Alkaiza Nafarroako bertsolari txapeldunak azken agurreko azken puntuan bota zuen esaldi potoloa, potoloa diot, esaldi honen atzean dagoenak egungo normalitateari kritika zuzena egiten diola iruditzen zaidalako. Baina zer da guretzat normala eta zer anormala? Txertatzen dizkiguten balore kapitalista heteropatriarkal horiekiko zintzoak izateak egiten al gaitu normal?

Aunitzetan ikusi izan dut nolatan egungo balore horiek zalantzan jartzen dituen edozein epaitua izan ohi den, ezarritako bizi eredu orotik aldentzen den hori anormaltzat hartzen den. Zenbatetan entzun behar izaten dugu, hau marikoia da, hori *borrokilla* da edota bertze hura antisoziala da? Badirudi gizarte-ko eskemetatik aldentzeak edo artaldeko ardi ez izateak konnotazio negatiboa dakarrela berarekin.

Eskema horien barruan kokatzek erosotasun posizio batean egotea ahalbidetzen du, inork ez duelako norbanakoa zalantzan jartzen baina... *mundua ederragoa da hurbilduz bazterrera!*

«MUNDUA EDERRAGOA DA HURBILDUZ BAZTERRERA»



EZPALA

AITOR AROTZENA ALBIZU

Ez Eguberrietatik ez inauterietara

Omikron, omikron, Gabonak din-dan-don... beldurka pasa ditugu Eguberriak: isilpeko kantuak, musuak ukondoka, familia-elkartzeak kalkulagailuarekin... Urte berriarekin, garai honetan moztarrok karrikara ateratzen hasiak izanen ginateke gurean, baina aurten ere kolore eta alaitasunik gabeko maskararen azpian segitu beharko dugu, itxuraz.

NABARMENTZEKOAK

ROSA
ERRANDONEA
BERAJOSE ANTONIO
ERRANDONEA
BERA

Urte luzez Berako historia, ohiturak, kultura eta ondarea oinarri hartuz argazkigintzan, hemerroteka bilketan eta artxibo lanetan aritu ondore, lan horietatik jubilatzea erabaki dute Jose Antonio eta Rosa Mari Errandonea Berako anai-arrebek. Hain zuzen, egindako lana eskertzeko, abenduaren 31n omenaldia egin zuten Berako Udalak. TTIPI-TTAPAK ere badu zer eskertu, eta bihotz-bihotzez eskerrik asko biei.

ATZERA BEGIRA



2012-01-12 · TTIPI-TTAPA · 557 zk.

Olaizola Il.aren lau t'erdiko bosgarrena

Lau t'erdiko bere bosgarren txapela jantzi berritan –geroztik beste bi irabazi zituen,– elkarriketa egin zion TTIPI-TTAPAK Aimar Olaizola Goizuetako pilotari handiari. Hilberria zuen attari eskaini zion garaipena: «Horrelako partidetan oso zentratua egon behar da eta finalean banuen beldur hori aurreko egunetako pasatutakoagatik, hiru egunetan osaba eta atta galdu...». Baina hasieratik bukaerara berea eman eta txapela jantzi zuen: «Attari dedikatu nahi nion eta agian horregatik indar gehiagorekin atera nintzen». Duela hamar urte izan zen hori eta kontratua 2018 bukaera arte zuela eta bere «helburua hori betetzea» zela ere aitortu zuen. Hori baino gehiago luzatu zioten, ordea, bera izan baita azken gantxoia noiz eta non egin erabaki duena.

erran.
eus

TOKIKOM

Argitaratzailea

Ttipi-Ttapa Fundazioa
Koskontako bidea, 7 - 1.
31770 LESAKA
T. (+34) 948 63 54 58
F. (+34) 948 63 54 57
WhatsApp 744 48 43 61
info@ttipi.eus

Zuzendaria

Aitor Arotzena

Erredakzioa

Gurutz Pikabea, Ruben Oskariz,
Eneritz Iraola, Ainhoa Larretxea

Publizitatea

Amaia Odriozola

Arantza Agirre

Berriemaileak

Arkaitz Mindegia, Marifa Irazoki,
Koro Irazoki, Nerea Altzuri,
Arantxa eta Iraia, Irune Elizagoien,
Maider Petirena, Oihana

Kalparsoro, Ainhoa Ansa, Fermin
Etxekolonea, Aintzane Leiza, Pablo
Irastortza, Maite, Ana eta Itziar,
Juan Mari Barriola, Marga
Erdozain, Maitane Maritorea,
Arantxa Iturralde, Arentxa Gamio,
Jaione Ariztegi, Jaione Zabalo,
Nerea Mortalena, Virginia Oteiza,
Jean Louis Bessonart, Ainhoa Astiz,
Ganex E., Xabier Maritorea,
Maialen Iantzi, Jaione Mindegia,
Olatz Mutuberria.

Fundazioaren Presidentea

Pello Apeztebrea

Kudeatzailea

Joxemanuel Irigoien

Administrazioa

Amaia Goia

Lege Gordailua

NA-1324/85

ISSN

1578-4673

Tirada

6.000 ale

Erakunde laguntzaileak

Leitza, Goizuetako, Arano, Areso,
Baztan, Sara eta Senpereko udalak,
Malerrekako Zerbitzuen Mankom.,
Zugarramurdioko Akelarre elkarte

2022ko harpidetza sariak

Baztan, Urdazubi	42€
eta Malerreka	
Leitza	33€
Hego Euskal Herria	50€
Ipar Euskal Herria, Europa	98€
Amerika eta Australia	147€



KOLABORAZIOAK

AITZIBER ALMANDOZ LARRALDE

Oilo atzapar bat

«Negua joan da ta» dio kantuak, negu giroko udazkenaren ondotik negua pasako dela sinesteko beharra dut nonbait. Neguak, gelditzea, itzaltzea, isiltzea, egotea... naizen deusezarekin bat egitea, dagoena den bezala sentitzea ekartzen duenez berarekin, erosoagoa zait norbaiten soinu dantzaz ibiltzea eta Zea Maysen kanta kantatzea. Gure gorputza gaixotu eta sendatzen da, bera bakarrik baldintza batzuen eraginean. Zaintza hain eguneroko solasa badugu ere, batzuetan konturatzen naiz ez dakidala sobera ongi nola zaintzen den norbere burua, neguan sutondoan egonez izan liteke aukera bat. Gorputzak berezkoa duen sendatzeko gaitasuna galdu dudala sentiarazten didaten hainbat informazio hartu ditut azken aldian. Kanpotik hain desberdin baina barrendik hain berdinarak gara gizakiak, harritzeko moduan berdintzen gara beldur hotzikarekin, barrenak haserreaz sutzean edota intuizioa bat gailentzean sortzen diren oilo pikorretan. Momentu batez, kanpo burrunba isildu, denbora gelditu eta arnasak gorputza zeharkatzeko astia dagoela sentitzen dudanean konturatzen naiz zertarako gauza naizen edo garen geure burua ezaguna eta normala zaionaren mugak zeharkatzea erabakitzen duenean. Minek ez dute arrazarik, generorik, ez kontu korronterik. Badira min batzuk hurrengo arnasarekin erabat apaltzen direnak, minez hiltzera zoazela

«ERREGE ONDORAKO
OILLO ATZAPAR BAT
LUZATZEN OMEN DA
EGUNA, SALBU GARA»

sentiarazten dizutenak eta aldi berean bizitza berri bat besoetara ekarrarazten dizutenak. Badira beldurrak ataka bat pasatzearekin galtzen direnak edota betiko bizitza bizitzeko baldintza bilakatzeko direnak, norberarenak edo ondokoarenak, gure bihotzaren egitiaz urruntzen gaituztenak, nor garen ere atzenuarazten dutenak. Badira haserreak gehienetan beldurrak ez sentiarazteko eratzen ditugunak, gorrotoz mina eragin dizunari azala urratze adinako sua sorrazten dizutenak. Badira tristura ilunaldi batzuk, lo eginda ere hurrengo goizen bizkar gaineen segitzen dutenak, maite duzuna azken aldiz ikusiko duzula erran dizutenean gailentzen zaizkizunak. Eta noski, badira poz batzuk, neguko eguzkia bezain indartsuak, egon nahi duzun lekura eramaten zaituztenak, lagun on baten konpainian egindako mendi buelta baten ondotik hartzen den zerbeza gustua dutenak. Eskerrak egun sentitzeko era ezin izan diguten mugatu, prefabrikatu, protokolorizatu. Bakoitzak bere erara egin dezake, oraindik maitasun begirada batez elkartzen gara, berdintzen, hurbiltzen itxura batera hain urrutit ginenak. Sarrera nonahi mugatua dugun garaiotan, inoiz baino askeago sentitzeko aukera egitea erabaki nahiko nuke. Neguko solstizioa pasa berri da, karriketako su usainak, Olenzteroren errestoa oroitarazten dit. Ez eme eta ez ar, argia bizteko ikatza dakarrena ez da bertzerik, eta hainbertze aldi berean. Eguna pixarren bat luzatzen hasi duela iduri du. Gure itzalak indartzen dituztenek ere agudo askeak izateko aukera emanen digutela erraten hasiak dira, erne egoten ahal gara. Hori guzia horrela, kontent egoteko moduan gara, urtero bezala errege ondorako oilo atzapar bat luzatzen omen da eguna, salbu gara!



JOANES ILLARREGI MARZOL

Eguberrietako argiak

Artikulu hau idazten ari naizen unean, Gabon gaua eta Urtezahar gaua pasatu dira; errege bezpera ez oraindik. Eta egon naiz azkeneko aste hauetan Donostian, Iruñean, Gasteizen... baita Euskal Herriko beste zenbait herritan ere. Eta urteroko itxura berbera hartu dute aurten ere kaleek: pinu berdeak, girlandak, bolak, elurrezko panpinak, bastoi itxurako goxokiak, Olentzero eta Mari Domingi, Hiru Errege magoak... Denetik aurkitu daiteke gure kaleetan apaingarritzat ditugun argietan.

Baina niri ez zaizkit batere gustatzen, egia esan ez zaizkit inoiz gustatu izan. Alde batetik, noski, alferrikako gastu bat direlako eta jendeak bere etxeko argia ordaintzeko dirurik ez daukanean kaleak alferrikako kolore distiratsuz betetzen direlako, Jesusen jaiotza edo urte berriaren etorreraren aitzakiapean. Gainera aurten maximo historikoetan dago argindarraren prezioa. 302,48 eurotan zegoen megawatta abenduaren 16an, inoiz izan den garestiena. Alde batetik horregatik ez ditut maite Gabonetako argiak.

Aurten, ordea, sinbolikoki inoiz baino zentzugabeago ikusten ditut. Existitzen ez den ilusio faltsu baten isla besterik ez dira. Kanean ez dago pozik, jendea kokoteraino dago (gaude), pauso bat aurrera eman orduko lau ematen

«BATEK BAINO
GEHIAGOK ESKATU
IZANEN DUGU BI URTE
ATZERA EGITEA»

ditugu atzera, etsipena eta nekea nabari da jendearen aurpegian eta hitzetan. Eta bitartean geure buruen gaineen koloretako panpinak, zuhaitzak eta inoiz ulertuko ez ditudan figura arraroak daukagu, negua-

ren hasierako egun ilunei argi egin eta zorientasuna bantzeko. Urre kolorez margotutako kakaren antzeko zerbait. Zorionak. Esaldi hori ere ohikoa da Gabonetako argietan. Aurten, ordea, zeri zorionak? Nik zorionak norbaiten urtebetetzea denean edo desio duen zerbait lortzen duenean esaten diot, ospatzeko zerbait dagoenean. Aurtengo Gabonetan, ordea, zer daukagu ospatzeko? Tabernak itxi dizkigutela berriro ere 01:00etatik aurrera? Leku askotara sartzeko Covid-ziurtagiria eskatzen digutela? Pandemiako bi urteren ondoren osasungintza kolapsatuta dagoela eta herritarron gain jarri dutela gaitzaren kudeaketa eta ardura? Ez dakit, baina ospatzeko askorik ez daukagula iruditzen zait niri.

Badago, ordea, zentzua hartzen diodan Gabonetako argien figura bat: izar iheskorra. Leku batzuetan ikusten dira oraindik ere forma horretako argi batzuk, eta horiek dira niretzat egoera honetan zentzua duten bakarrak. Izar iheskor bat ikustean desira bat eskatu behar omen da, eta iruditzen zait batek baino gehiagok eskatu izan dugula aurten bi urte atzera egitea, zorientsu(ago) ginen garaira itzultzea; Eguberrietako argiek zentzu pixka bat gehiago zuten garaiak bizitzea berriro ere. Ikusiko da argizko izar iheskorrak kasu egiten digun, edo benetan ilusio faltsu bat besterik ez den.

11 GALDERA LABUR

JOSEBA ALDABE ETXEBERRIA IGANTZIKO PILOTARIA

«Elite mailan zaudenean garrantzitsuena norberaren lana da»

Nola aurkeztuko zenuke zeure burua?

Pilotan aritzea aunitz gustatzen zaion 25 urteko igantziarra.

Zein dira zure zaletasunak?

Pilota zein frontoiko edozein kirolez gain, neguan snowboard egitea, bideo-jokoetan ibiltzea eta lagunekin egotea.

Noiz hasi zinen pilotarekin?

7 urterekin hasi nintzen Igantzín. Ordutik, 12 urterekin Beran, 14rekin Donezteben eta 21ekin Iruñeko Oberena klubean ibili naiz. Orain ere Oberenan segitzen dut.

Eta profesionalki?

Garfen jokatzeko zuen lagun batek gonbidatu zidan probatzeko partida bat jokatzera, atzelari bila zebiltzala eta. Partida nahiko ona jokatu eta orduan bertan sinatzeko deitu ninduten.

Hirugarren denboraldia duzu aurretik enpresarekin. Nolako esperientzia izan da?

Ez da enpresa hagitz eza baina izar haundien kontra jokatzeko aukera eman dit; Titi III.a, Merino II.a, Xala... Haiekin bikote zein aurkari gisa jokatzeko hagitz esperientzia polita izaten ari da. Gainera, udan partida aunitz jokatzeko ditugu eta horrek heldutasuna ematen dizu kantuan.

Bikotekako LENC 2021eko txapelak lortu zenuen, espero zenuen?

Aurkezpenean Labakarekin nintzela jakin nuenean ongi ibiliz gero txapelketa on bat egiteko aukera izaten ahal genuela ikusi nuen, baina hortik txapelketa irabaztera alde dago, maila handiko bikoteak zeudela...



BIDALTZO ETXARTE

Aunitz entrenatzen zara?

Elite mailan zaudenean, garrantzitsuena norberaren lana da, fisikoki eta teknikoki hobetzea. Asteazkenetik asteazkenetik gimnasioan eta astearte eta ortzegunetan pilota entrenamendua.

Nola ikusten duzu egungo pilota?

Lehen baino haur guttiago hasten dira pilotan, baina maila ona dago. Gaztetatik hasten dira ongi prestatzen eta etorkizun luzea dauka.

Zure erreferentea?

Abel Barriola. Teknikoki atzelari hobereenetakoa da eta bere dotorezia eta gizontasuna aunitz gustatzen zaizkit.

Zure asmoak epe motzera?

Espainiako txapelketan hainbatetan ailegatu gara finalerdira eta polita izanen litzateke irabaztea.

Eta epe luzera?

Munduko txapelketan behintzat aurre aukeraketan egotea. Konpetentzia handia da, beraz, ongi prestatu beharko dut.



Merkealdia

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

Albornoak
Mantelak
Kuxinak
Edredoi nordikoak
Ohe estalkiak
Maindireak
Toailak
Edredoi-azal nordikoak

IRAKURLEAK MINTZO

Canteras Acha S.A. enpresako arduradunari**IMANOL ETXEBERRIA ANTIXORENA**

ARIZKUNGO ALKATEA

Prentsaren bidez jakin genuen Aintzialden eta Bergaran zundaketak egin nahi dituzuela burdin-harria dagoen edo ez jakiteko eta hala bada, harrobi bat egiteko.

Hori jakin bezain fite herriko batzarra egin genuen herritarrak informatzeko, genekien guti horren berri emateko eta aldi berean herriaren iritzia biltzeko. Horretarako, bertze batzar bat deitu genuen jendeak bere iritzia botoen bidez eman ahal izateko. Bigarren batzar horretan Arizkunek argi utzi zuen: ez dugu harrobirik nahi, ezta zundaketa-rik ere.

Bozketaren egunean, 155 herritar bildu ginen eta bakar batek ere ez zuen dudarik izan harrobiaren kontra egiteko. Arizkongo batzarraren % 100ak ez du Aintzialde eta Bergaran harrobi bat nahi eta arrazoiak aunitz dira: inguru horretan 12 etxebizitza daude, 12 familia, hainbat abeltzaintza-ustiategi, Bergarako Jauregia, borda aunitz, iturriak eta auzoa hornitzen duten ur-biltegiak, basoak eta abar.

Arizkundarrak gure nekazaritza eta bizitoki eremua den hori dagoen bezala uzteko eta defendatzeko lanean ari gara, gure lurak herritarrontzat nahi ditugulako. Ez dugu amore emanen.

Beraz, idatzi honen bidez, Arizkongo herritar guztien izenean, zuen asmo hau lehenbailehen bertan behera uzteko eskatu nahi dizugu.

Zure erantzunaren zain geratzen naiz.

Mingain urdina eta txertoa**JOSE JAVIER SESTORAIN, AMAIA ITURRIRIA ETA JURGI GOIKOETXEA**

ETA NAFARROAKO BESTE HAINBAT ABELTZAIN

Aurten, berriro ere, iritsi da gure etxetara administrazioaren gutuna. Atlantikoko isurialdean mingain urdin kasu bat (08 aldaera delakoa) agertu dela eta –Espainiako Nekazaritza Ministerioko datuen arabera azkena 2020an Baztanen agertutako kasua dugu– beste behin behartu gaituzte gure artaldeak zein behiak txertatzera. Hau horrela, gure ezinegona eta desadostasuna adierazi nahi dugu.

Joan den urtean kasu bat azaldu izanagatik erabaki hau modu sistematikoan hartzea gehiegizkoa dela iruditzen zaigu, are okerrago momentu honetan egitea. Alde batetik, negu sarreran, eltxo gutxien dagoen garaian egiten delako, beraz, transmisiorako arrisku gutxien dagoen garaian. Eta, bestetik, azienda erditzen ari denean edo erditzekotan denean jartzen delako, horrek eragiten dituen ondorioekin: aziendak sufritu egiten du, azienda-buru gehienak erabat gortuta gelditzen dira gutxienez hiru egunetan eta kasu batzuetan umatzeak aurreratzea ere ekartzen du.

Derrigortzea beti zigorrarekin, mehatxurekin eta xantaiarekin lagunduta etorri ohi da: esaterako, txertatu ezean, giak ateratzeko debekuekin, hau da animaliak salerosteko oztopoekin. Erabaki hau hartuz gero, mugaz hegoaldera giak egitea oztopatzen zaigun bitartean –eta hortaz salerosketa oro trabatzen– era berean mugatik honat, iparraldetik axuriak ekartzen dituzte. Iaz mingain urdin kasu gehienak Ipar Euskal Herrian izan ziren. Eta hala ere, Frantzia, barne merkatura bideratutako animalien kasuan txertoa hautazkoa izan zen eta da gaur egun, bakarrik esportaziora zuzentzen diren animalientzako derrigortzen dutelarik. Nafarroan, berriz, ez da bereizketarik egiten. Ganadua esportaziora edo ber-

tako elikadura sistemetara bideratu, bi kasuetan derrigorrezkoa da. Zer ulertu behar dugu jokabide honekin? Hemen-go administrazioak farmazia-industriari salduak daudela, akaso?

Jokaera honen harira, adierazi nahi dugu nazkatuta gaudela jarrera paternalista hauekin eta beti mehatxupear ibili behar izateaz. Ezin ote ditugu abeltzainok gure kabuz erabakiak hartu? Zergatik egon behar dugu beti beldurpean? Non gelditzen da gure erabakitzeo askatasuna, gure burujabetza? Nabari da inposizioaren kultura hezurretaren sartua dugula, administrazioa agintekeriak eta zigorrak erasoz zuzentzen baitzaigu beti.

Bukatzeko, honatx Nafarroako administrazioari egiten dizkiogun bi eskaera: bat, mingain urdinaren txertoa, Frantzia bezala, barne merkatura zuzendutako aziendaren kasuan hautazkoa izatea eta derrigorrezkotasuna ezartzekotan esportaziorako ekoizpenari jartzea; bi, txertoa jartzeko garaia animaliak antzu daudenean izatea, hau da, ardien kasuan bederen uda sarreran, gaixotzeko eta gaitza zabaltzeko arrisku handiena orduan izaten baita eltxoen ugaritzearekin batera.

Ikurri kontuak**XANTI BEGIRISTAIN MADOTZ**

Laurogeiko hamarraldiaren erdialdeko egun batean, udaberrian, naski, beste bi lagun eta hirurok, Baigorri aldera abiatu ginen Iruñetik, auto partikular txiki batean. Lagun bat gidari, bestea atzean, eta, ni aurrean nindoan, kopi-lotuaren lekuan, gurpil aulkia atzean, nola edo hala, sartu ondoren, tolestu eta gero.

Esan bezala, Iruñetik atera eta Baigorri gindoz, Nafarroaren Eguna ospatzera. Zubiri zeharkatu eta Eugi herria atzean utzi ondoren, pixkanaka-pixkanaka, Urkiaga mendateko gainaren aldera hurbiltzen ari ginen, baina, garai hartan, gaina baino lehenago, guardia zibilen kuarteltxo bat edo antzeko zerbait zegoen. Hara

IRAKURLEAK MINTZO

Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Koskontako bidea, 7 - 1, 31770 LESAKA

info@ttipi.eus



948 63 54 58

iritsi eta guardia zibil batek autoa gelditzeko keinua egin zigun; gidariak berehala gerarazi zuen gure ibilgailua.

-Nora zoazte? -guardia zibilak.

-Baigorriara -gure gidariak.

Guardia zibilak, segituan, gure nortasun agiriak eskatu zituen, eta, guk, jakina, azkar asko eskuratu genizkion. Baina, aurrera jarraitu baino lehen, xehetasun bat azaltzea komeni da, istorioa hobeki ulertzeko. Izan ere, zenbait urte lehenagotik, nire nortasun agirian, Espainiako banderaren gainean, nik neronek marraztu eta margotutako ikurrin bat neukan zinta itsasgarritzatsitsa, Espainiako piper-potoa ez ikusteagatik.

Horiek horrela, guardia zibil espainiar hark, nik egindako ikurrina, leku hartan ikusi bezain laster, liztor batek ipurdian ziztatu izan balu bezain suminduta jarri zen. Niregana sutan etorri, autoko atea bortizki zabaltu eta zera agindu zidan biziki haserre:

-Atera hadi hortik istantean, txoropito halakoa!

-Ezin dut -nik, serio-, ikusten duzu hor atzean dagoen gurgil aulki hori, ba, horixe behar dut nik, hain zuzen ere, ibili ahal izateko -azaldu nion, lasai, aulkia seinalatuz.

Segituan, ahoan eta begietan, egundoko gorroto disimula ezina nabaritu zitzaion, eta, une batez, ematen zuen, ni paparretik hartu eta airean aterako ninduela autotik, amorrazio bizian, baina, ez, nonbait ez

zen ausartu eta atzera egin zuen, bere gogoari eutsita. Jarraian, lipar batez hausnartu eta honako sermoi antzeko zer bait bota zidan parrastadan, amorru bizian, nire ikurrina nortasun agiritik, mespretxuz desitsatsi eta gero:

-Begira, ergela, ez beste! hemendik 500 urtera, balizko kasu batean, Euskal Herriak bere independentzia lortuko balu, orduan ikurrina hire bandera izanen lukek, baina, bitartean, ez, bitartean hire bandera bakarra Espainiako duk, hau! -nire nortasun agirikoa erakutsiz, eta, aldi berean, kolpetxo bat emanez, lehenago nortasun agiritik erauzitako ikurrina, paparrean jarri zidan itsatsirik, mespretxu aurpegia adierazita-. Ulertu al duk, txepel horrek? Eta ikurrina eraman nahi baduk, eraman ezak hor, paparrean, baina, ez, nortasun agirian, alajainkoa! Tira!, eta orain nahi baduzue, zoazte behingoz Frantzia madarikatu horretara!

Eta, gu, Frantzia madarikatura ez ginen joan, baizik eta Euskal Herriatik Euskal Herrira, Baigorriara, alegia, niri, guardia zibil batek ikurrina paparrean jarrita, alajaina!; zer bitxikeriak gertatzen diren batzuetan!

BOTA BERTSOA



**MIKEL
ALTZUART ZALDAIN**
ARIZKUNGO BERTSOLARIA

Ahoestali eta belarri gor

Euskaraldiak bertze urte batez landu nahian hainbat alor erabileran hankamotz gaude ta kanpaina bat zaio zor Ahobizi eta Belarriprest euskalduna zeinen jator baina ikusirik nola gabiltzan akats tiki bat dago hor Euskaraldiak behar luke Ahoestali ta belarri gor (bi aldiz)

Soziologian horren dotore dabil Kike Amunarriz erabilera bultzatu behar da diozu behin eta berriz Ahobizi eta Belarriprest erdigunean ezarritz ahoestalei ongi entzuteko fin behar dugu belarri zure txiste onenaren aurrean lehertuko gara irriz (bi aldiz).

Jaurlaritzaren bozeramaile dugu Bingen Zupiria ahoa estalita nola egingen du euskaldunak intziria herritarrak elkartu gaitezen debeku ta agiria euskarari amasa emateko modu egokia hiria euskalgintzari diruarekin sartu al diok ziria (bi aldiz).

Bertzei bezala, birusa guri ari zaigu biraoka bakoitzak ikusi beharko du zuzen nahi duen joka azenarioa alde batetik gero makila ta soka tranpak eginez irabazi nahi duenak norgehiagoka egia uste baino lehenago izanen du atejoka (bi aldiz).


HEMEROTEKA



«Federalista izan naiz betidanik. Ez naiz sekula alderdi batean sartu, behin baino gehiagotan galdegin badidate ere. Jeltzaleak estimatzen ditut anitz, baina ez bakarrik: kritikatu ere egiten ditut. Sekula ez dut ene burua preso eman alderdi batean. 50-100 urteren buruan, Euskal

Herriak behar ditu bi muturrak elkartu, Europa federalista batean, Euskal Herri oso bat izateko (...).

JEAN FAGOAGA | SARA | MEDIKU OHIA ETA ABERTZALEA, IHESLARI POLITIKOEN ALDE ARITUA | BERRIA | 2021.12.19





Biologian lizentziatua eta ekologian doktorea da Arturo Elosegi, EHUn ekologia katedraduna. Leizarra ibaien ekologian aditua da.

«Basogintza intentsiboan erabilitako espezieak gainbeheran daude»

ARTURO ELOSEGI IRURTIA EKOLOGIAN KATEDRADUNA

Eukaliptoek ingurumenean duten eraginaz, Artikutzako presaren hustuketaz eta ingurumenari lotutako beste hainbat kontuz hitz egin du Leitzako adituak. Ingurumena zeinen garrantzitsua den ulertzearen garrantzia nabarmendu du

G. PIKABEA

«Planetan gure hankaren arrastoa nola murriztu pentsatzen hasteko» ordua dela dio Arturo Elosegi EHUn Ekologia katedradunak (Leitza, 1962), «ingurumena zeinen garrantzitsua den ulertu» behar dugula, eta bide horretan, ezinbestekoa iruditzen zaio «ekosistema naturalak berreskuratzea». Eukaliptoek ingurumenean duten

eraginaz, Artikutzako urtegiaren hustuketa bertatik bertara jarraitu eta aztertuta ikusi eta ikasi duenaz, eta beste hainbat kontuz aritu da.

Hainbatetan idatzi duzu eukaliptoek erreketan duten eraginari buruz. Azalduko zenuke?

Errekak aztertuz faktore askok eragina dutela ikusi dugu, besteak beste, eukaliptoek, basogintzak... Lan asko egin izan

dugu Bizkaiko Enkarterrietan eta eukalipto dezente dagoen tokia da. Horrez gain, Eusko Jaurlaritzak eukaliptoaren inguruko informazioa biltzeko azterketa bat eskatu zidan, eta gure ikerketaz gain, beste batzuenak aztertuz, txosten bat egin genuen. Hori da azken urtean zabaldu dena. Lehendik eukaliptoek erreketan eragin kaltegarria zutela ikusten ge-

nuen, baina eukaliptoak eta ingurumena lotzen dituzten Iberiar Penintsulako lan guztiek eukaliptoek pinudiak baino okerragoak direla eta bertako basoak baino dezente okerragoak direla erakusten dute.

Eukaliptoek zein kalte nabarmen- duko zenituzke?

Kalteak mota askotakoak dira. Alde batetik, erreken arroetan mugitzen den urean eragiten dute. Euria egiten duen garaian, eukaliptoak dauden tokietan uholde handiagoak izaten dira, eta atertzen duen garaian, lehor-te handiagoak. Baina batez ere, eukaliptoaren basoak oso pobreak dira fauna eta florari begira, biodibertsitatea baxuagoa da erreketan, lurzoruan, hegaztien artean, landaredian...

Eukaliptoek orbela ere kalitate txarrekoa omen da...

Bai. Ez da kalitate txarreko orbela duen espezie bakarra, baina eukaliptoarena oso kalitate txarrekoa da. Erreketan eukaliptoek eta beste espezie batzuen orbela sartuta esperimenduak egin izan ditugu, eta eukaliptoek orbela duten erreketan askoz ere espezie gutxiago dago, askoz ere biomasa gutxiago. Horren ondorioz, horietatik bizi diren arrainek ere arazoak izaten dituzte, bazka gutxiago dutelako. **Eukaliptoak debekatu beharko litzatekeela uste duzu?**

Debekuek beldurra ematen didate, kontrako ondorioak izan ditzaketelako. Esaterako, Galizian, joan den urtean, eukaliptoari moratoria edo luzamendu bat jartzea erabaki zuten, lehen-dik eukaliptorik ez zegoen lekuetan oraingoz eukaliptoaren landaketak ez baimentzeko. Otsailean edo martxoan neurria ekainean sartuko zutela indarrean jakinarazi zuten, eta martxotik ekainera ikaragarritzko eukalipto pila landatu zuten. Ez dakit helburua eukaliptoaren basoak ez hedatzea zen, baina kontrako eragina izan zuen. Eukaliptoek basoak oso-oso modu intentsiboan kudeatzen dira eta modu intentsiboan kudeatzen diren basoek, izan eukaliptoak edo izan beste ba-

tzuk, mugak behar dituzte. Ez lirateke erreka bazterretan landatu behar, erreka bazterretan bertako basoa utzi beharko litzateke; iturriak eta urtegiak dauden tokietan ustiaketa intentsiboa mugatu beharko litzateke, eta malkar handiko lekuetan ere bai, erosio handiagoa izaten delako. Mugak beharko lirateke, baina erabat debekatzeak igual mesede baino gehiago kalte egingen luke. Baina hori gai zientifikoa baino gehiago politikoa da.

Nafarroan ez dago Gipuzkoan edo Bizkaian adina eukalipto. Nola ikusten duzu?

Nafarroan, oraingoz, oso gutxi dago, izatekotan Bidasoa inguruan mantxa tiki-tiki batzuk. Dena den, Gipuzkoan orain gutxi arte ia ez zegoen batere, eta 2020an bikoiztu egin zen eukaliptoaren hedadura. Lehen kosta-kostan izaten zena orain barrurago hedatzen ari da. Segur aski joera bat izanen da, eta datozen urteetan Nafarroan Kantauri aldeko joera ere izan daiteke. Ez da klima edo lur kontua bakarrik, gizartearen arabera ere bada. Goizuetan eta Aranon, adibidez, oraingoz jendea ez dago oso alde, baina denbora gutxian alda daiteke...

Zeren arabera?

Faktore asko izan daitezke. Gobernuaren dirulaguntzen arabera, egiten diren kontrolen arabera, lur-jabeek ikusten dutenaren arabera...

Onura ekonomikoari bakarrik begiratzen diogu?

Askok bai, baina gakoa onurak eta galerak nola neurtzen diren ikustea da. Eukalipto azkar hazten da, eta gaur egun egurra dezente ongi saltzen da. Baina kalte ekonomikoak ere izaten dira, erreka bat kutsatu edo iturri bat agortzen denean, adibidez. Askotan egurrean bakarrik pentsatzen dugu eta ez ditugu balio ekonomiko oso altua duten beste kontu batzuk kontuan hartzen. Orain dela urte mordoaxka Aiako Harriko Natur Parkean bertako basoe-kin zer egin eztabaidatzen ari-
tu ginen. Garai hartan basoan



Elosegik 30 urte baino gehiago daramatza erreka ikertzen.

pinudiak, hariztiak eta pagadiak zeuden, hau da, ustiatzeko basoak eta kontserbatzeko basoak. Hango basoek zuretan eta uretan zenbat diru ematen zuten aztertu ondoren, parkeak uretan zuretan baino 300 bat aldiz diru gehiago ematen duela ikusi genuen. Beraz, zertarako nahi ditugu basoak, zura edo kalitatezko ura ekoizteko? Bertako basoak bultzatzea erabaki zen, herri lurretan ez pinurik, ez kanpoko beste espezierik jartzea. Hori ere ekonomia da. **Pinuaren gaitza, prezioen gainbehera... Nola ikusten duzu etorkizuna? Pinuak bota eta eukalipto sartzeko arriskua ikusten duzu?** Pinuaren gaitzak asko eta aspaldiko kontuak dira. Orain dela 20 urte Fusarium gaitza izan zen. Eta intsinis pinuaren gainbehera azpimarratzen da baina intsinisa ez ezik, larizioa, itsas pinua... gehienak oso gaizki daude. Ez da espezie baten gaitza, sistema oso baten gainbehera eta porrota da. Nafarroan, beharbada, ez hainbes-

te, baina Gipuzkoan eta Bizkaian bereziki, urte askotan basogintza ahalik eta intentsiboena bultzatu dute, eta horrek porrot egin du. Hainbeste egur atera eta atera, azkenean lurra pobretu egiten da eta horrek bere ondorioak ditu. Horrekin batera, espezie gutxi batzuk hainbeste zabaltzen badira, gaitzak aisago zabaltzen dira, eta horrek denak gainbehera ekarri du. Soluzioa eukalipto da? Bertako basoek, pagadiak, hariztiak... ez dute arazorik. Arazoak kanpoko espeziekin egindako ustiaketa intentsiboek sortu dituzte, eta horiek huts egin dutela ikusita oraindik intentsiboagoa den zerbait sartu behar da? Epe motzera dirua emanen du, baina epe luzera zalantza daukat. **Urteotan zein zuhaitz espezie galdu dira gure basoetan?**

Askok zabalduak dauden bertako espezie batzuek, gaztainak, adibidez, gaitza du, baina bertako espezie bakarra galdu da, zumarra, eta zuhaitzera ailegatzan ez bada ere, Bidasoa aldean

ezpela. Baina bereziki galdu direnak kanpotik ekarri ditugun espezie exotikoak izan dira, basogintzarako erabili izan direnak: intsinis pinua, larizio pinua eta itsas pinua oso gaizki daude, Douglasizeiak arazoak ditu, baita haritz amerikarrak ere. Basogintza intentsiboan erabili diren espezie guztiak gainbeheran daude.

Basogintza eredu berria aldarrikatu izan duzu. Nolako?

Ez da hain berria, eredu zaharrera bueltatzea da, naturaren funtzionamendutik hurbilago dagoen basogintza egitea hain zuzen: ahal den neurrian bertako espeziekin eta ziklo luzeagoa duten espeziekin lan egitea, horren intentsiboa ez den basogintza lantzea eta eremu handiak antolatzea. Bidasoan, adibidez, leku malkartsuak babeserako har ditzagun, eta erosoagoak diren beste eremuetan ustia dezagun basoa. Nafarroako basogintza sistema egin dezagun gehiago, eta gutxiago Gipuzkoa eta Bizkaia, nahiz eta Nafarroan ere baden denetarik. **Nafarroan lur gehienak herri lurak eta beste herrialdeetan lur-jabe gehienak partikularrak izateak badu zerikusirik?**

Bai eta ez. Herri lurak gauzak beste modu batera egiteko aukera ematen du, baina →

«ZURA EDO KALITATEZKO URA EKOIZTEKO NAHI DITUGU BASOAK?»

«KANPOTIK EKARRI DITUGUN ESPEZIE EXOTIKOAK GALDU DIRA»



Goian Artikutzako Enobietako urtegia 2018ko martxoaren 16an, behean 2020ko ekainaren 3an. ARTURO ELOSEGIK UTZITAKO IRUDIAK

horrek ez du esan nahi beti horrela egiten denik. Esate baterako, Bizkaian, herri lurretan eta lur pribatueta proportzio bertsuan daude kanpoko espezieak eta bertakoak. Nafarroan herri batzuek herri lurretan hainbat baso mota dituzte, baina badira partikularren antzeri jokatu duten herriak ere.

30 urteotan, nolako bilakaera ikusi duzu erreketan?

Azken 30-40 urteotan, Kantauri aldera begira dauden erreke-

tan uraren kalitatea asko hobetu da. Ez zen zaila, lehenagotik oso erreka kutsatuak genituelako. Gaur egun, uraren kalitatea askoz hobea da, baina hobea izan daiteke. Erreka gehienetan bainatzea oraindik ez da oso fidatzekoa edo ezin daiteke ura edan. 30 urteotan asko kaltetu dena habitat fisikoa izan da. Esate baterako, erreka asko kanalizatu dira eta horrek bestelako kalteak eragin ditu. Beraz, garai batean batere arrainik ez

eta gaur egun amuarrainak eta izokinak dituzten erreka asko daude, baina errekei lotutako beste espezie batzuek gainbeheran segitzen dute; adibidez, ursatorrakedo bisoi europarrak. **Klima aldaketak ur gezetako ekosistemetan zer eragin duen aztertzeko laborategi elkartu batean parte hartzen ari zara...**

Frantziako ikerketa sistemak duen figura da. Nazioarteko laborategi elkartua deitzen dio eta Frantziako unibertsitate edo

ikerketa zentro bat atzerriko beste batekin edo birekin lotzen da. Kasu honetan, Angelun egoitza duen Paueko eta Aturrialdeko Unibertsitateak gurekin [EHUrekin], eta Kaliforniako Berkeleyko Unibertsitatearekin lotzea erabaki du. Hiru talde hauetan erreketan aritzen garen ikerketa taldeak gaude. Bakoitzak bere laborategiak, bere gaiak eta bere adituak ditu, baina askotan hankamotz gelditzen gara. Laborategi elkartu honen bidez, indarrak batuz, bakarka egin ezin ditugun ikerketak egin nahi ditugu.

Bestalde, Artikutzako urtegiaren hustuketa hurbiletik segitu zenuen. Nolakoa izan zen?

Izugarri interesgarria izan zen. Munduan milioika presa tiki eta milaka presa kozkor daude eta denek epe mugatua dute. Zaharkitu egiten dira, eta denborekin erabili gabe eta arrisku bihurtzen dira. Hori gertatu zen Artikutzako Enobietako presarekin. 1947an, Donostia urez hornitzeko, eraiki zuten, baina gero Añarbekoa egin zutenean, zentzua galdu zuen. Urtetan, utzikieraren utzikieriaz, erabili gabe eta segurtasunik gabe egon da. Bi aukera zituen: segurtasun mekanismoak eguneratzen diru pila gastatu edo deusetarako erabili behar ez bada kendu. Kentzea erabaki zuten eta horretarako lehenbiziko hustu egin behar da, eta ez da erraza. Hustuketa horrek ekar zitzakeen ondorioak ikerztearen arduradunak izan ginen, eta poliki eta oso-oso ongi egin zen. Horrez gain, Artikutzako leku batzuetan presaren eraginan nabaria zen uraren kalitatean eta bertako arrainetan eta ornogabeetan... Urtegia hustuta, inpaktu horiek segidan desagertu dira, eta orain presazegoen tokian, Enobietako errekek garai bateko bere ibilbidea hartu du, eta izugarrizko indarrean heldu da basoa. Ez hori bakarrik, beste erreka guztietan izaten diren xomorroez gain, ur satorra, igaraba... agertu dira. Natura ziztu bizian bere lekua berreskuratzen ari da.

Zenbat denbora beharko du lehenago zuen egoerara bueltatzeko?

Oso denbora gutxian ia ez da diferentziarik sumatzen erreka horren eta beste erreken artean. Itzal gutxi du, hori bai, zuhaitzak oraindik hartzen ari direlako eta 10-20 urte beharko dira basoa ixteko. Ezin daiteke esan egun batetik aurrera inpaktu guztia bukatua izanen denik, segur aski ongi aztertuz gero, hamarkada batzuetan diferentzia batzuk sumatuko ditugulako, baina gero eta gutxiago.

Espezie batzuk agertu eta beste batzuk desagertu dira?

Segur aski izanen ziren plankton espezie batzuk urtegiarian, baina berez bertakoak ez zirenak. Urtegiarian erreketako karramarroa ere bazegoen, baina horrelakorik ez da sekula izan Artikutzan. Orain dela hamar bat urte, oker ez banago Leurtzako urtegitik eraman eta Artikutzan askatu zuten, eta dezentente ugaritu zen. Orain, urtegia hustuta, bat edo beste geldituko dira errekan, baina berez ez da Artikutzako espeziea, bertako ura ez delako kareduna, eta bertako biztanleek ere karramarroa bertan ez zutela ezagutzen esaten dute. Gure ikuspuntutik, hori murriztea ez da kaltea. Presa hustuta onurak askoz gehiago dira.

Europar hustu duten urtegi handienetarikoa da Artikutzako...

Bidasoan, Urumean eta beste leku askotan presa tiki asko bota dituzte. Handiak, ordea, oso gutxi, Enobietakoaz gain, Normandian altuera bereko beste bat bota dute. Ameriketako handiagoak bota dituzte baina han ere oso gutxi, eta husten diren neurrian inportantea da zer gertatzen den ikertzea, gutxi dakigulako eta zerbait gaizki egiten badugu akatsak ez errepikatzeko.

Zer ikasi duzu?

Presa poliki-poliki hustu izana oso inportantea dela izan da ondorio nagusia. Enobietakoak urtebete baino gehiago pasatu du husten. Horrekin batera, uraren mailan gorabeherarik ez izatea ere garrantzitsua da.



Artikutza 2019ko martxoan –goian– eta 2020ko ekainean –behean–. ARTURO ELOSEGI

Hustu eta bete, hustu eta bete... horrek landarediaren kolonizazioa geldiarazten du eta zailagoa da lokatzak egonkortzea. Artikutzan, ordea, ez dugu kalterik detektatu. Uraren maila poliki-poliki jaistea eta jarraipen zehatza egitea garrantzitsua izan da.

Ondoko urteetan halako presa handi gehiago hustuko dira?

Badira sedimentuz betetako presak, eta bi aukera dituzte, sedimentu hori atera eta presa martxan jarri, edo presa kendu, eta presa kentzeko lehenbizi hustu behar dira. Hortaz, gehiago hustuko dira, bai, seguru.

Zuk esana da «aintzira baten antza izan arren, urtegia ibaiei kalte egiten dien egitura artifizial bat baino ez dela, eta zahartzean, in-

gurunean ahalik eta kalte tikienearekin kendu behar dela»...

Urtegi batek laku bat dela irudi dezake, baina bi alde nabarmen dituzte. Alde batetik, aintziretan ur maila konstantea da, ura oso gutxi aldatzen da, baina urtegiek ur mailan gorabehera handiak izaten dituzte. Aintziren ertzetan normalean landare asko izaten da, eta urtegien ertzak normalki nahiko soilak dira, urak gora eta behera egiten duelako, eta horrek ertzak higatzen dituelako. Askoz ere pobregoak dira urtegiak. Bestetik, aintzirek beti azaleko ura galtzen dute. Urtegiek, ordea, askotan hondoko ura askatzen dute eta ur hori, askotan, oxigeno aldetik pobrea da, eta hori kaltegarria izan daiteke. Arti-

kutzako urtegiak, garai batean, metal asko askatzen zuten, burdina eta manganesoa, urtegiaren hondoa oxigenoa falta izanda, metal horiek gehiago askatzen zituen. Kontzentrazio handietan toxikoak dira, bai animalientzat, bai jendearentzat. Urtegia hustu denetik askoz metal gutxiago du errekek.

Zein aholku emanen zenuke basoak, errekek, mendiak... zaintzeko?

Aurreneko aholkua ingurumena zeinen garrantzitsua den ulertzea da. Gaur egun, krisi izugarria dugu, osasun krisia dela, krisi ekonomikoa dela... Horiek guztiak krisi zabalago eta sakonago baten parte tiki bat dira, eta krisi hori gizakiak planetan sortu duen ingurumen krisia da. Planetan gure hankaren arrastoa nola murriztu pentsatzen hasi behar dugu, eta horrek hanka azeleragailutik altxatzea eskatzen du. Ezin dugu gero eta azkarrago eta gero eta modu intentsiboagoan kudeatu. Pixkanaka-pixkanaka ekosistema naturalak berreskuratzen hasi behar dugu, errekei eta gainerakoei beraien lekua uzten. Konparaziora, oso nabarmenak dira uholdeetan izaten diren arazoak. Urte asko eman ditugu uholdeen soluzio bakarra kanalizazioak eta horrelakoak izan direla pentsatuz, baina horrek muga gaitu du. Etxeak erreka ertzetan egin ditugula konturatzen hasi eta errekarilekua ematen hasi behar dugu. Horrekin batera, baso naturalak berreskuratzen eta loturak ulertzen hasi behar dugu. Hau da, ur garbia nahi badugu arroan zer dugun jakitea oso inportantea dela ulertu behar dugu. Zenbat eta baso gehiago izan, eta bereziki erreka ertzetan zenbat eta baso gehiago izan, orduan eta ur garbiagoa edukiko dugu. Hemendik ehun urtera biziko direnek ikaragarriko garrantzia emanen diote ingurumenari, azken batean, beraien bizi kalitatea horren menpe egon delako. Hemen dik mende batera edukiko dugun ingurumena gure erabakien ondorio izanen da.

«ARTIKUTZAN NATURA ZIZTUAN ARI DA BERE LEKUA BERRESKURATZEN»

«ENOBIETAKO URTEGIA HUSTUTA ONURAK ASKOZ GEHIAGO DIRA»

«Hezkuntza sistema honek eraitsi beharreko gabezia aunitz ditu»

NORA SALBOTX ALEGRIA AMAIURKO ESKOLAKO MAISTRA ETA ZUZENDARIA

'Askatu edo moztu. Euskal hezkuntzagintzaren erroka zahar eta berriak' liburua argitaratu du Nora Salbotxek Txalaparta argitaletxearekin eta Iratzar fundazioarekin. Dekolonizazioen beharra azpimarratu du eta hezkuntza sistema euskalduna, feminista eta burujabe publikoagoa aldarrikatu du

G. PIKABEA

Gaureguno hezkuntza sistema «agortua» dagoela dio Nora Salbotx Alegria (Iruñea, 1973) Amaiurko eskolako maistra eta zuzendariak eta Baztango Herrietako Eskoletako koordinatzaileak. «Gauzak errotik aldatzeko gogo bizia» duela dio argitaratu berri duen liburuan eta bide horretan, «dekolonizazioen beharra» azpimarratu du, «nabarmena delako gure hezkuntza sistemetan kolonizazioa ari duela». «Oraino egiteko aunitz dagoela» iritzita, «hausnarketarako, batasunerako eta borrokarako» deia egin du.

Liburua hainbat ataletan bildu duzu: 'Aitzinsolasa', 'Nondik heldu gara', 'Non gaude' eta 'Euskal hezkuntzagintza gureru ekarri'...

Bai. Bilduma berean, Andoni Olaragiak bere liburuan erabilitako eskema egokia iruditu zitzaidan. Garrantzitsua da nondik heldu garen argitzea, gaurkoaz eztabaidatzen denean euskal hezkuntzari buruzko ezagutza falta handia sumatzen dudalako. Euskal hezkuntzaren prozesuak mende bat baino gehiago du eta alde horretatik bi kontu nabarmendu ditut. Batetik, prozesua ez dela akritua, nondik heldu garen jakinda aitzinerat segitu behar dugula ikusarazi nahi dut. Bertzetik, aitorza, aitzinetik egin den lana ez dagoela aitortua iruditzen zait. Ez dago aitortua batik bat emakumeek egin dutelako, euskaraz egin dutelako

eta hezkuntza eta zaintza arras lotuta dauden arloak direlako. Hiru periferia dira: emakumeak, hezkuntza eta euskara. Kontaketa bat egiten dugunean, epika handia ematen diogu herri honen bertze borroka batzuei, baina hezkuntzak euskararen eta herri honen alde egin duen guztiari ez. Hori oroitarazi nahi nuen.

«Hezkuntza kontuetan, gauzak errotik aldatzeko gogo bizia» aipatu duzu. Hala sentitzen duzu?

Bai, nire militantzia hortik heldu da. Sekulako beharra dago, ikusi bertzerik ez dago hezkuntzan nolako kalapitak sortzen diren. Hainbertze gauza daude

aldatzeko, eta ez dut uste hori pentsatzen dudak bakarra naizenik. Batasun gehiago behar dugu, elkarrekin begirada bat osatu eta aitzinerat ekin.

Agerian utzi duzu Euskal Herrian hezkuntzaren alde egon den edo dagoen gogoia ez dela berria...

Hala da. Eusko Ikaskuntza 1918an sortu zenean, hezkuntzaz ari ziren eta hori inflexio puntu garrantzitsua izan zen. Baina lehenagotik ere saiakerak izan ziren, baita gure eskualdean ere, adibidez, Zugarramurdin. Herrietan bazen maisu-maistrak euskaldunak izateko nahia, gure herrietan ez baitzen euskara baizik egiten.

Bibliografia lan handia egin duzu, eta erreferentzia aunitz aipatu dituzu...

Bai, eta irakurle batzuek esker-tu izan didate bibliografian emakume pila daudelako. Ez da kasualitatea, saiakera berezia egin dut. Begirada feminista batetik egin nahi izan dut, gaur egungo hezkuntzari buruzko eztabaidan ez dudalako feminismoa ikusten. Badakigu pedagogia feminista egin behar dugula, emakumezko zientzialariak, artistak eta idazleak eskoletako programazioetara ekarri behar ditugula. Hori behar da, baina gure hezkuntza sisteman patriarkatua aunitzez ere modu sakonagoan txertatuagoa dago, eta hori deseraikitze errotiko kritika egin behar zaio. Feminismoak erakutsitakoa oinarri hartuta begiratu diot hezkuntzari. Hori da ekarpen berritzaileena.

Erraza izan da?

Ez da erraza izan, ez naizelako honetara dedikatzen, bizitzari atera dizkiodan pusketetan egin behar izan dut. Feminismoa ekartzea ere ez da erraza izan, baina polita izan da eta aunitz ikasi dut. Feminismoaz aunitz leitzen dut eta nire talaian, hezkuntzan, kanpoko eta barneko dekolonizazioen beharra ikus-

«Denaren gainetik maistra»

Ez da erraza Nora Salbotxen aurkezpen laburra egitea. Haur Hezkuntzan eta Psikopedagogian graduatua da, Landa Eremuko Hezkuntzan aditua eta Hezkuntza eta Komunikazioan masterra egina du. Mondragon Unibertsitatean eta Nafarroako Unibertsitate Publikoan irakasle aritua da eta, gaur egun Amaiurko eskolako zuzendaritzan eta Baztango Herrietako Eskoletako koordinazioan dabil. Hik Hasi-ko, Herri Hezitzaileen sareko, Eusko Ikaskuntzaren hezkuntza lantaldeko eta Plaza Hutsa-ko kidea ere bada. Irakasleen



Nora Salbotx Alegria.

formakuntzan ere aritzen da eta artikulua andanaren egilea eta hitzaldi emailea da.

Zerrenda luzea da, baina «denaren gainetik, maistra naiz». Horixe nabarmendu du.

Orain, berriz, koska bat goiti egin eta liburua argitaratu du: «Aspaldi nenbilen artikulua egiten eta hitzaldiak ematen, baina batik bat pandemiaren geroztik enkargu pila egin zizkidaten, eta horrek gehiago hausnartzeko, gaiari bertze begirada batetik begiratzeko edo ideia batzuk berreraikitza bide eman zidan. Joan den otsailean, Txalaparta argitaletxeak eta Iratzar fundazioak nire hausnarketak liburuxka formatura ekartzeko eskatu zidaten, eta horren emaitza da liburu hau, bilduma baitan argitaratutakoa».

ten nuen, gure curriculumak eta gure ingurua dekolonizatzeko beharra, eta gure gorputzean gertatzen direnak dekolonizatzeko beharra. Hori feminismoak aski ongi azaltzen du, eta hezkuntzako kezkekin gurutza daiteke.

Azalduko zenuke?

Dekolonizazioaren begirada azpimarratu nahi nuke. Herri honetan kolonialismoa ari du, eta hezkuntza sisteman kolonialismoa ari du, horretarako sortuak baitaude Frantziako eta Espainiako hezkuntza sistemak. Kanpoko eta barneko kolonizazioak daude. Frantziako eta Espainiako sistemak arras imperialistak eta kolonialistak dira, eta gurean bertze herrialdeetan gertatzen denari, estatutik gabeko nazioa izatearen ondorioz gertatzen zaizkigunak gehitu behar zaizkio, eta horrez gain, gure baitakoa ezabatzeko nahia dago. Egutero ikusten ditugu adibideak, eta beraz, askatu, moztu edo askatzeko moztu beharko da.

Gure hezkuntza sistemak alfabetatzeaz gaindi, frantsesteke eta espainoltzeko eginak direla diozu...

Eta horrela aitoritzen dute. Testu historiko horietako batek horrela dio: «Haurren bihotz xamurretan gure nazioarekiko, –eta bistan da ez dela gure nazioaz ari, Frantziak eta Espainiak baizik–, maitasuna txertatzeko helburua du». Badaude bertzelako nahiak ere, alfabetatzeko nahia, adibidez, baina Euskal Herritik eta feminismitik begiratuta hankamotz gelditzen da. Erabat androzentrikoa da, eta ekarpen feministaren bat egiten saiatzean horri bidea mozten diote. Bistan da inposatzeko nahia dagoela.

Hizkuntza ereduaren gaurko sistema desagerrarazteaz ere ari zara, ikasle guztiak euskalduntzeko murgiltze eredu bakarria aldarrikatuz...

Anakronismo bat da, begirada arrasakomplexatu batetik sortua. «Gure hizkuntza euskara da» erran eta hezkuntza sisteman hori bermatu beharrean, ereduaren kontu hori sortu zuten. Mundu mailan ez dago horre-



Nora Salbotx Alegria bere liburua eskuartean duela.

lako adibiderik, eta hori diglosia egoera gordin batean sortutakoa da, konplexu aunitz dituen sistema edo hezkuntza politika batetik. Ereduaren kontu hori desagertu behar da, ez ditu bermatzen euskararen aldetik gaitasun ona izanaren duten herriarrak, eta garbi erakutsi du segregaziorako tresna izan daitekeela eta jendarte kohesiotik urruntzen gaituela.

Bidea neketsua, zaila eta sakrifizioz bete izan dela ageri da liburuan. Zein izan dira oztopo nagusiak?

Sekulako proiektio gaitasuna erakusten duen esaldia da. Luis Elizalde 1918an erran zuen logikoa, bidezkoa eta zilegi dela gure euskal hezkuntza izatea, baina hain zuzen horregatik ez dugula esperatzen ahal esta-

tuaren aldetik horrelakorik. Horregatik behin eta berriz aipatzen dut sekula ez zaigula eman, behin eta berriz borrokatu behar izan dugula. Borroka horretan, behar gorrian sortutako herri erantzun bat izan da, kolonialismo horren ondorioz euskara eta gure kulturarekin zerikusia duen begirada guztia desagertzeko arrisku bizian egon da eta bertzeak bertze, hezkuntza tresna gisa erabili izan da horren aitzinean. Behar horri erantzunez, errepublika garaian saiakera antolatutako dezentekoak izan ziren, Francoren garaian ere bai... Ikastolen mugimendua, euskara eredu publikora eramateko borroka.... Horiek ez dira egun batetik bertzerera eta aisa

lortu. Gure eskualdeko emakume baserritar euskaldun gazte aunitzi ere zor diegu aitorza, borroka horien karietara, aunitz izan zirelako, bertzeak bertze, ikastola sortu berrietara joan zirenak. Sekulako borroka klandestinoa izan da, aunitzetan militantzia hutsez egindakoa, eta ez da bide erraza izan.

Bideak zaila izaten segitzen du?

Egutero eskolara etortzen gara, inork ez digu eskolako sarrailan silikona eman, euskarazko jarduerak egiten ditugu... Akaso ez dugu bidea zaila denaren pertzeptziarik, aitzinekoekin dako borrokaren fruituak hartu ditugulako. Baina batzuetan sentsazioa dut eroso gaudela eta lortu beharreko guztia lortu dugula iruditzen zaigula. Eta ez da inondik inora ere horrela. Gaur egun ere curriculumak ehuneko arras handian Parisen eta Madrilen ezartzen dituzte, badakigu Molac Legearen karietara nola dagoen Ipar Euskal Herrian murgiltze eredu guztia eztabaidan, baxoa oraino →

«KANPOKO ETA BARNEKO DEKOLONIZAZIOEN BEHARRA DAGO»

«ESPAINOLTZEKO ETA FRANTSESTEKO DIRA HEZKUNTZA SISTEMAK»



Salbotxen hitzetan, euskal hezkuntzaren prozesua «ez da akitua» eta «oraino aunitz dago egiteko».

euskaraz egiteko plantoak egiten dituzte ikasleek... Disidentzia ariketa horiek euskara hezkuntza sisteman ez dagoelako aitortua gertatzen dira, eta berdin Nafarroan. Oraino ez dago sare publikoan euskara bermatua eta horren adibidea da Mendigorriko borroka. EAEn iduri du euskara bermatuagoa dagoela, baina ikasturte honetan paratu dute lehendabiziko aldiz Bilboko Otxarkoagoa auzoko eskolan euskara, eta ijito ama batzuen borrokaren ondorioz lortu dute. Oraino aunitz dago egiteko eta arraz beharrezkoak dira herri ekimenetik sortutako proiektu komunitarioak. **Hortaz, hezkuntza sistema hau agortua dela iruditzen zaizu?**

Agortua dagoela erraten dute hainbat eragilek egindako hezkuntzari buruzko txosten aunitzek. Hasteko, egin den eta egiten den guztia aitortu behar da, ez gatoz eskolara denbora galtzera. Are gehiago, hezkuntza sekulako tresna da mundua eta Euskal Herria aldatzeko,

justizia sozialerako eta bertze aunitzetarako, baina badira eraitsi beharreko gauza pila.

Eraitsi beharrekoaren artean, zer nabarmenduko zenuke?

Bertzeak bertze, parte-hartzea aipatuko nuke. Ikastetxeak, sare publikokoak zein kooperatiboak izan, herrira zabaldu behar ditugu, aunitzez ere parte-hartze horizontalagoa bilatu behar dugu; ikasleak erdigunean jarriko duen eredia behar dugu, eta beraz, ikaslea subjektu politiko bat dela aitortu. Gure gorputzak ere aipatzen ditut, gaurko programek subjektibitateak edo izateko modu partikularrak neutralizatzen dituztelako. Nolabait ere patriarkatu kapitalistari interesatzen ez zaizkion identitate edo gorputz

horiek guztiak ezabatzeke joera dago, nolabait homogeneizatzeke. Ez zaie aniztasuna eta pentsamendu kritikoa aldarrikatzea interesatzen. Horrekin batera, gentrifikazioaren kontua dago, pribatizatzeko joera. Pandemiaren aitzakian Microsoft edo Google dela, jangelak kudeatzeko modua dela, edo eskolaz kanpoko ekintzen kudeaketa dela.... Gure jarduera pribatizatzeko mila modu daude, eta horiei begiratu behar diegu. Burujabetza ttikiekin burujabetzahandia egiten dela ulertzea ere garrantzitsua da. Burujabetza handi baterako grina aspaldikoa da herri honetan, baina egunero eragiten ahal dugun burujabetza ttikietan jarri nahi dut arreta. Elikadura burujabe-

tzak euskara sustatzen ahal du, Errigora da horren adibide, edo euskarak burujabetza teknologikoa, edo feminismoak bat edo bertzea... Elkar elikatzen dute.

Zure ustez, ez dira instituzioen esperoan egoteko garaiak...

Hala da. Baina bada baleko instituzio bat, udala, hurbilekoa. Gure eskualdean, udalak, berdintasun edo euskara batzordeak, herri hezitzaile dinamikak martxan jartzeko konplize izan ditzakegu. Baina ezin dugu estatuen esperoan egon, estatua patriarkala eta kapitalista delako eta komunitarioak ez diren bertze interes batzuetan paratzen dituelako zerbitzuak.

Herri borroka berriez ere ari zara...

Beharrezkoa da ados gaudenon artean artikulatzea eta saretzea. Borroka feministak honi guztiari aunitz eman diezaioke, baita euskalgintzak ere, edo aisialdian dabilen jende guztiak... Komunitate pentsamendutik abiatuta saretu behar dugu, gure hezkuntzaz eztabaidatu eta erabaki behar dugu. Nolabait ere, hausnarketarako, batasunerako eta borrokarako gonbidapena egin nahi dut.

Zuk argi duzu: hezkuntza sistema euskalduna, feminista eta burujabe publikoagoa duzu begiz joa...

Bai, eta publikoa eta burujabea ez bada ez da euskal hezkuntza sistema izanen. Burujabetza publikoaren kariatara, pribatuaren eta publikoaren arteko eztabaidan, zera gehituko nuke: Sare publikoak edo kooperatiboak izan, zeinen zerbitzura daude hezkuntza sistemak? Gure nahien gibeletik bertze interes batzuk daude eta ez diegu herri harresiz erantzuten. Pareko ikastetxeak ez luke are-rioa izan behar, ez genuke zenbat ikasle dituen hark eta zenbat nik jokoan ari behar. Elkarrekin lan aunitz egin dezakegu, ratio duin batzuen alde, eta patriarkatuaren eta espainoldu eta frantsestu nahi gaituzten dinamika guztien kontra borrokatu behar genuke. Sokaren bertze aldean patriarkatua dago, kapitalismoa dago, Espainia eta Frantzia daude.

«GAUR EGUNGO HEZKUNTZA SISTEMA AGORTUA DAGO»

«BATASUNERAKO ETA BORROKARAKO GONBIDAPENA EGIN NAHI DUT»

Zaindu maite duzun hori...

Nola erran?

* Izartxoaren dutenak eta arrosez daudenak gaizki daude.

Makilatu ≠ makillatu

Bi aditz dira *makilatu* eta *makillatu*.

Makilatu 'makilaz jo, makila-ukaldiak eman' erran nahi du.

-Zapaldu eta makilatu, hil zuten Peru gizagaixoa.

Makillatu berriz, 'aurpegia kosmetikoekin margotu edo itxuraldatu' erran nahi du.

-Kolare biziz makillatutako lagun batzuk etorri dira.

Osatu bikoteak

Haur hizkerako hitzak ekarri ditugu aldi honetan Euskararen Txokora. Xaldun Kortin, jolastu gurekin liburutik hartuak dira. Osatu bikoteak!

Aurpegia zimurtu

Ahatea

Bukatu

Irentsi

Lo egin

Zerria

Jantzi

Hozkatu

Ibili

Azeria

Ttukun-Ttakun

Axelko

Ttipi-ttapa

Itsusi-itsusi egin

Ako

Momo

Akiki egin

Tuxa

Ttit

Kua-kua

Zein da zuzena?

*Sukaldatu ala kozinatu?

Euskaltzaindiak dioenez, «**sukaldatu* aditz berria da», eta «ez du inolako tradizioirik. Erdal hitz mozorrotua da, eta gaizki osatua». Euskaraz *sukalda* hitzik ez dagoenez, horren gainean ezin da hitz eratorririk sortu. Hortaz, hobe ez erabiltzea.

Kozinatu aditza, berriz, «jatorra» da Euskaltzaindiaren arabera, «tradizioduna baita».

-Badakizu, nagusi, nik ez dakit kozinatzen.

Eta zuk zer diozu?

Bidali zure zalantzak, proposamenak, azalpenak... Animatu eta parte hartu!



info@ttipi.eus



744 48 43 61



Bidasoaren eskuineko ertzean eraikitako harri-lubeta.

Ur-kolektorea egonkortzeko lanak egin dituzte

Igarotzeko arrapala ere eraiki dute eta Bidasoaren eskuineko ertzean harri-lubeta bat eraiki dute

AINHOA LARRETxea AGIRRE

Berako ur-kolektorea iragazkurtu, babestu eta ibaiertzak lehengoratzeko lanak egin dituzte udazkenean. Kolektorearen egonkortasuna ziurtatzea, ibaiaren iragazkortasuna hobetzea eta ibaiertzak lehengoratzeko lan horien helburua.

Berako Zentraleko presa eraisteko lanak 2016an egin zituzten eta ondotik, bistan gelditu zen Bera eta Alkaiaga konektatzen duen hondakin-uren kolektorea eta egonkortasuna arriskuan egon zitekeela. Lanen bidez, kolekto-



Arrainentzako eraikitako arrapala.

DENERA 257.000 EUROKO KOSTUA IZAN DUTE EGINDAKO LANEK

rearen egonkortasuna bermatu nahi izan dute.

Kolektoreak sortutako jauzi txikiaren iragazkortasuna hobetzeko, arrapala eraiki dute, tarte horretan dauden salmidoak (lanproia, aingira, kolaka, eta abar) baino mugikortasun txikiagoko espezieak igarotzeko oztupo garrantzitsurik izan ez dezaten.

Arrainentzako pasabiderako, hormigoitutako harri-lubeta-aren arrapala bat egin da, landatar itxurakoa, arrapalan blokeak sakabanatuta jarrita, zimurtasuna izateko eta uraren fluxuaren abiadura gerrazteko eta murrizteko. Bi lan horiek 120.000 euroko kostua izan dute eta obra NILSAK sustatu du

Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiak proiektu bat egin du Bidasoaren eskuineko ertzean eta Zia erreka-aren bokaleko eskuineko ertzean hondatuta dauden babesak leheneratzeko. Horretarako harri-lubeta bat eraiki dute, zati horretan zeuden higadurak egonkortze aldera. Halaber, kaltetutako ertzak landareztatu dituzte, Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiak eta GAN-NIK enpresa publikoak aldeztu aurretik egindako obren jarraibideak jarraituz, hori guztia 137.000 euroko kostuaren truke.

Kolektorea iragazkortzeko eta babesteko lanak eta ibaiertzak lehengoratzeko obrak aldi berean eta koordinatuta egin dira, ibaiari ahalik eta kalte gutien egiteko.

Udalak Jose Antonio eta Rosa Mari Errandonea omendu ditu

TTIPI-TTAPA

Abenduaren 31n eskertza omenaldia egin zien Berako udalak Jose Antonio eta Rosa Mari Errandonea berako anai-arrebei beren bizitzan zehar herriaren alde egindako lan eskeragatik. Aitor Elexpuru alkatea eta Jose Antonio Oiarzabal eta Esteban Agirre zinegotziak bertaratu ziren eta lore sorta bat eta plaka bat eman zizkieten. Ustekabe ederra izan zen beraientzat, ez baitzuten horrelakorik espero.

Urte luzez Berako historia, ohiturak, kultura eta ondarea oinarri hartuz lan eskeragatik egin dute argazkigintzan, hemerroteka bilketan eta artxibo lanean. Urte berriarekin bat, lan horietatik jubilatzeke erabakia hartu dute biek, nahiz eta beraien zaletasunarekin eta behar duenari argazkiak uzten jarraituko dutela dioten. Argazki berriak egin beharrean zaharrak berreskuratzen ari-tuko dira, orain arte bildutako dokumentazioa eguneratzen, sailkatzen eta txukuntzen. Esker oneko hitzak izan zituzten Rosa Mari zein Jose Antoniok, eta herritarrei zein komunikabideei urte hauetan eskainitako babesa eskertu zieten.

Zalain
JATETXEA RESTAURANTE

Eramateko janaria
astelehenetik ortziralerara

Zalain Auzoa BERA t. 948 631 106 w. www.zalain.info

LABE ZAR

Astelehenetik ortziralerara:
07:15etik aitzinera

Larunbata eta igandea:
08:00etatik aitzinera

948 631 076 • BERA

ERRANDONEA, s.l.
FARMACIA DE BIDASOIA

BILTEGIA: 948 630 102
SAKELAKOA: 633 480 563

Bidasoa, 76 - atea 21-22 • BERA

Ainhoa Altzuguren Mitxelena

Abokatutza orokorrean • Herentziak
Alokairuak • Lan aferak

Zerbitzua euskaraz ematen dut. Deitu eta solastatuko gara.

BERA - M. 630 97 21 89 - ainhoaaltzuguren@gmail.com

Anterola
Tekniko instalatzailea

ITURGINTZA • GASA
KALEFAKZIOA

Zerbitzu anitzak &
Gremioen koordinazioa

629 449 602

TTIPI-TTAPA SARE SOZIALETAN

facebook

www.facebook.com/ttapi.ttapa



Santa Barbara mendira kronoigoera eginen dute.

Mendi Eguna ospatuko dute larunbatean

Goizean haurrentzako eskalada tailerra izanen da eta arratsaldean kronoigoera Santa Barbara mendira

AINHOA LARRETXEAGA AGIRRE

Hamabortzgarrenez Mendi Eguna ospatuko dute Beran larunbatean. Egun osoko egitaraua antolatu du Manttale Mendi Lasterketa Taldeak. Goizean, 09:45ean hasita, haurrentzako eskalada tailerra eginen dute. Ondotik, arratsaldean Santa Barbarako kronoigoera jokatu dute. Lasterketan parte hartzeko nahitaezkoa izanen da izenematea. 14:15etatik 15:00etara izanen da Ricardo Baroja eskolako estalpean.

15:00etan txangoa abiatuko da Ricardo Baroja eskolatik

bertatik lasterketa ikusteko, eta 15:30ean abiatuko dira lehenengo lasterkariak. Minutuko tartean aterako dira parte hartzen duten bikote eta hirukoteak eta Santa Barbara mendiko kaxkora joan-etorria egin beharko dute, denera 5,5 kilometroko ibilbidea osatuz. Denborak hartuko dituzte, baina ez da sailkapenik izanen.

Lasterketa bukatutakoan, merienda izanen dute eskolako jangela eta sari batzuketarako zozketatuko dituzte. Ondotik, 19:00ean, kultur etxean ikus-entzunezko dokumental baten emanaldia izanen dute.



UTZITAKO ARGAZKIA

Olentzeroren eta Mari Domingiren bisita

Berako haurrei bisita egin zieten Olentzerok eta Mari Domingik abenduaren 24an. 17:00etan plazan elkartu eta *Berako Olentzeroa* eta *Hator*, *hator* kantatu ondotik, menditik jaitsi ziren gutunak hartzeko. Gure Txokoa elkartearen Olentzero eta *Diostesalve* bertan behera geratu ziren osasun egoeragatik.

'Azkena' Ziklokross txapelketa jokatu dute urtarilaren 23an

Urte anitzez egin gabe egon ondotik, 2022arekin batera bueltan da Berako ziklokross txapelketa. Urtarrilaren 23an jokatu da 09:45ean hasita. Sei kategoriatako txirrindulariak lehiatu dira. Master kategoriakoak (30 urtetik goitikoak) izanen dira zirkuitua egiten lehenak, 09:45ean ate-

rako dira. Ondotik, 10:45ean kadeteen txanda izanen da; 11:30ean hasiberriak lehiatu dira, eta 11:45ean jubentuen eta kategoria absolutoko emakumeen txanda izanen da. Proba burutzeko, 13:10ean aterako dira elite kategoriako eta 23 urtez beheitiko txirrindulariak.

Alberto RETEGI
abokatua
© 948 630 763 · Altzate, 17 · BERA

MARITX
· INGENIARITZA ELEKTRIKOA · BOLETIN INDUSTRIA
· PROIEKTU ELEKTRIKOAK · INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
T. (0034) 636 617 450 Legia, 23 - BERA

ERAKUSKETA
TALLER MUSEOA
SUSPELA auzoa, 1A BERA
ArMi
JOKIN ARMAN
Margolaria / Eskultorea
TRINI MIQUELARENA
Margolaria / Marrazkilaria
ORDUTEGIA
10:30-13:30
16:00-19:30
Tel.: 670 260 424 - 677 471 966



Herriko kultur eragileak, liburuaren aurkezpenean.

Herriko kulturaren liburu xuria argitara eman dute

Sorginxulo kultur bilguneak udalaren laguntzarekin egin du eta 21 eragileren ezaugarriak eta proposamenak ageri dira

AITOR AROTZENA

Lesakako Sorginxulo kultur bilguneak, udalaren laguntzarekin, *Lesakako kulturaren liburu xuria* argitaratu du. Bere orrietan, herriko 21 eragileren ezaugarriak, proposamenak, ohiturak eta kontaktak aurki daitezke, eragile bakoitzak bere eskuz deskribatuak.

Soinulariak, trikitiak, antzerki taldeak, dantzariak, kantariak, musika banda, elkarre eragileak, eta bertze zenbait, irakurtzen duenak ohartuko da denetik dagoela, eta denentzat. Sarreran aipa-

tzen denez, herritar guzientzat sortua dago, baita kanpoko jendearentzat ere. Bertakoak, herrian dagoen aberastasun kulturala zehaztasun gehiagoraz ezagutzeko. Kanpokoak, Lesaka bisitatzean gorputzaren barruan zein bihotz dabilen taupaka sentitzeko.

Liburua nahi duenak Telletxea liburu-dendan eta Xagu liburu-dendan jaso dezake bi euroren truke. Liburutegian eta turismo bulegoan ere eskuragarri izanen da liburua, baita udalaren webgunean ere, edizio digital modura.

Uholde arriskuaz herritarrak ohartarazteko SMS zerbitzua abian

Uholde larrialdi-abisuak eta alertak herritarrei modu azkar batean zabaltzeko SMS zerbitzua sortu du udalak, Life Nadaptat proiektuarekin, Nafarroako Gobernuarekin eta Nafarroako Ingurumen Kudeaketaren laguntzarekin. Doako zerbitzu honen helbu-

rua Onin eta Biurana errekek eta Bidasoa ibaiak gainezka egitean sortzen ahal diren kalteak aurreikustea eta murriztea da, Zerbitzuari buruzko informazio gehiago lortzeko edo alta emateko www.lesaka.eus edo www.urraba-lesaka.tesicnor.com

Olentzeroren jatorria ezagutzeko ginkana eskura paratu dute

Turistek eta herritarrek atera berri den ginkana turistikoa probatzeko aukera dute. Ginkana, udalazken hilabeteetan garatzen ari den proiektua da eta egun hauetan estreinatu berri dute.

Olentzeroren jatorria izenburuarekin, pertsonaia honekin oinarritutako fikziozko istorio bat aurkezten digute eta hamabi enigmari erantzun behar zaie, 90 minutu eta kilometro eta erdiko ibilbidean.

Ginkana doan da, urteko 365 egunetan eta eguneko 24 orduetan eskuragarri dago eta

komentuan dauka irteera. Turismo bulegoan eta herri guztian barna jarriko diren QR kodeetako bat eskaneatuta, jokoan sar daiteke. Olentzerori bere zereginetan laguntzeko ez da inolako aplikaziorik jeitsi behar eta nahikoa da mugikor bat edukitzearekin. Proiektu hau Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza bati esker eta Gymkana Turística Digital enpresarekin batera garatu du udalak, azken hilabeteetan martxan jarritako turismo planaren testuinguruan.



BETI GAZTE

'Lesakako bitxikeriak' ezagutzen

Lehen aldiz *Lesakako bitxikeriak* lehiaketa antolatu du Beti Gaztek. Iker Altzugarai Zubiri eta Milagros Etxepare Irigoien suertatu dira garaile, hamasei galderak zuzen erantzunda eta 60na euroko erosketa-txartela irabazi dute. Parte-hartzaileen artean sariak ere zozketatu dituzte.

JAIONE - LOXOTEGIA
Etxean egindako produktuak
948 630 786 • Altzate, 21 • BERA

BEKO
LOREAK ETA LANDAREAK
Frain Auzoa • LESAKA
T. 948 637 826

ORBELA
SENDERISMO ATERPETA
BEINTZAKO OSTATUA
Idoia • Mikel
Tel. 948 450 014 • BEINTZA-LABAIEN
info@orbela-beintza.com
www.orbela-beintza.com

744 484 361
tapi-ttapa



Eskol-Tiki berritzeko eta irisgarri egiteko 105.000 euro bideratuko dituzte.

3,5 milioi euroko aurrekontua onartu du udalak aho batez

Argiteri publikoa berritzera bideratuko da inbertsiorik handiena eta Alkaiagan saneamendu sarea berrituko da

A. AROTZENA

Udalak aho batez onartu ditu 2022ko aurrekontuak. Guztira 3.580.227,19 euroko gastuak eta diru-sarrerak aurreikusi ditu, iaz baino 599,677 euro gehiago. Aurreko urteekin alderatuz, pertsonal gastua igo egin da, Nafarroako Gobernutik aurreikusitako soldata igoerez gain, turismo teknikari bat eta enplegu anitzetako langile bat gehiago kontratatu baitute. Bertzelako gastu eta laguntzei dagokienez orohar, mantendu egin dira kopuruak, diru laguntzak, ekitaldiak, mantenimendu gastuak... Hiri altzariak berritzeko ere ahalegina egingen du udalak eta horretarako 17.500 euro bideratuko ditu.

Parte-hartze prozesuak

Berrikuntza nagusien artean, hainbat parte hartze prozesu jarriko dituzte martxan herriko zenbait guneren erabilpen eta moldaketak nolakoak izan diren erabakitzeke :

- Alhondiga eraikinaren etorkizuna erabakitzeke parte hartze proiektura, 17.000 euro bideratuko dira.

- Eltzetako gunen berdeen berregokitzeko proiektura, 7.000 euro.
- Irain eskolako jolas lekua berritzeko diseinu prozesu parte hartzaile, 15.000 euro.

Landaketak eta abeltzaintzarako azpiegiturak
Mendietan, azken urteetako ildoari eutsiz, landaketak lehensiko dituzte (bertako espezieen %50a bermatuz), eta abeltzaintzarako azpiegiturak. Behean aipatutako bi puntu nagusiez gain, auzo bideak egokitzea aurreikusten da PIL-ak baliatuz, eta bide bazterren garbiketa sistematizatuko da:

- Landaketak, desbroze eta garbiketak, eta mendi bide batzuen egokitzapena, 188.789,71 euro.
- Abeltzaintzarako azpiegiturak, ur deposito eta aska berriak, eta auzo bideak moldatzea, 114.863,42 euro

Bi kasu hauetan Nafarroako Gobernuaren diru laguntza aurreikusi dute.

Argiteri publikoa berritzea

Energia berriztagarri eta efizientzia energetikoan, gaur

egungo krisi energetikoak aurreko urteetako apustua indartzea ekarri du, eguzki panelen bi instalazio martxan paratu ondotik (149,2 kWp orotara), eta herriko argiteriaren zati baten aldaketa positiboki baloratu eta gero 2022rako inbertsio garrantzitsua aurreikusi da. Honetarako IDAEn diru laguntza aurreikusi dute:

- Argiteria publikoa berritzea 264.177,62 euro.

Alkaiagan saneamendu sarea eta Zelaia inguruan plaza egiteko zolaberritzea

Alkaiaga eta Zalainzokok azpiegiturretan dituzten gabeziek kontziente izanik, 2022an Alkaiagan aurreikusi dira inbertsio batzuk, aurtan hasiera batean Zalainzokon ez dago partida propiorik, baina auzo bideetako zolaberritzeen barruan ahalegina egingen da, egin ziren lanei jarraipena emateko.

- Saneamendua sarea, 148.138,25 euro
- Zelaia ingurua zolaberritzea, plaza bat egiteko 36.694,82 euro.

Eskol-tiki berritu eta irisgarri egin eta herritarren arretarako bulegoa ireki

Herri ondarea, eta udal zerbitzuak herritarren esku jartzeke, eta udalaren funtzionamendua hobetzeko inbertsio batzuk aurreikusi dira, hauek aitzinera eramateko ere diru laguntzak aurreikusi dituzte.

- Eskol-Tiki berritzea eta irisgarri egitea 105.039,23 euro
- Herritarren harretarako bulegoa martxan jartzea 25.869,83 euro.

Hauek dira 2022ko aurrekontuen ardatz nagusiak, «herriak dituen baliabideak ahalik eta era egokienean baliatzeke saiakera bat dira, zorrak konprometitutako 222.000 euroaketa krisi energetikoaren ondorioz pairatzen dugun prezio igoerak baldintzatutako aurrekontuak», udaletik aipatu dutenez.

Roqués organoari buruzko informazio bilera ortzirale honetan

A. AROTZENA

Lesakako Roques Organoaren Lagunen Elkarteak organoari buruzko informazio-bilera irekia antolatu du urtarilaren 14an, ortziralean 19:00etan udaletxeke pleno-aretoan eta bertan parte hartzeko gonbitea luzaatu dio interesa duen orori. Bertan, Lesakako elizako Roques organoaren balioa nabarmentzeko eta zaharberritzeko proiektuaren alderdiak eta egoera azalduko dituzte.

Hizlariak elkarteke kideak eta organoa ederki ezagutzen duen ANAOk (Nafarroako Organoaren Lagunen Elkarte) lehendakari ordea den Jose Luis Etxetxipia organista izanen dira. Duela gutti, Echechiak eta Ruben Perez Iratxeta organogileak, Nafarroako Gobernuaren enkarguz, organoaren egoeraren azterketa zehatza egin dute. Azterketa hori aprobetxatuz, elkarteak zaharberritzerako soluzio edo esku-hartzeen oinarritzko memoria baloratua egiteko eskatu zion organogileari. Laburbilduz, proiektura hurbiltzeko aukera da, proiektuaren egoerari eta epe laburrera aurreikusitako jardueraren planari buruzko informazioa lortzeko.

Elkartetik, ekitaldian parte hartzeri animatu dute, «organoa Lesakako ondare kulturalaren parte da, eta hitzaldi hauek honengana hurbiltzeko aukera ematen digute, hobeto ezagutzeko».



Jose Luis Etxetxipia aditua.



Ttikienak olentzero bizkarrean zutela kantari ibili ziren. JOSEBA OLAGARAI

Eguberrietako ospakizunak ia normal bete dira

Abenduaren 24an olentzero eta Mari Domingiri kantari eta urtezahar egunean Ela-Ela kantari atera ziren

IRUNE ELIZAGOIEN

Hau idazterakoan seigarren olatuan murgilduak bagaude ere, aurten eguberrietako ospakizunak nolabaiteko normaltasunerara itzuli dira.

Abenduaren 24an, guraso elkarteak antolatuta, herriko txistulari eta trikitilarien laguntzarekin, Olentzeroen irudiek eta Olentzero eta Mari Domingi bizidunek herriari itzulia eman zioten. Meza ondoren Olentzero eta Mari Domingi opariak banatu zituzten eta trikitilariak eguberrietako kantuak jo zituzten frontoian.



Olentzero eta Mari Domingi.

Urte zahar egunean, haurrak etxez-etxe ibili ziren, ohitura zaharra mantenduz, Ela-ela kantari. Bizi dugun egoera kaskarra zela eta, Errege egunean, ez zen txokolaterik banatu Larraburuan.

Ternua Group-en laneko arropa egiten hasi dira

Laneko arropa ekoizten hasiko da Ternua Group enpresa. Lehen eskaera Bermeoko arrantzaleentzako petoak izanen dira. Etxalarren dagoen lantegian eta Espainiako eta Portugalgo tailerretan egingen dute %100 jasagarria izanendean arropa.

Usazaleen bazkaria eta 2020ko txapela Lannen

Pasa den urtean elkartzerik izan ez bazen ere, aurten egin dute usategiek denboraldi bukaerako besta eta Etxalarko zortzi usazale joan dira Lannen. 2020ko sasoiko txapela jaso zuten. 2021ean laugarren izan da sailkapen orokorrean Etxalar, 29 dozena usorekin.

Larraburuko 80 urtekoak omenduak

Abenduaren 3an Larraburua elkarteak bazkideen eguna ospatu zuen eta aurten 80 urte bete dituzten bazkideei omenaldia egin zitzaion. Jose Antonio Elizalde, M^a Rosario Ezker, Angel Iparraguirre eta M^a Dolores Sanzberro izan ziren omenduak. 32 lagun elkartu ziren bazkaltzeko eta hagitx ongi pasa zuten.



MARIA LUZ ARIZTEGI

Imanol Vicente Nafarroako txapeldun

Doneztebeko Slaloma jokatu zen Donezteben eta Imanol Vicente gidariak lehen postua lortu zuen. Abenduaren 4an Beran ere atera zen eta bi proba hauen emaitzekin, Nafarroako Slalom txapelketan, monoplaizen modalitatean txapeldun geratu da Imanol Vicente. Oier Iturria herritarra ere lehiatu zen Berako proban, turismoen modalitatean.



IRANTZU RAZKIN

KAGU
LIBURUDENDA
Tel. / Fax 948 638 232
Koskontako bidea, 7
(osasun-zentroaren parean)
31770 LESAKA

○ PAKETEA JASOTZEKO GUNEA
 ○ LIBURUDENDA
 ○ KOLORETAKO FOTOKOPIAK
 ○ USBUK EGINDAKO INPRIMAKETAK
 ○ ESKANERRAK
 ○ ESKOLA MATERIALA
 ○ INFORMATIKAKO MATERIALA
 ○ BULEGOKO MATERIALA
 ○ EGUNKARIAK, ALDIZKARIAK

Ttiti Txartela rekin
beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA

MUSU-TRUK

-%80ko DESGRABAZIOA

ERRENTA AITORPENEAN

Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:

TTIPI-TTAPA

Koskontako bidea, 7 LESAKA

T. 948 63 54 58 | M. 744 48 43 61

info@ttipi.eus | erran.eus

www.ttipitxartela.info

796 zenbakiko
irabazleak >

**Gabonetako
zozketak**

1. LOTEA

Iosune Garate Goienetxe | IRURITA

2. LOTEA

Jone Bengotxea Lastiri | NARBARTE

3. LOTEA

Ainara Velez Ara | ARANTZA

ttipi txartela

Josune Sorondo Odriozola

72673152-A

epemuga 2023/04

Zk. 372

ttipi-ttapa

ZOZKETAK

DONOSTIAKO AQUARIUMA

www.aquariumss.com



Bi sarrera

ONDDO TA PUNTO

www.onddotapunto.com



Kamiseta bat

SALTING IRUÑEA

www.saltingcenters.com



Bi sarrera

MARTIKO

www.martiko.com



Lote bat

IRRISARRI LAND

www.irisariland.com



Sarrera bat

LESACA

www.lesakakoudalkiroldegia.com



Sarrera bat

**LI
BU
RU
AK**



• Zaindu dezagun
gure planeta



• Nola izan naiteke
atsegina besteekin?

TTARTTALO

www.txalaparta.eus

**LA
GUN
TZAI
LEAK**



www.txalaparta.eus



www.baztanescaperoom.com

Urtea bukatzeko eta hasteko ohiko ekitaldiak izan dira

Eskolako zozketa, olentzero eta Giltzarri abesbatzaren kontzertua izan dira bukatzeko eta dantzari tikiak hasteko

MAITE, ANA ETA ITZIAR

Ez zen ongi hasi abendua. Abenduaren 10ean izandako uholdeetan herriko hainbat etxe, xoko, bide,... kaltetuak izan ziren gure herrian ere, batez ere Berrizaun auzoan.

Halere, pilota kontuekin zuzendu zen urte bukaera. Nafarroako Klub Txapelketaren binakako finala irabazi zuten Oberenaren izenean aritu diren Igantziko Oihan Canabal eta Joseba Aldabe pilotariak Iruñeko Labrit pilotalekuan jokatuak finalen. 22-11 nagusitu ziren Yoldi eta Beroizen kontra. Tikiagoak ere txapelkun suertatu ziren Baztango txapelketan (ondo-ko argazkian).

Eskolako zozketa

Urtero oporrak hartu baino lehen eskolako haurrek egiten duten zozketan, zenbaki hauek izan dira sarituak:

- 1. saria:** 1405 zenbakia (Izaro Urtxegik saldua).
- 2. saria:** 1124 zenbakia (Eneko Almandozek saldua).
- 3. saria:** 1456 zenbakia (Xuban Magaña saldua).



Berrizaungo zubiko argiteri berezia.

Eguberrietako argiak

Eguberrietan herria ederki apainduta agertu zaigu. Azken bi urte hauetan herria girotzeko asmoarekin dekorazio berria jarrita dago, deigarriena Berrizaun auzoko zubikoa izanik.

Giltzarri abesbatzaren kontzertua

Abenduaren 18an Giltzarri abesbatzaren kontzertua izan genuen Igantziko elizan. Emaldi ederra eskeini ziguten gure belarrien gozamenerako.

Dantza saioa

Abenduko kultur egunetan eskeini beharra zuten emaldia atzeratu zenez, ilbeltzaren 7rako egitekoa zuten haurren eta gazttxoen dantza saioa.



MAITE, ANA ETA ITZIAR

Olentzero karrikaz karrika eta lehiaketan

Olentzero eguneko eskea, kalejira eta txapelketa giro ederrean joan ziren, eguraldia lagun. Goizean haurrak eskean aritu ziren auzoz auzo. Arratsaldean berriz, aurtan Biltokik antolatuta, Sarrola auzoan ederki berendatu eta gero egin zen txapelketan Biltoki Tikiko gazteak garaile izan ziren.



UTZITAKOA

Magaña eta Telletxea txapeldun Baztanen

Txaruta pilota elkarteak antolatutako Baztango 40. pilota txapelketaren finalak jokatu zituzten abenduaren 18 eta 19ko asteburuan. Bertan, kimuak B mailan, herriko Urko Telletxea eta Xuban Magaña pilotariak aritu ziren eta 18-8ko emaitzarekin txapeldun suertatu ziren.

ZUMARBEL
creaciones metálicas
Igantzi (Navarra)
948 63 74 11

Lehen A.T.M. S.A
Berrizaun 25,
31790 IGANTZI
T. 948 63 74 11
@zumarbel@hotmail.com
www.zumarbel.es

ZUBIONDO
JATETXEA-SAGARDOTEGIA

EGUNEKO MENUA
SAGARDOTEGI MENUA
KARTA
OGITARTEKOAK
PLATER KONBINATUAK ...

T. 948 625 472
Alasta karrika · BERA
zubiondojatetxea.com

Goieko
INDUSTRIA GARBITASUNERAKO
SISTEMA ETA PRODUKTOAK

DESIN BERA
DESINSEKTAZIOAK · ARRATOI-HILTZEAK · EGUR TRATAMEDUAK
T. 948 625 597 · Zalain, 42 B · BERA

648.000 euroko aurrekontua onartu du udalak

Bertzalde, hilabete erditsuan segituko dute herri sarrerako errepidean izandako zuloa konpontzen

TTIPI-TTAPA

Urtea hasi aitzinetik onartu du udalak aurtengo aurrekontua: 648.276,54 eurokoa izanen da eta abeltzaintzako azpiegiturak moldatzeko eta mendiko hainbat lan egiteko bideratuko du zati handiena.

Abeltzaintzako azpiegiturak moldatzeko 38.000 bat euroko partida onartu du eta lan nagusiak Otsuneko borda, Egu-suta, Laraburuko borda eta Galtzadako bidearen inguruan egin nahi ditu. Mendiko lanetarako, berriz, bertze 55.000 euro inguru aurreikusi ditu. Batetik, Ametzokon, Bulatsegin eta Argatsoron birlandaketak egitea aurreikusi du eta bertzetik, Bulatsegin, Unanuan, Zerrado aldean, Ametzokon eta Argatsoron garbiketala lanak.

Bertze zenbait lan ere egin nahi ditu udalak aurtun, baina «dirulaguntzak hartzeko esperoan gaude», adierazi du udalak. Horrez gain, «aurten Toki Inbertsioen Planeko dirulaguntzak banatuko direla» oroitarazi du: «Horri esker, inbertsio gehiago egin ahal izanen dira».

Euriteen ondorioak aztertzen

Bertzetik, abenduko euriteek sortutako kalteen inguruan memoria teknika egiten ari direla azaldu du Dabid Iturria alkateak. Nafarroako Gobernuak uholdeek kaltetutako udalerrien zerrendan sartu du Arantza eta hala, euriteen kalteei aurre egiteko dirulaguntza hartu ahal izanen du.

Euri erauntsiek hainbat kalte eragin zituzten. Horien artean, «urgentziazko lan batzuk» egin zituzten: «Meakako zuloa konpondu zen eta Aientsako pistan, Telleriko kurban urak gainezka egin zuen eta hori ere konpondu zen». Gainerako kalteen memoriarekin ari dira orain, «dirulaguntza deialdietara aurkeztu eta behar diren moldaketak egin ahal izateko».

Herri sarreran, Bideberri eta Erroitzineko borda artean sortutako zuloarekin ere laster hasiko da Nafarroako Gobernuak, berea baita ardura. Zuloa beteta berehala ireki zuten eta orain, egonkorta denean, hasitakoari segida emanen diote. Alkatearen arabera, «hilabete honen erditsuan hasiko dira».

Olentzeroren eta Mari Domingiren bisita besta giroan

NEREA ALZURI

Aurtun ere ez dute hutsik egin Olentzerok eta Mari Domingik. Neguko oporrak hartu aitzinetik, abenduaren 22an, Mari Domingiren bisita hartu zuten eskolan. Haur, gaztetxo eta irakasleek harrera ezin hobea egin zioten eta honek, eskolako lagunen solas, kanta eta gutunak hartu zituen.

Abenduaren 24an iaz egin ez zen kalejira berreskuratu zuen guraso elkarteak. Baskulatik abiatuta, herrian barna Gregorio, Beñat eta Andoni akordeoi-lariekin ibilbide alaia izan zen

eta geldialdietan Eguberrieta-ko kantak kantatu zituzten. Hiru Olentzero bizkarrean, herritar andana elkartu zen.

Kalejirara bildu ziren Olentzero eta Mari Domingi ere eta plazara ailegatutakoan, dantzari gaztetxoek ongiatorri ederra egin zieten. Ondotik eskolako lagunek kantak kantatu zizkieten. Meriendatzeko pintxoak eta gaztainak banatu zituzten eta arratsaldeari akabaila emateko, aspaldiko ohi-tura berreskuratuz, Olentzeroetako bat erre eta suaren bueltan dantzan aritu ziren.




Giro ederrean joan dira aurtun ere Eguberriak. UTZITAKOAK



Denda. 948 631 217
T. 630 136 863
Julio Caro Baroja, 6 - BERA
jaurenabera@gmail.com

Elektrizitate lanak orokorrean
Erreformak, etxe berriak
Lantegietako mantenu lanak

Etxetresnen salmenta, instalazioa
eta etxez etxeko konponketa
Antenak, satellite bidezko instalazioak



F. LANCHAS
Akutxiladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzailea jartzea
Mota guztietako zolak
Tel: 948 630 735 M: 620 172 679

Desfibriladorea erabiltzeko formazio kurtsoa egingen dute

Otsailaren 5ean emanen dute doako ikastaroa, baina ilbeltzaren 16an akituko da apuntatzeko epea

MAIDER PETRIRENA

Bihotzekoak gero eta ugaria-
goak diren gizarte honetan,
Sunbillan desfibriladoreak
paratzea hagitz garrantzitsua
dela iruditu zaie zenbait her-
ritarri. Horregatik, informa-
zioa bildu, aurrekontua eska-
tu eta udalarekin solas egin
ondotik, proiektua egingarria
dela ikusi dute.

Tresna hauek paratzeko,
gutxiengo jende kopuru batek
desfibriladoreak erabiltzeko
formazio kurtso bat egin behar
du. Herriko eragile, ostatu eta
komertzioekin solas egin dute
«interesgarria iruditzen zai-
gulako beraiek kurtso hau
egitea, baina herritar gehia-
goren laguntza behar dugu». Kurtsoa doan emanen dute
otsailaren 5ean, talde muga-
tuarekin. Apuntatzeko epea
urtarrilaren 16an edo kopurua



Desfibriladorea ongi erabili behar da.

betetzen denean akituko da. Apuntatzeko izen-abizenak, Nortasun Agiria eta telefono zenbakiak bidali behar dira 626 14 95 17 (Jalisko) edo 619 61 69 66 (Iontxu) telefonoetara.

«Gure ustez zenbat eta jen-
de gehiagok jakin makina nola
erabili eta nola jokatu larrial-
di egoera batean, aunitzez
hobe», aipatu dute.



MAIDER PETRIRENA

Olentzero eta Mari Domingiren etorrera

Sunbillara ere ailegatu ziren Olentzero eta Mari Domingi
abenduarien 24an. Bi taldetan banatuta eta musikari-
en laguntzarekin giro onean etxek etxe ibili ziren kantuan.
Maskarekin ibili baldin baziren ere, umorea eraman zuten
karrika eta auzoetara.



ESKOLAK UTZIAK

Pello Añorgaren bisita eta jaialdia

Eguberrietako oporrak ezin hobeki hasi zituzten eskolako
ikasle eta irakasleek abenduaren 22an. Pello Añorgaren bisita
izan zuten. Pandemiaren ondorioz bertze modu batean egin
zuten jaialdia. Talde bakoitzak bere aldetik egin eta bideo
eder bat sortu zuten, eskolako web orrian ikusgai dagoena.



UTZITAKOA

Uholdeek kalte handiak eragin zituzten

Bidasoak gainezka egin eta plaza eta karrika nagusia estali
zituen. Auzolanean garbitu zuten herrigunea. Bertze zenbait
tokitan erortzak izan ziren eta bide zatia ere eraman zuen
Aritzeder auzoan. «Inork kasurik egiten ez ziela eta», bide
segurua «lehenbailehen» eskatuz elkartu ziren auzotarrak.

Euskal Artzainak Ameriketara museoa ireki dute errotan

Nafarroako Parlamentuak 40.000 euroko dirulaguntza eman zion iaz eta aurten ere diru-sail bat bideratuko du

A. AROTZENA

Elgorriagako aitzinak errotan antolatu duen Malerrekako artzainei buruzko museoa inauguratu zuen abenduaren 29an Euskal Artzainak Ameriketara Elkarteak.

Ekitaldia hasteko, Miren Martin eta Maribel Makuso txistularien doinuarekin ohorezko Aureskua dantzatu zuen Itsaso Estanga Otxandorenak. Ondotik, agur-solasak eskaini zituzten Nafarroako Parlamentuko presidente den Unai Hualdek, Nafarroako Gobernuko presidente ordea den Joxe Mari Aierdik, Elgorriagako alkate den Ane Otxandorenak eta Euskal Artzainak Ameriketara elkarteak Laura Igantzi. Projektuan lagundu dutenei eskerrak eman zizkieten eta artzainek Ameriketara egindako lana azpimarratu nahi izan zuten. Laura Igantzi oroigarriak eman zizkien lan hauek aitzinera egiteko bereziki lanean aritu direnei: «Lan handia dago hemen» aipatu zuen. Nafarroako Parlamentuak 40.000 euroko dirulaguntza eman zion iaz proiektu honi, Geroa Baik aurkeztutako emendakin baten bitartez eta aurten ere dirulaguntza eskaera sartua dago. Marta Pineda andaluziarrak diseinatu du museoa eta museo ingurua eta berekin batera, museo hau gauzatu ahal izateko lanean aritu diren bertze hainbat lagunek oroigarria jaso zuten ekitaldian. Ekitaldian parte hartu zuten agintarien artean zegoen ama Beintza-Labaiengoa duen eta osabak Ameriketara artzain izan zituen Gorka Alvarez

Aranburu, Eusko Jaurlaritza-ko Kanpo Harremanetarako zuzendaria ere.

Euskal Sheep Company

Euskal Artzainak Ameriketara Elkartearen kanta ere aditu zen, Neli Yancik 2008an konposatutako *Euskal Sheep Company*, Yancik berak bertze sei emakumerekin batera artzainei gogoz kantatu zieten. Ameriketara joan nintzen abesti ezaguna ere kantatu zuten.

Unai Hualde, Nafarroako Parlamentuko presidentek Museorekin sarreran dagoen agur kartelari estalkia kendu zion eta *Welcome euskal sheep camp* zioen zubiaren ondoan zegoen zinta ere moztu zuten Ameriketara artzain ibilitako eta egitasmo hau gauzatzeko hainbertze lan egin dituzten Tomas Ibarra zubietararrak eta Lucio Irisarri elgorriarrek, Xanti Hualde eta Laura Igantzi laguntzaile zituztela. Ameriketara artzain ibilitako bertze hainbat lagun hurbildu ziren Elgorriagara. Ondotik, bisita gidatua egin zuten, bai errotaren museoaren barrenean, Ameriketara erabiltako tresnak, argazkiak eta ikus-entzunezkoen bidez, baita atarian ere, artzainek bizitzeko erabiltzen zituzten karro-kanpoak ikusiz.

Asteburuetan irekia

Biharamunean eta urtarillaren 3an, 4an eta 5ean ere ireki zituzten museoaren ateak. Hortik aitzinera, momentuz asteburuetan irekiko dute eta astean zehar, horrela eskatzen duten eskolei hitzaldiak eta bisita gidatuak eskainiko zaizkie.



Itsaso Estanga Aureskua dantzaten artzainei eta agintariei. ARGAZKIAK: A. AROTZENA



Zinta moztu zuten Xanti Hualde, Lucio Irisarri, Tomas Ibarra eta Laura Igantzi.



Ameriketara erabiltzen zuten karro-kanpoak ikusmina piztu zuten.



Errotaren barrenean tresnak, argazkiak eta ikus-entzunezkoak ikus daitezke.

Uholdeek sortutako kalteak aztertu dituzte

Orotara 60 bat txosten zabaldu zituen partzuergoko perituak eta zenbait lekutan kalteak handiak izan dira

MARGA ERDOZAIN

Abenduaren 20ko astean partzuergoko perituen bisita izan zuten herrian uholdeen ondorioz kalteak jaso zituzten herritarrek. Orotara 60 bat txosten zabaldu zituzten eta banan-banan adituek dagozkie neurketak eta ikuskaritza burutu zituzten. Behin kalteen azterketa egin ondoren, interesatuek dokumentazioa eta agiriak aurkeztu beharko dituzte. Hori eginda, kaltetuek kalteordainak jasoko dituzte.

Liburutegiko kalteak honako hauek izan dira: 560 ale bota behar izan dira, lau apalategi kaltetu ditu urak, eta bortz ate ere egoera txarrean gelditu dira. Horretaz gain, pintaketa lana egin beharko da.

Azkarretako egoitzan ere kalte handiak izan dira, bertan

urak metro bateko altuera hartu baitzuen. Egoitza honetan herriko talde batzuk egoitza dute. Bertako bulegoek kalte handia izan dute eta Euskaltegiako bulegoan ordenagailuak, inpresora, materiala, liburuak... den dena galdu da. Gainerako taldeek ere altzarietan eta materialean kalte handiak nozitu dituzte.

Herriko bertze azpiegiturretan ere kalteak zenbatu dituzte: Intzakardi parkean, zinemak... Horietaz gain, hainbat bulego, jatetxe, garaje, etxetan... altzariak, kotxeak, material informatikoa, sukaldaritza altzariak... hondatu ditu urak.

Partzuergoko kalte ordainei eta herritarren auzolan bikainari esker herriak poliki-poliki bere itxura berreskuratu du.



ERREKA KE

Errekaren Eguberrietako saskia

Erreka elkarteak urtero egiten duen Eguberrietako saskitzarrak badu jabea, argazkian ageri den Laura Erasun Elizondo doneztebarra. Bera zen saridun suertatutako 05169 zenbakiaren jabea. Koldo Legarra, Errekako zuzendaritza batzordeko kidearen eskutik jaso zuen saria.

Ipuin Txokoa berriz ere martxan eta 'Miñan' liburua irakurle taldearendako

Ipuin txokoa urtarrilaren 11n berriko txikiendako alfonbra zabaldu du. Olentzerok utzitako liburu berriak eta kanta gehiagorekin Haizea Loirak martxan berrabiatuko du 2022ko sasoi berria.

Miñan liburua aukeratu du Malerrekako Euskarazko ira-

kurle taldeak. Amets Arzallusek otsailaren erdialdera liburutegira etorriko da bere lanari buruzko solasaldia eskaintzera.

Euskaltegiak, berriz, EGA edo C1 titulua prestatzeko aldeztu-aurreko ikastaroa eskaintzen du.



ERREKA KE

Urte akabaila kaskoz kasko

Errekaren Mendi Egunean Bonozorrotzen (argazkian), abenduaren 24an Saioan eta urtezahar egunean Mendaurreko ohiko igoera eginez akitu du urtea Errekako mendizaleek. Hori bai, abenduaren 31ko San Silvestre lasterketa bertan behera utzi behar izan zuten, osasun egoera dela eta.



MARGA ERDOZAIN

Mari Domingi eta Olentzeroren bisita

Pandemiaren ondorioz aurten ere bikote honen bisita *xelebre* bezain polita izan dugu. Arratsalde gorrixka eta ederra aukeratu zuten karriketan barna ibiltzeko. Auzoetako ttiki aunitz konfinatuta ziren, Olentzero eta Mari Domingi balkoietatik edo karriketatik agurtzeko eta kantatzeko aukera izan zuten.

«Orain arte egindako lanari segida ematea da lehen helburua»

GARIKOITZ URROZ GELBENZU DONEZTEBE FUTBOL TALDEKO PRESIDENTE BERRIA

Zuzendaritza batzordea berritu eta gaztetu du Doneztebe Futbol Taldeak. 2006tik presidente zen Jaime Seinen lekukoa hartu du Garikoitz Urrozek, «gogoz eta ilusioz» hasi den talde berriaren buru

AITOR AROTZENA DONEZTEBE

Abenduaren 17an egindako ezohiko batzarrean zuzendaritza batzordea berritu eta gaztetu zuen Doneztebe Futbol Taldeak. Lehen aldiz maila autonomikoan ari den futbol talde nagusiko bigarren entrenatzailea den Garikoitz Urroz Gelbenzu klubeko presidente ere izanen da datozen bortz urtetan. Elkartearen sortzaileetako bat eta azken hamabortz urtetan presidente izan den Jaime Sein ordezkaturiko du. «Orain arte aritu direnen lana eskertu bertzerik ezin dezakegu egin, izugarria izan da eta», aipatu digu presidente berriak.

Zuzendaritza taldea oso-osorik eraberritu duzue Doneztebe futbol taldean...

Bai, lehendik aritu direnek utzi dute, baina inguruan izanen ditugu, laguntzeko prest. Talde osoa berria sartu gara.

Nola gogoratu zitzaizuen aitzinera pausoa egin eta erreleboa ematea?

Egia errateko lehengoek urte aunitz zeramazkiten lanean, baina pentsatzen genuen noiz-bait nekatuko zirela eta erreleboa nahiko zutela. Duela pare bat hilabete edo juntako kideren batek aipatu zuen uzteko intentzio zebiltzala, nekatuak zeudela, 18-20 urte zeramazkitela lanean, 2003an kluba sortu zenetik batzuk eta gainerakoek ere urte aunitz. Hori dena ezin zen bertan behera utzi eta klubaren in-



Azken 15 urtetan presidente izandako Jaime Sein eta Garikoitz Urroz berria.

guruan gabiltzan batzuk solasean hasi ginen, erreleboa eman behar zela eta lanean segitu beharra zegoela aipatu genuen. Lehengo juntak duela hilabete edo konfirmatu zuen utziko zuela eta orduan komentatu genuen batzuk solasean ari ginela lanean segitzeko, hilabeteko epe hori eman ziguten eta abenduko batzar honetan eman dugu pausoa.

Zein asmo eta helbururekin hasi zarete lanean?

Orokorrean lan ona eginga dute orain arte eta lan horri segida ematea izanen da gure lehengo helburua. Azkenean, bailara guziari ematen zaion kirol zerbitzu bat da eta hori zaindu behar da. Oraindik

lehengoekin elkartzen segitu behar dugu, gauzak nola egingen diren ikasiz, ez baita bakarrik ageriko lana egin behar, gibeletik badira lan aunitz ikusten ez direnak, paperak, etab...

Zenbatsu jokalaria eta bazkide ditu gaur egun Doneztebe Futbol Taldeak?

Gaur egun zelai handian futboleko konpetitzen bortz talde ari dira, seniorretan bi, jubenilak, kadeteak eta infantilak. Horietaz gain, alebinak eta benjaminak ari dira futbol-8an konpetitzen eta adin tikiagoko bertze bi talde entrenatzen. Denera 200 bat futbolari. Bazkideak 426 dira. **Talde nagusiak maila autonomikora igotzea lortu zuen azken**

denboraldian... Hori mantentzea garrantzitsua da Doneztebe Futbol Taldearentzat?

Bai, hagitx maila polita da. Kosta egin zaigu maila berri- ra egokitzea, baina lehen faseko azken hiru partidak irabazita, jautsiera faserako nahiko ongi gelditu gara sailkapenean. Helburu garbia da maila autonomikoa mantentzea, taldeari eta herriari eman beharreko bisibilidadea ematen diozu. Ikusten da taldeak hor konpetitzeko modua baduela eta horixe izanen da helburua.

Hemezortzi urte egin berritan, zein izan dira klubaren mugarriak?

Hasieran, 2003an, alebinetako taldearekin abiatu zen kluba. Gero, senior mailako taldea atera nahi genuen eta hori 2007an lortu zen. 2009an, seniorren taldea atera eta bi urtera Nafarroako kopa irabaztea lortu genuen erregionalean eta 2011n zelai berria lortzea handia izan zen. Ordu arte eskolako harri xeheko zelaian entrenatzen genuen, eta astero-astero, etxeko partidak jokatzeri Iruñera, Atarrabiara edo Taxoarera joaten ginen... horrek nekatzen du. Bi astetik behin etxean jokatzea, etxeko zaleen babesarekin, zelai berrian... hori abantaila handia izan zen. Gero etorri ziren bi igoerak, preferentera lehenik 2015-16 denboraldian eta maila autonomikora 2020-21 denboraldian. **Zein indargune eta zein ahulgune ikusten dizkiozu Doneztebe Futbol Taldeari?**

Alde ona talde aunitz garela eta inguruan jende aunitz ari garela lanean, horiek azpimarratuko nituzke. Klubak ere laguntza handia dauka babesleen eskutik eta lehen taldea maila autonomikoan aritzeak ere laguntzen du horretan, hobe izaten da. Hobetzekoa izanen litzateke futbol zelaian bulego batzuk egitea, materiala eta arropa uzteko biltegi bat eta komun berriak egitea, hasierako obretako kabinekin segitzen baitugu.

Aurtizko Ostatua irekiko dute berriz ere

Elgorriagako Eva Ibarrek hartuko du ardura, hiru eskaintza aztertu eta probak egin ondotik

A. MINDEGIA

Aurtizko Ostatua kudeatzeko Iturengo Udalak egindako azken deialdian hiru interesatu aurkeztu ziren. Beraien eskaintzak aztertu eta frogak egin ondotik, Elgorriagako Eva Ibarrek irekiko du laster. Orain dena egokitzea eta behar bezala paratzea egokituko zaio eta herritarrek irekieraren esperoa irrikitan daude.

Baztango pilotari txapelketa

Baztango 40. pilota txapelketan herriko pilotariak txapel-dun eta azpitxapel-dun suertatu dra.

UmeakA kategorian Bortzi-rietako Ioritz Eguzkiagirre eta Erik Igoaren aurka 18-9 galdu zuten Iñaki Leiza aurtiztarrak eta Enaitz Elizalde zubietarrak.

KimuakA mailan txapel-dun gelditu ziren Mattin eta Mikel



Pilotariak Koianaa ttikia frontoian.

aurtiztarrak, 18-8 irabazi baitzieten Azpeitiko Ansola eta Urrestillari.

Ados pilotariak

Astelehenero Aurtizko Koianea ttikia frontoian herriko eta eskualdeko neskak ugari elkartzen dira Ados pilota elkarteko entrenatzaileekin entrenatzeko. Orain, berriz, horietako batzuk Nafarroako Kirol Jokoetan parte hartzen hasi dira, Iruñerrian eta herrian bertan partidak jokatuz.



UTZITAKOA

Olentzeroren bisita Iturenen

Arratsaldeko lehen orduetan Aurtizko eta Iturengo karriketan gaztetxoak Eguberritako abestiak kantatuz karrikak alaitzen aritu ziren. Herritarrek iluntzean aukera izan zuten Olentzero hurbiletik ikusteko. Plazan esperatu zieten, joaldunen laguntzarekin egin baitzuen berarentzat prestaturiko bidea.

115 udalerrik hartuko dituzte banda zabaleko sareak hedatzeko laguntzak

TTIPI-TTAPA

Nafarroako 115 udalerrik hartuko dituzte 2021eko Kohe-siorako Azpiegitura Digitalak Unibertsalizatzeko Programaren (UNICO-Banda Zabala) laguntzak. Programa hori Ekonomia Gaietarako eta Eraldaketa Digitalerako Ministerioaren Telekomunikazio eta Azpiegitura Digitalen Estatu Idazkaritzak ematen du. Abiadura arras handiko banda zabaleko sareen estaldura emateko beharrezkoak diren azpiegiturak hedatzeko dira.

Adamo operadoreak aurkeztutako proiektua izanen da Nafarroako dirulaguntza izanen duena. 1.758.314 euroko kostua du proiektuak eta 1.293.485 euroko laguntza hartuko du.

Gure lurraldean Arano, Baztan, Bera, Bertizarana, Etxalar, Igantzi, Ituren, Lesaka, Urdaubi eta Zugarramurdin hedatuko dituzte abiadura oso handiko banda zabaleko sareen estaldura emanen duten azpiegiturak, UNICO-Banda Zabala programaren bitartez.

Uholdeek kaltetutako 133 udalerrien zerrenda onartu dute, 21 eskualdekoak

Abenduko uholdeek kaltetutako udalerrien zerrenda onartu du Nafarroako Gobernuak. Herri hauek denek gobernua- ren dirulaguntzak hartu ahal izanen dituzte eta, dirulaguntzak hartzeaz gain, lurralde- kontribuzioa, Jarduera Eko- nomikoen gainerako Zerga (JEZ) eta Eraikuntzen Zerga ordain-

tzetik salbuetsiak geldituko dira. Nafarroa osoko 133 udalerrietatik 21 gure lurraldekoak dira: Arantza, Areso, Baztan, Bera, Bertizarana, Donamaria, Doneztebe, Elgorriaga, Eratsun, Etxalar, Ezkurra, Goizueta, Igantzi, Ituren, Leitza, Lesaka, Oiz, Sunbilla, Urdaubi, Urroz eta Zubietarra.



UTZITAKOA

Joaldunak han-hemenka dabilta

Gure herriko joaldunak beraien joare soinuak zabaltzen ibili dira hainbat herritan. Iturengo joaldun handiak abenduaren 23an Corellan eta 24an Barañainen ibili ziren. Ttikienak, berriz, Oreretan 23an. Aurtizko joaldunak Elizondora egin zuten bidaia Olentzeroren eta erregeen etorreretan.

Landarte programak erakusketa ederra egin du estalpean

Katixa Goldarazena herriko zenbait neska gazterekin egindako lana ikusgai izan zen abenduaren 26tik 29ra

FERMIN ETXEKOLONEA

Abenduaren 26tik 29ra Zubietako estalpean izandako erakusketa Landarte programaren barnean 2021ko udan Zubietan garatu den proiektu baten aurkezpen eta itxiera izan da. Eta bide batez, prozesuan zehar parte hartu dutenei eskertze-ko modu bat.

Katixa Goldarazena Azpirotz egileak aipatu duenez, «inauterietako iruditegitik eta hauekin harreman plastiko bat duten topatutako ikusentzunezko materialetatik abiatuta keinuen errepikapena izan da ikerketa lanean aritzeko motibazioa. Ekintza, gorputzen arteko harremanak eta hauen esanahien irakurketatik abiatuta neska gazte kuadrila batekin batera gorputza jarritz gorpuztu da lana».

Herriko Ostaturia berriz irekia

Irailetik itxia egon ondoren, Errege bezperan irekitzeko zuten Herriko Ostaturia. Bi eskaintza aurkeztu zituzten eta horien artean Clare Mary Kearney gasteiztarrarena aukeratu du udalak.




Landarte proiektuko ikus-entzutekoa.

Eguberrietako seinalea egin zuen Mari Domingik

Abendaren 19an Mari Domingiren bisita izan zuten Zubietako haurrek eta ilusio handiz hartu zuten. Etxez etxe ibili zen etxeko ttikien gutunak biltzen trikitixaren soinuaz lagunduta eta esan zuenez, Saldiasera joatekoa zen ondoren.

Herriza zaintzea «guztion ardura» dela gogoan

Zubietako Udalak jakinarazi duenez, «aurten ere Eguberrietako argiak nahita hautsiak» agertu dira edota herriko panelen torlojuak kenduak. Aurreko hilabetean Landako farolak hautsi zituzten... Herria zaintzea «guztion ardura» dela oroitarazi nahi izan du eta horrelakoek ez diotela inori mesederik egiten.



UTZITAKO ARGAZKIA



UTZITAKO

Etxekolonea Eusko Label txapelketan

Beste pilotariak bezala, amaren abizena erabiliz ari da Naroa Elizalde Etxekolonea herriko pilotaria Eusko Label eskuz binakako pilota txapelketan, Mujikarekin bikote eginez. Urtezahar egunean irabazi egin zuten Beran eta hilaren 2an galdu Erratzun.



BERRI S.L.
TXIMISTINDAR
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

Zalain Ind., 42 | BERA | T. 948 63 14 52 | 639 60 80 34 | 639 56 59 65



TTIPI-TTAPA
SARE SOZIALETAN
Jarrai gaitzazu!

facebook
www.facebook.com/ttapi.ttapa



PINTURA eta DEKORAZIOA
BIDASOA

Tel.: 948 45 02 48 - 619 88 97 23

Lakadura eta bernizadurak
Armairuak, azulejuak, etab.
Etxe eta enpresen mantentze-lanak
Etxeko konponketa ttikiak

Oiz (Malerreka).
Nafarroan eta Gipuzkoan lan egiten dugu.
pinturasbidasoairun@gmail.com



Urtea hasteko Donamarian lurrikara izan da

Abenduan Bertizaranan bertze bi izan zirela ere jakinarazi du Espainiako Institutu Geografiko Nazionalak

TTIPI-TTAPA

Donamarian izan zuen epizentroa urtarrilaren 2an, 22:27an gertatutako lurrikarak. Espainiako Institutu Geografiko Nazionalak jakinarazi duenez, 2,5 gradukoa izan zen eta hiru kilometroko sakoneran gertatu zen.

Azken hilabetearen hiru lurrikara izan dira eskualdean. Bertizaranan bertze bi lurrikara izan ziren: abenduaren 13an, 22:10 aldera, 1,9 gradukoa eta abenduaren 19an, 03:45 aldera, 1,5 gradukoa, 5 eta 7 kilometroko sakoneran, hurrenez hurren.

Donamariako Herriko Ostatuko saskia Gaztelura

Donamariako Herriko Ostatuan zozketatutako saskia Gazteluko Iosu Mitxeori ego kitu zaio. Eguberri bezperan zozketatu zuten. Argazkian, Marimar Mindegiaren eskutik saskia jasotzen ageri da Mitxeo. Zorionak eta urte berri on!



AINHIZE IRAZOKI

Jubiloteakako kideen egutegia

Ezkurrako eta Eratsungo Jubiloteakako kideek 2022ko egutegi eder bat argitaratu berri dute. Jaione Zabalo Ezkurrako alkateak esan digunez, «bideo bat ere kaleratu dute Zubietako, Donamariako eta Sunbillako kideekin batera urte berria zoriontzeko». Urte berrian ere ez dira geldirik egoteakoak.

Gazte Burrunba binakako pilota txapelketa partida ikustera larunbatean

Doneztebeko Gazte Burrunbak urtarrilaren 15erako irteera antolatu du Iruñeko Labrit pilotalekuan binakako esku pilota txapelketako partida ikusteko. Bazkideentzat 45 euro balio du irteerak, bazkide ez direnentzat, aldiz, 55 euro, baina abenduaren 31

baino lehen hartu behar zen txartela. 11:00etan abiatuko dira autobusez Iruñera. Bertan Uslaer jatetxean bazkalduko dute eta ondotik Labrit pilotalekuan binakako pilota txapelketako partida ikusiko dute. Ondotik, bueltarako autobusa 03:00etan izanen da.



TESTUA ETA ARGAZKIA: JAIONE ARIZTEGI

Olentzero Urrozera ere etorri da

Olentzeroren etorrerak ez du hutsik egin aurtan ere. Bertze urteetan bezala, aurtengoan ere, menditik herriko plazara jaitsi da Olentzero. Etxez etxe kantuan ibili ondotik etorri zen umeez hainbertze esperatu zuten bisita. Opariak banatu zituen, eta heldu den urte arte agurtu zuten.



TESTUA ETA ARGAZKIA: ARANTXA ITURRALDE

Olentzeroren bisita Beintza-Labaienen

Harrera beroa egin diote herriko haurrek eta guraso talde batek Eguberri bezperan Olentzero ikazkinari. Arratsaldeko lauretan elkartu dira Labaiengo plazan herriari buelta emateko. Karrikaronda egin eta gero, Beintzako ostatuan txokolatea hartzeko aukera izan dute.



Birziklatu gehiago. Hobeki. Beti

Ekonomia zirkularrean, birziklatzen duzunean, hondakinak baliabide berri bihurtzen dituzu. Birziklatu latak, brikak eta plastikozko ontziak edukiontzi horian.





Arkupeak elkarteko mendizaleek Etxalar inguruan. PABLO IRASORTZA

Mendikoharrin bukatu du urtea mendi taldeak

Beintza-Labaien hasi eta Etxalarren akitu zen sasoiko hamabi ateraldietan 395 mendizalek hartu dute parte

P. IRASORTZA

Urtea behar bezala bukatzeko asmozekin zioten mendizaleak 2021eko azken ibilbideari. Egutegiari so eginaz, Etxalarren izan zuten hitzordua abenduaren 21ean, eta herriko aparkalekuan elkartu ziren goiz eder bat igaro asmoz. Hilabeteroko ateraldi guztietatik urteko kopururik ugariena elkartu zen (45 kide denetara) herriko lagun lehialek prestatutako bidea disfrutatzeko ilusioz. Eguraldia ere bide lagun izan zuten, haize ego epe-lagoiz polita borobiltzeko behar zen partaidea suertatu zelarik.

Goizeko 09:00etan ekin zioten zango-dantzari, ibilbide honetatik: Xamarko, Erranlepo, Lizarieta, Mendikoharri, Lizarieta, Erranlepo, eta 4 ordu eta erdiren ondotik, Antxurnen barna Etxalarra itzuliaz. Ederki estimatu zuten goiz osoko eguzki ederra, azpimarratuaz batez ere Mendikoha-

rriko kaskotik hegoalde edo iparraldera dauden ikuspegi ezagun bezain txundigarriak. Covid-19ren kutsaketa gorakadak horrela aholkatzen zenez, ezin izan zuten eguna ohiko anaitasun bazkariakin agurtu, eta norberak hartu behar izan zuen bere otordu bidea. Hori bai, Eguberri festen seinale bezala edo, oparitxo hagitz xume bat izan zuten, Lizarietako gosariaren deser-ta txokolatezko bonboiakin goxatu baitzuten, ongi merezia gainera!

Oparoa izan da 2021a

Nahiz eta legeria konplituaz ezin izan ziren iragarritako pare bat irtenaldi egin, (bertze bi menditara joan ziren) osasuntsu joan da urtarilaren 19an Labaien hasi eta abenduaren 21ean Etxalarren akitutako hilabeteroko mendi afera. Denetara 395 mendizale izan dira urtean zehar hamabi hitzordutan parte hartu dutenak, 20 kide gutxieneko deialdian eta 45 gehienekoan.

Ezbeharrik gabe

Ez dago aipatu beharrik duen xarma bereziaz gozatu asmoz abiatzen garena mendian gora, eta handik ongi itzultzea dela ezinbestekoa eta gehien desio dugun patua. Horrela, eta kontuan izanik partaideak 60 eta 80 urte arteko «gazteak» direla, beraien arreta irmoagatik, irteera bakoitzeko antolatzaileen arduragatik (ahal izanez gero ibilbide arrisku-tsuetatik at) eta agian behar den zorte apurrak lagundurik, kontua da, zorionez, lehen aipaturiko 395 mendizaleak, osatutako 12 txangoetatik inongo ezbeharrik gabe, salbu eta sano itzuliak direla. Zorionak eta jarraitu horrela.

Ilbeltzeko galdera

Zein herritan jaiotzen da Baztan-Bidasoko ibairik handiena?
☎ 618 56 78 37.

Bazkideen bajak urtarrilean eman behar dira eta kuotak otsailean

P. IRASORTZA

Urte aldaketak dakarren zeregin bat bazkide kopuruaren eguneratzea da. Gogorazi nahi da urtarilaren 31 izanen dela, arrazoi ezberdinengatik Arkupeak elkartetik baja izanen diren bazkideen datuak Donzteboko bulegora bidaltzeko azken eguna. Bi bide dau-de horretarako: arkupeak@yahoo.es posta elektronikoa edo 948 45 08 78 / 618 56 78 37 tfnoan (goizez, astelehene-tik ortziralerara). Azaldu behar-reko datuak: Baja denaren izen- abizenak, herria eta bazkide zenbakia. Bertzalde, Elkartek zutik jarraitzeko sostenguetako bat kideen urteko kuotak dira. Nahiz eta hauek urtero garai berean kitatzen diren, ongi dator aipatzea; 2022ko kopurua (iaz bezala, 12 euro) otsailean kontratuko da, banku bidez.

Banatu dute buletin berria

Abenduan banatu zen 2021eko bigarren buletina, 25. zenbakia du eta Arano herria agertzen da azalean. Nahiz eta osasun egoera traketsagatik hainbertze ekintza ezin izan diren antolatu, egin ahal izan direnak eta 2022 urtearen lehen erdiko proposamenak aurkitu daitezke bertan. Bazkide, oraindik ez baduzu zureganatu ez kezkatu, berehala ailegaraziko dizu eta herriko delegatuak.

Akatsak zuzenduz

Aipaturiko buletinaren 32. orrian (erdaraz) akats bat dago, mar-txoan Andaluziara egiteko den bidaiaren balioa alderantziz agertzen da. Balio zuzenak hauek dira: 805 euro, binakako gela; 1.025 euro, banakako gela.

21 ikastetxetan jardunaldi jarraitua ezartzeko gehiengoa

31 ikastetxeetatik 21etan heldu den ikasturtean jardunaldi jarraitua ezartzeko hiru bozketetan gehiengoa lortu dute

TTIPI-TTAPA

Eskualdean dauden Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako 31 ikastetxeetatik 21etan heldu den ikasturtean jardunaldi jarraitua ezartzeko beharrezkoak ziren hiru bozketetan gehiengoa lortu dute. Orain, Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak izanen du azken hitza. Hezkuntza Departamentuak ikastetxe horiek aurkeztutako proiektuak aztertu eta ebatzen bidez emanen die baimena.

Hezkuntza Departamentuak eskualdeko 29 eskolari eman zien jardunaldi jarraitua ezartzeko prozedura hasteko baimena eta horietatik 21 izan dira ikastetxeak klaustroaren, eskola kontseiluaren eta familien aldetik babesa lortu dutenak. Jardunaldi jarraituarekin, ikasturte osoan, ikasleek astelehenetik ortziralerara goizez izanen dituzte eskolak. Horrekin batera, ikastetxeak arratsaldeko ordutegian ikasleei eskolaz kanpoko jarduerak eskaintzeko derrigorrezko proiektu bat izan beharko dute. Asteko lau egunetan izanen litzateke, irailean eta ekainean izan ezik.

Hezkuntza Departamentuak baimena emanaz gero, hauek dira 2022-2023 ikasturtean jardunaldi jarraitua izanen duten eskualdeko ikastetxeak. Horrekin batera, TTIPI-TTAPAK eskuratu ahal izan dituen bozketen emaitzak ageri dira:

Baztanen gehiengoak jardunaldi jarraitua

- Almandozko eskola
- Arraiozko eskola
- Azpilkuetako eskola

- Elizondoko eskola
- Erratzuko eskola
- Gartzaingo eskola
- Irurritako eskola
- Lekarozko eskola
- Oronozko eskola
- Zigako eskola

Amaiurko eta Arizkungo eskolek, eta Baztan Ikastolak jardunaldi zatitua izanen dute heldu den ikasturtean.

Bertizarana bi aukera

- Legasako eskola
- Narbarteko eskolan ez dute bozketa prozesua hasi eta jardunaldi zatitua izanen dute.

Bortzirietan gehiengoak jardunaldi zatitua

- Etxalarko Landagain eskola
- Lesakako Tantirumairu ikastola

Lesakako Tantirumairu ikastola, familien artean, botoen % 63,5 jardunaldi jarraituaren aldekoak izan dira.

Arantzako, Berako Ricardo Baroja, Igantziko eta Lesakako Irain eskoletan jardunaldi zatitua izanen dute, baita Berako Labiaga Ikastolan eta Jesusen Bihotza ikastetxean ere.

Arantzako eskolan eta Berako Jesusen Bihotza ikastetxean ez zuten prozesua hasi.

Berako Ricardo Barojan, jardunaldi jarraituaren aldeko proposamenak klaustroan eta eskola kontseiluan gehiengoa lortu zuen, baina familien artean egindako bozketan, ez. Familien % 45,8k egin zuen jardunaldi jarraituaren alde. Aitzinera egiteko, orde, guttienez botoen % 60 beharrezkoa zen.



Areson abenduaren 1ean egin zuten familien artean bozketa. ENERITZ. IRAOLA

Igantziko eskolan klaustroan ez zuen aitzinera egin jardunaldi jarraituaren aldeko proposamenak.

Lesakako Irain eskolan, familien bozketan gelditu zen aitzinera egin ezinik. Familien % 56k eman zuen jardunaldi jarraituaren alde, baina aldatarako behar zen % 60aren azpitik.

Leitzalde-Urumealdean jardunaldi jarraitua

- Aresoko Nazabal eskola
- Goizuetako Andres Narbarte Xalto eskola
- Leitzako Erleta eskola

Ikastetxe guztiek egin dute jardunaldi jarraituaren alde.

Aresoko kasuan, jardunaldi jarraituaren aldeko familien bozketan, aldeko 23 boto izan ziren eta lau kontrakoak.

Goizuetan, berriz, jardunaldi jarraitua ezartzeko bozketan familien % 97k eman zuen botoa, eta % 90 jardunaldi jarraituari baiezkua emateko izan ziren.

Leitzako Erleta eskolan, jardunaldi jarraituak aldeko 201 boto lortu zituen familien artean, kontrako 39, bi zuri eta lau baliogabeak izan ziren.

Malerrekan jardunaldi jarraitua

- Doneztebeko San Miguel eskola
- Iturengo Pulunpa eskola
- Saldiasko eskola
- Sunbillako eskola

Malerrekako ikastetxe guztietan jardunaldi jarraituaren alde gehiengoa lortu dute hiru bozketetan. Sunbillako eskolan, adibidez, familien bozketan, % 74, 20 jardunaldi jarraituaren alde agertu ziren.

Xaretan jardunaldi jarraitua

- Zugarramurdi eta Urdazubiko eskola.

Xaretako Hego Euskal Herriko ikastetxe bakarrean, Zugarramurdi eta Urdazubiko eskolan, jardunaldi jarraitua eskatu du gehiengoak hiru bozketetan.

LARRALDEA eta LINDDURRENBORDA

Baztan Bidasoko sagardotegiak

Dolarea

Eskualdean egindako sagardoa

Txotx denboraldiaren irekiera URTARRILAK 22

LARRALDEA | Telleria auzoa • LEKARÓZ | 948 452121 • 626 494317
LINDDURRENBORDA | Nabaz auzoa • LESAKA | 948 637212

Eskualdeko bezeroen %80ak baino gehiagok gastuak bertan egiteko joera dauka

Merkataritza antolatzeko plan berriarekin eskualdeko bezeroen kontsumo joerak eta iritziak bildu dituzte, tokiko merkataritza hobetu, modernizatu eta sustatzeko helburuarekin

R. OSKARIZ

Eskualdeko 19 herri eta Denok Bat fundazioak Baztan-Bidasoko Merkataritza Erakartzeko eta Antolatzeko Plana (MEAP) abiatu dute, Ikertalde enpresaren bidez. Helburua ttikizkako merkataritza antolatzeko tresna bat lortzea da, bere bizirautea ziurtatzeko hobekuntzak eta gidalerroak definituz. Azterketa eta diagnostiko fasea dagoeneko burutu dute, eskaintza eta eskaeraren ezaugarriak aztertuz. Merkataritzaren erabileraren antolamendua datu kuantitatibo eta kualitatibotan bildu dituzte.

Alde batetik, tokiko eskaera ikertzeko, inkesta egin dute 452 etxebizitzetan 1.050 pertsona ingururi. Lortutako emaitzek bezeroen joerak eta iritziak biltzen dituzte, bailarakoak (Baztan, Bortziriak eta Malerreka) zein eskualdekoak (Baztan-Bidasoa).

22.000 biztanle baino gehiago ditu Baztan-Bidasoak, eta Ikertaldeko datuen arabera «biztanleriaren gehiengoak bertan egiten ditu gastuak, norberaren bailaran (%77,9ak) edo eskualdean (%4,3ak)». Hala ere, atxikimendu-maila komertzioaren merkataritza-adarraren arabera da. Zerbitzuetan atxikipen-maila %95,5koa da eta elikaduran %86,8koa. Pertsonaren ekipamenduan, berriz, %54,8koa.

Eskualdetik kanpoko kontsumoari dagokionez, Iruñea da helmuga nagusia, ihes egindako gastuaren %37,9arekin. Bigarren Irun eta inguruak daude, %22arekin. Nabarmenezkoa da bailaratik kanpo

ateratzen den %19,4ak eskualdean bertan egiten duela gastua, bailaren arteko elkarrekintza sozio-komertzialaren berri emanez.

Interneta da eskualdetik kanpo egindako gastuaren bertz helmuga bat; %10a biltzen du baina goraka doa. Baztan-Bidasoko %70,1ak Internet bidez erosi du azken urtean (35 urtetik beheitikoen %90ak baino gehiago) eta batez besteko gastua 653 eurokoa izan da. Online erosketak mota guztietako produktuak hartzen dituzte, pertsonaren eta etxeko ekipamendua izanda nagusiak.

Bertzalde, eskualdeko eskaintza aztertu dute. Merkatarien %56ak bertako merkataritza-bizitzaren irudi ona dauka, %29ak, berriz, negatiboa. Azalera handiak mehatxu handia dira merkatarien %70arentzat, eta Internet bidezko komertzioak %40arentzat. Turismoa, aldiz, eragin positibotzat jotzen du %77ak.

2020arekin alderatuta, %26,6ak bakarrik adierazi du negozioa hobetu dela, eta %31,1ak okerrera egin duela aitortu du. Urte berrirako, %30,4ak aurreikusi du hobekuntza eta %43ak berdin segitzea espero du.

Funtzio soziala

Nabarmenezkoa da hurbileko merkataritzarak betetzen duen funtzio soziala, auzotarren elkargune eta elkarrekintzarako leku izanda. Biztanleen guttieneko bizi-kalitate estandarra bermatzeko, merkataritza funtsezkoa da herrigune nagusietan (Beran, Lesakan, Donezteben eta Elizondon) zein herri ttikietan.

Hau lortzeko, Denok Bat federazioa eskualdeko merkataritzaren funtsezko egituratzailetzat jotzen da, herrietako merkatariei elkarrekin arteko jarduerak sustatzen baititu. Sektorearen erronkei egokitzen da eskualde mailako proiektuak bideratuz, adibidez, *online* salmentarako *toptopa.shop* plataformarekin edo bezeroak fidelizatzeko Giltzaria fidelizazio-txartelarekin.


Euskararen erabilera da azterketan kontuan hartutako bertz faktore garrantzitsu bat, bezeroen %62ak hobesten baitu zerbitzu euskalduna. Datuen arabera, saltokien %82ak dauka langileria euskalduna. Euskara hizkuntza nagusia da bezeroen %37arentzat, baina aipagarria da erosleen %34ak euskaraz zein gaztelaniaz egiten duela, hizkuntzari garrantzirik eman gabe.

Ekintza lerro zehatzak

Azterketarekin lortutako emaitzekin, hurrengo urteetarako gidalerroak eginen dituzte. Bezeria erakartzeko plan zehatzak sortuko dituzte, herriaren eta saltokiaren arabera egokituak eta elkarrekin garrantzia emanez.

Ekintza plan bat eginen dute, eskualdeko merkataritza eta ostalaritza guneak nahiz zerbitzuak hobetzeko eta modernizatzeko eta gaur egungo behar eta kontsumo-ohiturei erantzun egokiagoa emateko. Etengabe aldatzen ari den munduari egokitzeko ahalegina egiten ari dira gure eskualdeko merkatariei ttikiak.

Eskualdeko bezeroen kontsumo joera



Norberaren bailaratik kanpo baina eskualdean bertan gelditzen den kontsumoa horrela banatzen da:



ITURRIA: Ikertalde 2021ean egindako MEAPa

SINADURA: Ttipi-Ttapa

Zure pisu hutsa gure etxea izan daiteke

Zure etxebizitza hutsa NASUVINSARI

errentan emaitzu:

- **Kezkarik gabe:** hilerio kobratzen da, seguru.
- **Arriskurik gabe:** etxebizitza egoera onean itzuliko zaie.
- **Eta orain abantaila fiskalekin:** lortutako etekinen %40ko murriztapena PFEZean.

**NASUVINSAK
KONPONDUKO DU
ZURE ETXEBIZITZA**

**ESKURA EZAZU
1.500 EURORA ARTEKO*
DIRU-LAGUNTZA**

*Hiru hilabeteko errentaren adinakoa

**ADMINISTRAZIO-IZAPIDE
GUZTIAK GURE ESKU**

INFORMA ZAITEZ ETA EMAN BIZITZA ZURE ETXEBIZITZA HUTSARI!

ESKATU HITZORDUA: 848 420 600

bolsaalquiler@nasuvinsa.es

www.vivienda.navarra.es

Nasuvinsa 
Navarra de Suelo y Vivienda, S.A.

Gobierno
de Navarra



Nafarroako
Gobernua



3,1 milioi euroko aurrekontua onartu du udalak

Hezkuntza eremuko azpiegiturak hobetzeko 474.000 euro bideratuko dituzte, gobernuaren laguntzarekin

TTIPI-TTAPA

Udalak 3.098.924 euroko aurrekontua onartu du 2022rako. Aurreko urtearekin konparatuta, % 13 haziko da: «Bizi dugun egoera zaila izan arren, lortu diren dirulaguntzei esker, hainbat inbertsio eta berrikuntza egin ahalko dira herrian datozen hilabeteetan», adierazi du Mikel Zabaleta alkateak.

Hezkuntza eremuko azpiegiturak

Nafarroako Gobernuak aurrekontuetan lortutako adostasunari esker, institutu pareko futbol zelai txikian estalpe argiztatua egiteko, bi futbol zelaiak berritzeko eta inguru horretan hainbat hobekuntza egiteko, hezkuntza eremua irisgarriagoa izateko 474.000 euro bideratuko dituzte. Udalak eta gobernuak lankidetzaz hitzarmena sinatuta, udalak 80.000 euroko ekarpena egingen du eta, gainerakoa gobernuak ordainduko du.

Mimukai, tokiko garapen proiektuari bultzada berria

Nafarroako Gobernuaren 175.000 euroarekin laguntzarekin, «Mimukai proiektuaren lehenengo fasea gauzatu ahaliko dugu», adierazi du udalak. Hala, coworking zentroa, garapen agenteen bulegoak, enpresen habia, formakuntza gela homologatua, bilera gelak, eta info-energia puntua bilduko dituen bulego tokia moldatuko dute.

Bestetik, Plazaolako tren geltoki zaharreko lursailaren lagapena lortu zenez, aurre-proiektu teknikoa eta bideragarritasun plana egingen ditu

udalak, datozen urteetan aterpetxea, taberna, turismo informazio puntua eta bizikletak alokatzeko tailerra egokituko.

Mendiko bideak hobetzeko 120.000 euroko inbertsioa

Bideak hobetzeko 120.000 euroko inbertsioa aurreikusi du udalak, Nafarroako Gobernuaren laguntzarekin. «Leitzalarrea eta Sorogain inguruetan abeltzainek eta herritarrek gehien erabiltzen dituzten bideetako batzuk egokituko dira», dio alkateak.

Kultur programazioa osatzeko 40.000 euro

Kulturari dagokionez, udalak aurrekontuan 40.000 euroko diru-saila aurreikusi du Herri Aretoaren kultur programazioa osatzeko. «Leitza laster sartuko da Nafarroako Antzoki Sarean, horretarako behar diren baldintza guztiak betetzen baititu gaur egun».

Dirulaguntza gehiago

Bestelako «hainbat dirulaguntza deialditan eskaerak aurkeztu» dituztela ere jakinarazi du udalak: «Erleta eskolako eraikin berriko leihoak berritzeko, Inguruarten aisialdirako gun txukun bat egiteko, Oialden liburutegi berria egiteko lehen fasea egiteko (isolamendua, argiteria, iturgintza...)».

Udalaren zorra urtetik urtera txikiagoa da

Udalaren zorpetze-mailari dagokionez, beharrezko joerarekin segitzen du. «2021a 560.000 euroko zorpetzearekin amaitu dugu, hau da, sarrera guztien % 18arekin».

Hainbat hitzordu urteko aurreneko hilabetean

TTIPI-TTAPA

Pasatako kultur ekitaldiak go-goan, eta datozenei erreparatuz, zinema, erakusketa eta zirkua izanen dira ilbeltzean.

Ilbeltzaren 15ean eta 16an **zinema** izanen da, egun bakoitzean bi pase. 16:30ean, *La familia Addams II* ikusteko aukera izanen da (sarrera 4,5 euro) eta 19:00etan, 12 urtetik gorakoentzat, *The french dispatch* (sarrera 5,5 euro). Sarre-rak leihatilan erosten ahalko dira 45 minutu aurretik.

Ilbeltzaren 21ean, Altsasuko ihauterien inguruko **erakus-**

keta zabalduko du Pesta Batzordeak Herri Aretoan. Hilaren 30era arte izanen da ikusgai.

Denok Bat guraso elkarteak, berriz, Ekain-Txourekin **zirkua** antolatu du hilaren 26rako, 17:00etan. Sarrerak Maimurren eta Astizen eros daitezke.

Bestelako hitzorduak

Kikilisdako lantaldeak antolatuta, ilbeltzaren 14an, *Plateraren ertzak* **hitzaldia** emanen du Eneritz Mujika dietista nutrizionistak, 16:45etik 18:00etara jangelan. Izen-ematea asteazkenean bukatzekoa da.

Torturatuak izan direnen testigantzak bilduko dituzte egunotan Torrean

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Torturatuen Sareak eta Egiari Zor fundazioak Nafarroako torturatuen elkarte bat sortu dute «Nafarroan torturatuen sarea ehuntzeko». Hala, «torturak eta tratatu txarrak jasan dituztenen errola osatzeko» bidea hasi dute. Formu-

lario bat prestatu dute biktimek euren kasua azal dezaten, eta hainbat herritan testigantzak biltzen ari dira abenduan eta ilbeltzean. Leitzako kasuan, abenduan bezala, ilbeltzaren 13an, 20an eta 27an ere Torre tabernan izanen dira, 18:00etatik 19:30era.



JUAN MARI BARRIOLA

Orantzaroak herria apainduz

Balkoi, etxe-aurre eta komertzioetan modu askotako Orantzaroak azaldu ziren Eguberri bezperan eta usadio zaharrak bizirik iraun du. Iluntzean menditik herrira hurbildu zen Orantzaroa eta kalejiran ibili zen herritarrekin. Bigarrenez, plazako ikuskitzuna bertan behera gelditu zuten osasun egoeragatik.

Udalak neurriak eskatu ditu erortzea ez errepikatzeko

Abenduko euriteen ondorioz, autobidetik herrira sartzeko errepidean izandako erortzearen harira kezkatua dago udala

TTIPI-TTAPA / JM BARRIOLA

Abenduko euriteek eragindako kalteak neurtzeko lanean jarraitzen du udalak, eta Mikel Zabaleta alkateak adierazi duenez, laster jakinaraziko dute mendiko bideetan eta baserriko pistetan izandako erortzetan izandako kalteen zenbatekoa.

Alkatearen hitzetan, «erortze ttiki asko» izan dira, eta horien inguruko «memoria baloratuak» egiten ari dira, «estatuko eta Nafarroako Gobernuak dirulaguntza deialdiak ateratzean aurkezteko eta konpontzeko».

Dena den, ez da hori udalaren kezka nagusia: «autobidetik herrira sartzeko errepidean izandako erortzeak kezkatzen gaitu gehienbat. Magal hori oso ezegonkorra da. Lehen ere erortzeak izan dira eta etorkizunean ere sor daitezke». Ardura Nafarroako Gobernuarena dela argitu du eta horregatik jo dute gobernura: «Herri Lan Departamentuko Zuzendari Nagusiari hitzordua eskatu diogu». Plazaola Partzuergora ere jo dutelaguntza eske, «bide berdea hor dagoelako. Joan den urtean bide berdea babesteko lan ba-

tzuk egin ziren eta horiei esker ez da erortze handiagorik izan, baina izan daitezke».

Errepidean «auto asko» eta bide berdean «jende asko» ibiltzen dela ikusita, neurriak eskatu ditu alkateak, orain arte egin diren «konponketa puntualak» ez direlako aski: «Magal guztia arriskuan dago eta ez behar handi bat gertatu aurretik behinbetiko neurriak nahi ditugu».

Bestalde, euriteek eragindako kalte pribatuez ere mintzatu da, eta «asegurua baldin badute aseguruen partzuergoan parte emateko, eta asegurua babesten ez duen kalteren bat izan badute, hori dokumentatzeko» aholkua luzatu die. «Dirulaguntza deialdiak egiten dituztenean herritarrek kalteak nola erreklamatu jakiteko informazioa ematen saiatuko gara».

Errekek zikin

Euriteen ondorioz, erreka bazterrek zabortege bihurtu izanak ere kezka sortu du. Erasoten, esaterako, euriak hainbat zabor mugiarazi ditu eta Uitzirako bideko bazterretatik joan dira. Garbitzeko eskatu dute.

Herri kiroletako materiala denentzat eskuragarri

Herri kiroletan aritzeko materiala denentzat eskuragarri jarri du udalak plazako turismo informazio gunean. Informazio gunea irekita dagoenean bakarrik izanen da materiala erabiltzeko aukera, eta erabiltzeko tresnak hartutako tokira itzuli beharko dira.

3.000 biztanleko langa gainditu du Leitzak

1999az geroztik aurreneko aldiz Leitzak 3.000 biztanleko langa gainditu duela jakinarazi du udalak. Espainiako Estatistika Institutuaren azken datuen arabera, 2021eko ilbeltzaren leian 3.010 biztanle zituen Leitzak eta 2020an garai berean 2.965.



Balikebale lehiaketaren harira, giro ederra sortu zen Herri Aretoan. DABID ANAUT

Beñat Zabaleta, Eden Gastearena eta Oihan Alduntzin nagusi Balikebalen

TTIPI-TTAPA

«Herri Aretoa bete-betea, eta giro bikaina». Halaxe azaldu du Dabid Anaut euskara teknikariak Balikebale lehiaketak emandakoa. «Oso balorazio» ona egin dute antolatzaileek. Lau hirukote aritu ziren lehiaketa abenduaren 17ko lehiaketa handian, eta horien artean, Beñat Zabaletak, Eden Gastearenak eta Oihan Alduntzinek osatutako taldea eta Andrea Kasaresek, Luken Kasaresek eta Amaia Ezkurdiak osatutakoa sailkatu ziren finalera. Final oso berdindu baten ondoren, azkenean Zabaletak, Gastearenak eta Alduntzinek irabazi zuten sari nagusia.

'Leitzaketa' mahai-jokoa

Balikebale lehiaketaren egunean aurkeztu zuten Leitzaketa jokoaren bertsio berria. Euskara zerbitzuak eta kultur

taldeak duela 20 urte inguru sortu zuten mahai-jokoa, Leitzari buruzko 1.000 galderekin, eta orain, euskara zerbitzuak eta udalak sortutako lantalde batek bertsio eguneratua egin du. Egungo teknologietara moldatu dute, eta hala, galdera-erantzunak etengabe eguneratuko dituzte. 1.200 galderatik gora bildu dituzte, eta gehiagorekin osatzeko asmoa dute.

Bi modu daude jokatzeko; mahai-jokoa eta gailu bidez. Mahai-jokoa ohiko joko-taula da eta taula, dado eta fitxak udaletxean, euskara zerbitzuaren bulegoan eta Astitz eta Maimurren daude salgai 10 eurotan. Galdera-erantzunak, berriz, leitzaketa.eus webgunean daude. Bigarren aukera telefono, tablet edo ordenagailu bidezkoa da. Bakarka edo taldeka parte har daiteke webgunearen bitartez eta doan da.

Bizikleten salmenta eta konponketa.

- Kanttonberri, 1 | BERA
- T. 948 631 218
- joxemi@kateabike.com
- www.kateabike.com

Elikadura osasungarriaz hitzaldia ostegunean

Kikilisaldako lantaldeak antolatuta ostegun arratsaldean Eneritz Mujikarekin solasaldia izanen da jangelan

TTIPI-TTAPA

Etzeko sukaldeetan elikadura osasungarria sustatzeko asmoz, lanean jarraitzen du Kikilisaldako lantaldeak. Abenduaren 13an Itxaro Zabaleta dietista-nutrizionistarekin egitekoa zen hitzaldiaren ondoren, aste honetan Eneritz Mujika dietista-

nutrizionistarekin egingen dute. Ostegunean, urtarrilaren 13an, izanen da, 16:45etik 18:00etara jangelan. Elikadura osasungarria eta jasangarria eta bertako, garaiko eta kalitatezko produktuengarrantziaz ohartarazi nahi dute. Bertako produktuak das-tatzeko aukera ere izanen da.

Baserritarren oharrean «gezurrak eta egiak erdizka» daudela dio udalak

TTIPI-TTAPA

Azaroaren 17an baserritarrek egindako bileraren ondoren, oharra kaleratu zuten hainbat azpiegituren egoera «oso txarra» edota Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza bat «berezko egin-beharretatik desbideratu» izana salatuz. Udalak ohar horri erantzun nahi izan dio.

Dioenez, «baserritarren egoera ezagutzeko udalak hainbat bilera egin ditu beraiekin herri lurren egoera hobetzeko eta, egungo ordenantza eguneratzeko lantalde bat sortu du». Baserritarren bilerara udala ez gonbidatu izana «ulergarritzat» jo du, «baina onargarria ez dena da bilera ondoren publikatu den oharrean gezurrak eta egiak erdizka esatea».

Baserritarrek «Artikutza ondoko mendiak egoera onean jartzeko Nafarroako Gobernuak jarritako diru partida handiena (45.000 eurotatik 40.000 euro) berezko egin beharretatik desbideratu eta Illarrietako ehiza postutako pista konpontzeko erabili izana tamalgarritzat» jo zuten. Baina udalarentzat, «hori ez da guztiz zuzena»:

«Diru hau zertan erabili zehazteko, bertan aziendak edukitzen dituzten abeltzainekin bilera bat egin zen, eta bertan hartu zen bi aska berri egin eta Kuxingo bordatik Illarrietara doan pista hobetzeko erabakia; hau baita Artikutzako mugako inguru horretara dagoen pista bakarra».

Bestetik, baserritarrek «udalari diru ekarpen handia egiten diotela» nabarmendu zuten, baina «udalak inbertsiorik ez duela egiten». Horri ere erantzun dio udalak: «Komeni da jakitea, baserritarrek gainontzeko goizuetarrek bezalaxe dituzten ondasunen baitako ekarpena egiten dutela zerga bidez, eta udalak onura kolektiboa hartzen duela aintzat inbertsioak egiterako garaian, eta ez norberak egiten duen ekarpena».

Edozein kasutan, udalak argi utzi du «ez duela ika-mika honetan gehiago luzatzeko asmorik» eta «baserritarrekin elkarlanean jarraitzeko eta goizuetarren bizi baldintzak hobetzen saiatzeko» asmoa berretsi du.



IGARATZA APEZETXEA

Urteko azken egunean Mandoegira

25-30 lagunek bat egin zuten Arainburu Mendi Taldeak antolatuta abenduaren 31n Mandoegira egindako mendi irteeran. Hainbat adinetako herritarrek bildu ziren eta giro ederra izan zuten. Urteari behar bezala agur esateko tontorrean topa egin zuten.



FELIX LOIARTE ETA ALAITZ ESKUDERO

Olentzerorekin kalejira

Musikaren laguntzaz kalez kale ibili ondoren, frontoian egin zieten harrera herritarrek Olentzero eta Mari Domingiri abenduaren 24an. Presoekin elkartasunean ere ibili zen olentzeroren kalejira eta Izadik gurasoekin egon behar duela ere aldarrikatu zuten hainbat herritarrek.

Egunotan erabakiko dute inauteriak egin ala ez

Antolatzaileek inauterien inguruan hitz egiteko egingo dituzten bileretara joateko deia egin diete herritarrei

TTIPI-TTAPA

Gauzak ongi bidean hilabete-ko azken ostiralean eta larunbatean, urtarrilaren 28 eta 29an, izango lirateke Aresoko inauteriak. Baina pandemia dela eta, ez dago argi deus ere. Datozen asteetan egingo dituzte egoera aztertu eta ospakizunak

egin edo ez eta nola egin erabakitzeko bilerak. Ohiko bideak erabiliz zabalduko dute deialdien berri eta antolatzaileek herritarrei bileretara bertaratzeko deia luzatu nahi diete. Gogo faltarik ez badago ere, ikusi egin behar zer gertatzen den azkenean inauteriekin.

Sastizarreko labera bisita egin dute ikasleek

TTIPI-TTAPA

Nazabal Eskolako ikasleek Sastizarreko labera ateraldia egin zuten. Abenduaren 16an Lehen Hezkuntzako ikasleak joan ziren ogia egiteko prozesua ikastera eta abenduaren 21ean Haur Hezkuntzakoak. Ainaren eta Eduren eskutik, ama

orea nola prestatzen den ikusi eta harrotze prozesua ezagutzeko aukera izan zuten. Ondoren, ikasleak sukalde lanetan aritu ziren. Kikili saldak antolatutako *Sukaldatu-zuk aldatu* dinamikaren baitan, eskolako irakasleek antolatu zuten, haurrak sukaldera hurbiltzeko.



Eskolako ikasleak Sastizarreko egindako bisitan. UTZITAKOAK

Mendiko kirol lizentzia eta aseguru

Mendi taldearen eta Kirol Man-komunitatearen bitartez, mendiko kirol lizentzia eta aseguru egin nahi dutenek izen-emate orria bete, ordainketa egin eta agiriak kirolmankomunitatea@gmail.comera bidali behar dituzte. % 10eko deskontua izango dute B eta C kategorietan.

2021eko ur tasa ordaintzeko hilaren 14ra arteko epea

Udalak 2021. urteari dagokion ur tasa ordaintzeko epeak zehaztu ditu. Urtarrilaren 14ra arteko epea, ostiralera arte, izango dute herritarrek borondatez ordaintzeko. Epe hori pasata dagokion gainkargua gehituko zaiola jakinarazi du udalak.

Ustakiñenera joan da guraso elkarteak saskia

Guraso elkarteak zozketatu duen saski ederra Igone Goikoetxeari egokitu zaio. Lerro hauen bitartez, guraso elkarteak eskerrak eman nahi izan dizkie boletoa erosi dituzten guztiei.



ENERITZ IRAOLA

Olentzero eta Mari Domingiren bisita

Haurren ilusioak gain hartu zion Covid-ak eragindako egoera bereziari. Segurtasun distantziak mantenduz, maskarak jantzita... baina kantuekin goxatu zuten abenduaren 24an goiza eta iluntzean harrera beroa egin zieten Olentzero eta Mari Domingiri.

Uholdeen kalteek aurrekontuetan eraginen dute

Emergentziazko lanak egiten ari da Baztango Udala kalteak ahal bezain fite konpontzeko

TTIPI-TTAPA

Urte berriko aurrekontuak otsaila aldean onartu ohi ditu Baztango Udalak, baina abenduan izandako ezusteko uberroek hainbat kalte sortu dituzte azpiegituretan eta «begibistako eragina» izanen dute aurrekontuetan. Hainbat bide konpondu ditu eta konpontzen ari da Udala, eta kalte guztien zerrenda egiten ari da.

Iruritatik Oharrizerako bidea ugaldearen aldera arraildu da eta ezponda erori da. Auzora joateko ordezkoko bidea dago, baina behitegirako pentsu kamioia ezin da pasatu. Erori den eta erortzeko arriskuan den zati guztia hustu behar da eta 45 metroko luzeran ezponda egonkortzeko uztaiak egin behar da. Bidearen barneko aldea bete beharko da paretaren gainerraino eta on-

dotik zola berritu. Laneko aurrekontua 120.441 eurokoa da eta proiektuaren idazketa eta zuzendaritza 9.635 eurokoa.

Beartzungo Kuarteleko bidean ezponda zatia beheiti etorri da, bidea erortzeko arriskuarekin, eta sei baserrietarako bidea hetsirik dago (Masterrena, Gamioa, Mutilasko, Xondonea, Gaztelua eta Jaimeneko borda). Harri-lubeta hormigoiztatua eginen da, 17 metro luze eta 3,5 metroko altuerarekin. Laneko aurrekontua 16.439 eurokoa da eta proiektuaren idazketa eta zuzendaritza 1.417 eurokoa.

Iruritako Arbuzko bidearen ezponda zatia beheiti etorri da eta kamioiendako hetsirik dago. Sei baserrietarako bidea da (Legarrea, Marindolarenea, Estebenea, Etxezuria, Xenperenea eta Dendarieta). Hor-



Abenduaren 9ko gauko eurteak hainbat kalte sortu zituen Baztanen. UTZITAKOIA

migoiztatutako harri-lubeta eginen da, 13 metro luze eta 5 metroko altuerarekin. Laneko aurrekontua 18.355 eurokoa da eta proiektuaren idazketa eta zuzendaritza 1.582 eurokoa. Juanikotenea bordaren alde-ara ere bidea arraildua dago eta 5.018 euroko aurrekontua dauka lanak.

Iruritako Legaletako bordako bidea arraildu da eta ezponda erori da, bidea erortzeko arrisku handiarekin. Legaletako borda eta Xurteneko bordarako bidea da. Bi harri-lubeta eginen dira; lehena 13 metro luzekoa eta 3 metroko altuerarekin eta bigarrena 22 metro luze eta 4 metro goiti. Laneko aurrekontua 40.161 eurokoa da eta proiektuaren

idazketa eta zuzendaritza 3.462 eurokoa.

Aritzakungo bidean ezponda zati bat erori da, bidearen azpian zuloa eginez eta bidea erortzeko arriskuarekin. Sumutsuarat eta Bedegorrietarat doa bidea. Hormigoiztatutako harri-lubeta paratuko da, 14 metro luze eta 3 metro goiti. Laneko aurrekontua 10.741 eurokoa da eta proiektuaren idazketa eta zuzendaritza 1.203 eurokoa.

Beartzungo, Iruritako eta Aritzakungo lanak hasi dituzte dagoeneko eta Oharrizkoa ez bertze, gainerakoak eginda daude. Hala ere, emergentziazko lanak ez diren bertze hainbat kalteren zerrenda eta azterketa egiten ari da udala.

WWW.ILBELTZA.EUS

CHILBELTZA

BAZTAN 2022KO ILBELTZAREN 24TIK 30ERA

ARGIA berria IKF bira

H

Ohiko formatuan eginen dute aurten (H)ilbeltza

Ilbeltzaren 24tik 30era literatura beltzarekin lotutako ekitaldiz beteko da Baztan

TTIPI-TTAPA

Euskal Nobela Beltzaren Astea ohiko formatura bueltatuko da aurten, 2021ean, koronabirusaren eraginez, ekimena guztiz aldatu bazuten ere. Ilbeltzaren 24tik 30era ospatuko dute VIII. edizio hau eta ekitaldiz beteriko egitaraua izanen da Anizen, Arizkun, Elizondon, Erratzun eta Iruritan.

Astelehenean, 24an, Idazleekin solasean jarduerak irekiko du egitasmoa Koldo Biguri idazlearekin, IV. (H)

ilbeltzako bekaren irabazlea. *Agu, maitea, ikusi arteliburuaz* ariko dira, Massimo Carlotoren *Arrivederci amore, ciao* nobelaren itzulpena. Arizkongo Medikuen etxean elkartuko dira 19:30etan.

Astezkenean, 26an, Euskal gaizkileak podcastari buruzko solasaldia izanen da Beñat Hach Embaren eskutik, Anizko elkarte 19:00etan.

Ortzira leian, 28an, Ainize Madariagak gidatuko du *Marga Andurain abenturaren gorpilean* solasaldia Elizon-



Ilbeltzaren azken astean hainbat ekitaldi eginen dituzte. UTZITAKOA

doko Arizkunenea kultur etxean 19:00etan.

Larunbatean, 29an, Hondar Ahoak (H)ilbeltzan mahai-ingurua izanen da Marian Fernandez eta Koldo Almandozen eskutik, 11:00etan Arizkunenean. 14:00etan bazkaria eginen dute Erratzuko elkartean eta ondotik Itxaro Bordaren *Euri zitalari* eskerliburuaren aurkezpena izanen dute Erratzuko elkarte 19:00etan.

Gartziaren gidaritzapean. Iluntzean Erratzutik barna *Susmagarrien gaua* izanen da.

Igandean, 30ean, Itzuli Beltza eginen dute; *Lubakietako oroiminak*. 11:00etan Irurita plaza abiatuko da. Akitzeko, Petti eta Ana Galarraga Aiestaranen eskutik *Frankenstein agurgarria*, *Gutun musikatu* Victor Frankenstein izanen dute.

BRIKO BAZTAN, SL

Drogeria · Garbiketa produktua
Ferreteria · Sukaldeko tresnak
Mozorroak · Papertegia
Kiroleko eta mendiko jantziak
Moda · Oinetakoak
Laneko arropa · Bitxiak
Lurrin-denda
Kosmetika, Elektronika
Telefonoak · Poltsak eta maletak
Etab.

T. 608 016 052
San Andres, 66 · NARBARTE
(Sarrera Legasatik)

asegi asesorías
Zergalan

- Kontabilitate zerbitzuak
- Zerbitzu fiskalak
- Lan-aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa
- Herentzia eta Testamentuak
- Laneko Arriskuen Prebentzioarako Zerbitzua
- Datuen babesak
- Mugaz bertze aldeko aitortzen kudeaketa (langileak eta enpresak)

www.zergalan.es | zergalan@asegi.es
www.asegi.com

Baztanberri plaza, 6 31700 ELIZONDO T. 948 581 300 · F. 948 580 648	Eztegara pasealekua, 22-1 31780 BERA T. 948 631 108	Eliza Kalea, 22 31740 DONEZTEBE T. 948 450 395 · F. 948 451 304
---	---	---

ANZABAL
inmobiliaria

- Inmobiliaria
Baserrri, borda, pisu, etab. salmenta eta alokairua
- Gestoria
- Zurich Aseguruak
Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- Lan aholkularitza
Nomina eta Aseguru Sozialak
- Aholkularitza fiskala
Errenta Deklarazioa, BEZa...

Santiago, 15 ELIZONDO · T. 948 580 804
anzabal@anzabal.com · www.anzabal.com

inelsa ZENER
ascensores
igogailuak

Igogailuen instalazioak.
Multimarka mantentze-lanak eta erreformak.

T. 948 232 400
www.inelsazener.com

«Musika egiteko interesa duen edozeinendako irekia dago Zapatillera»

ZAPATILLERA PROIEKTUKO KIDEAK BAZTANGO MUSIKAZALE ELKARTEA

Baztango hainbat musikari elkartu dira Zapatillera proiektua abiatzeko. Elbeten zapatilak egiteko erabiltzen zen lantegi zaharra hartu dute eta musika sortzeko leku bihurtu nahi dute



Zapatillera musika sortzeko, entseatzeko eta kontzertuak emateko leku bihurtu nahi dute. UTZITAKOA

R. OSKARIZ | ELBETE

«Gaur egun Baztanen gauden musika taldeok ez dugu entseatzeko lekurik». Hortik abiatuta, bailarako hainbat musikari batu dira Baztango Musikazale Elkartea sortzeko. Elbeten Zapatillera proiektua abiatu dute, «entseatzeko ez ezik, musika sortzeko, kontzertuak emateko eta okurrizten zaizkigun gauza guztien-dako» leku bat izateko.

Nola hasi zenuten ekimena?

Baztanen inoiz ez da izan musika taldeendako egokitutako espaziorik. Arazo horrek bulkatuta, uda partean hainbat musikari bildu ginen gaiari buruz solastatzeko eta egorri irtenbide bat aurkitzeko. Hor hasi zen dena.

Hasiera batean ez genekien elkarte bat sortuko genuenik ere, baina gauza batek bertze-raman zuen eta Baztango Musikazale Elkartea sortu behar izan genuen. Gehienbat administratiboki dirulaguntzak lortzeko sortu genuen. Baina gure helburua, elkarte baina, espazioa da, entseatzeko lokal batzuk izatea. Talde polita elkartu gara, gogoz eta motibatua gaude eta espazio ederra lortu dugu, Elbeteko zapatillera zaharra. Honek ematen dizkigun aukera guztiak, probestu nahiko genituzke, entseatzeko ez ezik, musika sortzeko, kontzertuak emateko eta okurrizten zaizkigun edozein gauza egiteko erabili nahiko genuke.

Nortzuk parte hartzen duzue proiektuan?

Musika taldeak eta pertsona indibidualak sartu gara. Taldeen artean Kaskezur, Drunken Barrels, Madame Birrots, ZaKILL, Humus de lombriz, Kamuts, Goroldio... gaude. Hala ere, hemendik aitzinera talde eta proiektu gehiago sortzea espero dugu.

Proiektua kulturalki eta sozialki beharrezkoa da?

Bai, behar batetik sortutako proiektua da. Inguruan ditugun baliabideetara egokitzen gara, bertze arloetan bezala. Inguruan dagoen kirolekaintzaren arabera aukeratzen ditugu kirolak, ba musikarekin berdín. Musika estilo bat egiteko leku edo baliabiderik gabe, zaila

da egitea. Hortaz, lekua eta baliabideak edukitzean, segur aski talde gehiago eta musikan espermentatu nahi duten pertsona gehiago izanen dira. Tristeia da musika taldeok horrenbertze urtez indibidualki eta hainbertzeko zailtasunekin aitzinerat atera behar izana.

Talde gehiago batzea espero duzue?

Espero duguna da inor ez gelditzea probatzeko gogoz. Zapatillerekin hasi ginenetik bi talde berri sortu dira dagoeneko. Musikan probatu nahi duenak, musika talde bat egin nahi duenak edo nolabait leku hau interesatzen zaiola ikusten duen edozeinek ateak irekiak ditu. Burutik pasatzen bazaizu edozein gauza, estilo, mota... zatoz eta probatu!

Nolatan hartu duzue Elbeteko zapatillera?

Leku bat bilatzen hasi ginenean Baztango Udaleria jo genuen lehendabiziko, aukerarik egokiena udalak eraikin publiko bat eskaintzea dela ikusten genuelako. Azken finean, igerrilekua, gimnasioa, futbol zelaia, kultur etxea... zerbitzuak eskaintzen dituzten eraikin publikoak dira horiek guztiak.

Horrelako zerbait bilatzen genuen guk, gure musika egiteko behar diren baldintzak betetzen dituen eraikin bat, Baztanen dagoen gabezia hau bete ahal izateko. Rocka, punka, rapa, folka... abesbatza, txaranga, futbola edo pintura baino guttiago dira? Bertze eskaintza kultural bat gehiago dira, eta bertzei bezala leku bat eskaini beharko zitzaizela uste dugu. Hor dago Berako adibidea, udal eraikin bat erabiltzen dute eta begira zein herri musikala den.

Baina ez zenuten lortu...

Ez. Haiekin harremanetan paratu ginen eta interesa erakutsi zuten, bilera pare bat egin genituen eta zubi lanak ere egin zituzten, baina azkenean gure kabuz egin behar izan dugu dena. Eta egiten segitu beharko dugu.

Hortaz, alokatzeko eraikinak bilatzen hasi ginen eta nahiko fite atera zen zapatillerarena. Leku ideala iruditu zitzaigun, Elizondotik hurbil baina herri erdian egon gabe. Nahiz eta etxebizitza batzuk ondoan egon, nahiko isolatua dago, eta eraikin koxkorra da, nabe bat. Ikustera joan ginelarik, segidan maitemindu ginen. Gainera, zapatillerako nagusiek lehenbiziko momentutik erakutsi zuten proiektuarekiko interesa eta motibazioa. Hau dena aitzinerat ateratzeko erraztasun guztiak paratzen ari dizkigute.

Zein egoeratan dago eraikina?

Eraikin handi bat da, lehen zapatak egiteko erabiltzen zena. Hortaz, potentzial handia dauka, baina gure beharretara egokitu behar dugu. Abenduaren erdialdean obrak egiten hasi ginen auzolanean, intsonorizazio lanak gehienbat. Alde batetik, soinua kanpora ateratzea nahi ez dugulako eta bertetik barnean akustika ona lortu nahi dugulako. Lan handia da, eta hutsetik moldatu behar izan gara, baina ilusioz eta gogoz beterik gaude. Falta dugun gauza bakarra, sosa.

Nola finantzatu duzue proiektua orain arte?

Oraingoz izan dugun diru iturri bakarra elkartean sartu garenen kuotak eta antolatutako bi kontzertuetan irabazitakoa da. Udalaren dirulaguntzak lortzeko, deialdietara esperatu beharko dugu. Baina



Auzolanean hasi dira Baztango musikariak eraikina konpontzen. UTZITAKOIA

dirulaguntzak beharrezkoak dira proiektua aitzinerat ateratzeko eta diru sarrera hauek espero ditugu. Obrak egiteko, alokairua ordaintzeko, materiala lortzeko... dirua behar da. Udalak ekonomikoki laguntzea espero dugu, Baztango behar bat baita.

Noizko aurreikusi duzue lanak akitzea?

Urteetako lana badela uste dugu. Minimoarekin hasi beharko gara, espazioa egokitzen musika egiten hasi ahal izateko, baina diruak manatuko du martxa. Hala ere, beharren arabera egokitzen joanen gara; zenbat jende dagoen, afera nola doan...

Nolakoa da gaur egun Baztango musikarien egoera?

Nahiko iluna da, ez da ona. Ez dira talde berri aunitzik sortzen ezta musika estilo desberdinak egiten dutenik ere. Ez da espazio egonkor bat izan proiektuak aitzinerat ateratzeko. Taldeak hainbat lekutan izan dira baina kanporatuak izan dira behin eta berriz. Egokituak ez zeuden espazioetara egokitu behar izan dira; Elbeteko eskola, gaztetxea, Erratzuko eskola, Elizondoko herriko etxea, Gamioxarrea, etxe partikularrak... bat bera ere ez dago prest behar hauendako. Gainera, azken aldian leku bakar bat ere ez zegoenez, bakoitza bere aldetik ibili da eta ez dakigu bertzeak zer egiten ari diren. Nola sortzen ahal da ibilbide musikala deus fin-

korik ez badago? Probatu nahi duen gaztea norat joanen da lekuri ez badago?

Garrantzitsua da musikariak elkartzea eta elkar laguntzea?

Bai, proiektu berriak sortzeko, hainbat ekintza antolatzeko, elkar ezagutzeko... aukera ematen digu horrek.

Musika aniztasun handia dago proiektuan?

Gehienbat rock, punk, folk eta estilo horretako musika egiten duten taldeak gara, baina badira rap musikan, esperimintazioetan eta bertze estiloetan ibili nahi dutenak ere. Hortaz, estilo guzietara irekia dago. Musika egin nahi duen edozeinendako espazioa da Zaptillera.

Aurkezpena dagoeneko egin duzue. Proiektuak jendearen interesa piztu du?

Bai, arras harrera ona izaten ari da. Lehendabiziko kontzertua gaztetxean egin genuen urriaren 29an. Goroldio eta Ozpinduk taldeek eta kazeru DJak egin zuten emanaldia. Bigarrena Zaptillera bertan izan zen, azaroaren 6an, Kaskezur eta Madame Birrots taldeen eskutik. Espazioa ezagutzera eman genuen eta jende andana bildu zen.

Zein dira zuen asmoak etorkizunerako?

Betiko izanen diren fundamenduak entsegu lokal publikoak lortzea. Musika sortzeko behar bezalako espazio bat izan nahi dugu, musika egin nahi duenari lekua eta materiala eskainiz.

OTEIZA

ARKITEKTOAK

665 71 56 96 - 943 42 52 43

www.oteizaarquitectos.com

Apote Karrika 8 (Maskonea)
31730 - Irurita (Baztan)

Askatasunaren H. 7 - 7ºE
20004 - Donostia

oteizaarquitectos

CARLOS GARAIKOETXEA ETXENIKE

abokatua

Dibortzioak, herentziak,
alokairuak, alkoholemiak...

T. 948 581 468 | M. 630 354 818

Santiago, 59 2C ELIZONDO

Oharriz Auzoa z/g · LEKARÓZ

T. 948 452 143 · 948 452 449

info@harrilan.com www.harrilan.com

EDOZEIN HARRI MOTAREKIN
LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU

BAITA HORMIGOI INPRIMATUA ERE

«Ahalik eta baliabide gehienekin lagundu nahi diogu Afrikako eskolari»

JAIONE PERURENA ETA IÑIGO ITURRALDE ELIZONDOKO LANBIDE ESKOLA

Elizondoko Lanbide Eskolako hainbat ikaslek proiektu solidario bat martxan jarri dute Cabo Verdeko lanbide eskola batekin elkarlanean

R. OSKARIZ | ELIZONDO

Elizondoko Lanbide Eskolan proiektu solidario bat abiatu dute, «ikasleei irakatsi eta aldi berean gure gizartearen-dako baliagarria den zerbait egiteko». Proiektu honen berri eman digute Jaione Perurena eta Iñigo Iturralde, ikastetxeko irakasleek.

Zein da abiatu duzuen proiektua?

Lanbide Eskolan beti saiatzen gara partaidetza, prestakuntza, elkarlana eta asebetetzea sustatuz pertsona arduratsu, ekintzaile, eleanitz eta trebeak hezten, horregatik lantzen ari gara Cabo Verde proiektua aurten. Afrikako herrialde honetan, São Domingos inguruan, CEFP Variante lanbide eskola dago, eta beraiekin elkarlanean hasi gara. Gure helburua, alde batetik, harat negutegi eta hazitegi bat bidaltzea da, eta horretarako Elkarlan enpresa simulatua sortu dugu finantziarioa lortzeko.

Bertzalde, urtarriletik aitzinera erremintak, makinak, lanerako tresnak eta beraien-dako baliagarria izan daitekeen edozein gauza biltzeko kanpaina martxan jarriko dugu gure eskualde osoan. Kontenedore bat bete nahi dugu eta Ayuda Contenedores gobernu kanpoko erakundearekin bidaliko dugu.

Nola jarri zarete harremanetan GKEarekin?

Gure ikastetxeko irakasle batek jadanik esperientzia



Elizondoko Lanbide Eskolako ikasleak eta CEFP Varianteko ikasleak. UTZITAKOIA

izana du erakunde honekin, eta bera zela medio jarri ginen harremanetan beraiekin. Ayuda Contenedores erakundekoek aukeran eman zizuten Cabo Verdeko CEFP Variante ikastetxearekin elkarlana bulkatzeko, eta ez genuen bi aldiz pentsatu. Beraiek arduratzen dira logistikaz, kontenedoreak helmugara iristeko.

Zergatik Cabo Verden?

Pentsatuko duzuen bezala, beraiek ikastetxean dituzten baliabideak ez dute inolako zerikusirik gureekin. Gure nahia ahalik eta baliabide gehienekin laguntzea izanen

litzateke; negutegia, hazitegia, hainbat erreminta, nekazaritzako tresnak, eskolako altzariak...

Zenbat ikasle parte hartzen ari dira proiektuan?

Ostalaritza eta Turismo lanbide heziketa bereziko ikasleak, Bulegoko Informatikako Oinarrizko lanbide heziketako lehen mailako ikasleak eta Elementu Metalikoen Fabrikazioko Oinarrizko lanbide heziketako bigarren mailako ikasleak parte hartzen ari dira proiektu honetan, denetara 20 ikasle eta 9 irakasle.

Eta gogotsu daude?

Orokorrean, proiektu edo erronka bidez lantzen direnean edukiak, motibagarriagoak eta atseginagoak egiten zaizkie ikasleei, eta Cabo Verde proiektuarekin horrela gertatzen ari zaigu. Azken finean, ikaskuntza emaitzak lortuko ditugu eta gainera bukaeran beren lanaren emaitza ikusiko dute: kontenedore bat beharrak dituzten bere adintsuko neska-mutilendako beteta.

Nola lortu duzue finantziarioa proiektua aitzinera eramateko?

Elkarlan S.L. enpresa simulatua sortu dugu, eta bertan eskualdeko udalek, ikastetxeek eta entitate pribatuek metalezko eraikuntzen eskariak egiten dizkigute. Lortutako diru sarrera ttikiekin finantzatzeko dugu proiektua. Momentu honetan lan dezenterekin gabilta, eskari aunitz ditugulako, eta espero dugu etekinekin negutegia eta hazitegia finantzatzea.

Honez gain, Ostalaritza eta Turismo Lanbide heziketa bereziko ikasleak abenduan saski dotore bat zozketatu zuten.

Laneko tresneria lortzeko kanpaina abiatuko duzue urtarrilean.

Nola parte har dezake jendeak?

Bilketa kanpainarekin hasi aitzinetik hainbat komunikabideetan zabalduko dugu zertan datzan proiektua, zer bildu nahi dugun, nola eta non bilduko dugun... Edozein herritarrek lanerako tresnak (motozerra, aitzurra, sasi-garbitzeko makina...) soberan baditu edo erabiltzen ez baditu, eskolara deitu dezake eta berarekin harremanetan jarriko gara.

Edozein zalantza edukiz gero, eskolako web orrian informazio gehiago aurki daiteke.

Zerbait gehitu nahi duzue?

Herritarren, zonaldeko enpresen, ikastetxeen eta entitate publikoen laguntza beharrezkoa ikusten dugu proiektua aitzinera eraman ahal izateko.



Hainbat herritar bildu ziren Aintzialden proiektuaren kontra. J. ITURZAETA

Harrobi bat egiteko proiektuari ezetz erran dio Arizkungo herriak

TTIPI-TTAPA

Canteras Acha enpresak zundaketak egin nahi ditu Arizkungo Aintzialde eta Bergara auzoetan, harrobi bat egiteko helburuarekin. Imanol Etxeberria alkateak eta sortu berri den Milotxuri Bizirik plataformak adierazi duenez, «herria mindua dago egitasmoaren berri izan duen moduari: lur komunaletarako Batzar Nagusian ez da notifikazio edo baimen eskaerarik sartu, jabe go pribatuaren kasuan bezalaxe». Herri batzarra egin zuten abenduaren 12an gaia lantzeko eta 155 arizkundar

bildu ziren bertan. Herri bozketan denek eman zioten ezezkoa proiektuari.

Harrobi batek ekarriko lituzkeen kezka nagusiak azaldu dituzte. Hasteko, «zundaketak egiteko eskatu duten meatze-koadrikularen barnean 12 etxebizitza daude, gehienak XV. eta XVIII. mende bitarteko baserriak. Hainbat abeltzaintza-ustategi hartzen ditu, familia hauen sostengua bermatzen dituztenak. Bordak, iturriak zein auzoa hornitzen duten ur-biltegiak eta oihanak ere hartzen ditu barne». Honez gain, «proiektua legez babes-

tua dagoen Bergarako jauregiaren babes-eremuaren barnean dago» eta «auzoa hornitzen duen ur-biltegia, hoditeria eta iturburua zundaketa batetik 200 metro baino guttiagora daude, ura kutsatzeko dakarren arriskuarekin». Gainera, adierazi dutenez, «eremua bi auzoetako herrigunea ukitzen ari da, Arizkungo kasotik 400 metro eskasera. Harrobiak etxebizitzetatik 40 metrora egin daitezke, eta honek leherketak, nekazaritzako lurra galtzea, pisu handiko kamioien joan-etorriak, eta abar luze bat ekarriko ditu berarekin».

Honengatik, helegiteak abiarazi dituzte «bertze behin gure lurrak defendatzeko». Baina argi dute afera ez dela arizkundarra bakarrik, «baztandar guztiena baizik; bailara hartzen duten bertze hoge proiektu daude lo, edozein momentuan martxan paratzen ahal direnak».

Elkarretaratzea Aintzialden

Harrobiaren aurka mobilizatzen hasi dira arizkundarrak eta abenduaren 19an lehenbiziko elkarretaratzea egin zuten Aintzialden. 250-300 lagun inguru bildu ziren ber-

tan eta argi adierazi zuten «enpresa bat aberasteko gure herritarren miseria bilatzen duten enpresa zein proiektuei ozen erran nahi diegu gure lurretan ez duzuela lekurik izan».


Gainera, Arizkungo herriaren izenean enpresari idatzi zioten, «asmo hau lehenbailehen bertan behera uzteko» eskatuz. Etxeberria alkateak eta Oskariz kargodunak eskura eman zioten gutuna Canteras Achako arduradunari, bertan herriaren iritzia bilduz; «arizkundarrok gure nekazal eta bizitoki eremua den hori dagoen bezala uzteko eta defendatzeko lanean ari gara, gure lurrak herritarrontzat nahi ditugulako. Ez dugu amore emanen.»

Elbetarrak ere proiektuaren aurka

Arizkungo Aintzialde eta Bergaraz gain, Elbeteko Miloa parajeko lurrak ere hartuko lituzke proiektuaren eremuak, eta elbetarrak ere harrobiaren kontra agertu dira. Abenduan egindako herri batzarren proiektuaren inguruko bozketak egin zuten. 67 herritarrek hartu zuten parte; 65 lagunek ezezkoa eman zuten eta bik boto zuria.

ferreteria Quevedo

TXERRI HILTZEAN
ERABILTZEKO TRESNAK



Santiago 31 · ELIZONDO · Tel.: 948 580 234 · www.ferreteriaquevedo.com



IRUÑEKO UDALA

2021eko Txondorra saria jaso du Cesareo Soule hargin arizkundarrak

TTIPI-TTAPA

Enrique Maya Iruñeko alkateak 2021eko Txondorra Saria eman zion abenduaren 24ean Condestable jauregian Cesareo Soule Arizkongo harginari, Arizkun inguruan hainbat hamarkadatan harriarekin egindako lanagatik. Olentzeroren Lagunen Elkartek Iruñeko Udalaren eta Nafarroako Gobernuaren laguntzarekin sustatutako sari honen zazpi-garren edizioa da aurtengoa. Bere lanarekin kultura herri-koia eta tradizionala zaintzen eta garatzen laguntzen duen pertsona edo erakunde bat saritzen du. Ekitaldian, Rebecca Esnaola Kultura eta Kirol sailburua, Olentzeroren Lagunen Elkarteko ordezkariak, udalbatzako eta epaimahaiko kideak eta saridunaren senideak izan ziren.

Hirugarren belaunaldia

Bere aitatxi Juan eta bere aita Bautista bezala, hargin lanetan segitzen du oraindik 73 urte-ekin Cesareok, eta Albaro semeak ere arbasoen bidea hartu du. Epaimahaiak, «bere arte-lan ugariengatik, aurtengo Jakobeo urtean Baztango Done Jakue Bideari egindako ekarpenean izan duen harremanagatik, eta mugarrak eraikitzearekin Done Jakue Bideari egindako ekarpen pertsonalagatik, museo etnografikoagatik, eta, bertzeak bertze, harri-tailari egindako ekarpenagatik» eman zion saria. Bere ibilbide profesionalean, etxeen fatxadetan jartzeko noblezia-armarriak, hilerrietarako hiliarri diskoidalak eta lapidak, etxeetako letreroak eta enkar-guz egindako bertze hainbat lan ttikiago egin ditu.



Aizkoako bidea konpondu eta urtetxak eskatu zituzten Anizen. MAITANE MARITORENA

Auzolanean akitu eta urtetxak eskatzen hasi dute urtea aniztarrek

MAITANE MARITORENA


Auzolanean akitu dugu urtea Anizen. Aizkoako bidea basaka egin aldiro hondatzen denez, hormigoitza erabaki zen batzarrean.

Urte berriari ongi etorria emateko, berriz, etxez etxe kantari eta urtetxak eskatzen ibili ziren Anizko haurrak, sakelak goxokiz, frutaz eta fruitu lehorrez betez.



647 77 31 33

Eguzki plaken instalazioak,
argiztapen-azterketak
eta elektrizitate lanak orokorrean





Mugitzeko arazoak dituztenen etxetara ailegatu ziren kantuak. ARANTXA ETA IRAIA

Animazioa izan da Eguberrietan herrian eta Dantxarinean

Mugikortasun arazoak dituztenen etxetara ailegatu ziren kantuak, herriko botikaren ekimen bati esker

ARANTXA ETA IRAIA

Eguberrietako datak joan zaizkigu eta horiek ospatzeko, Dantxarinean ere hainbat ekitaldi egin zituzten. Abenduaren 23 eta 30an 10:30etik 12:30rat magia ikuskizunak izan zituzten Javi eta Anka herriarren eskutik, Axular Bentan. Egun horietan ere, eguerdietan, musika animazio ugariak izan zituzten Pako, Arretxea, Felix eta Pantxo bentetan.

Honetaz gain, herrian ere ez zen animaziorik faltatu. Herriko botikak eguberrietako kanten ibilbidea egin zuen.



Karrikaz karrika ibili ziren kantari.

Honela, mugikortasun arazoak dituzten herritarren etxeen ibilbidea prestatu eta bertan, QR kode bat irakurritz, elkarrekin eguberrietako kantak kantatzeko aukera izan zuten animatu ziren guztiek.



ARANTXA ETA IRAIA

Olentzeroren bisita izan dugu aurten ere

Olentzeroren bisita izan genuen herrian abenduaren 24an. 18:30ean ailegatu zen eta ttipienekin egoteko aukera izan zuen. Haur bakoitzaren desioak eta nahiak entzun ondotik, mendi alderat joan zen gau magikorako indarrak hartzeko. Herriko trikitilariak lagunduta etorri zen Olentzero.



ARANTXA ETA IRAIA

Traktore eta laborantza tresnen ITVa

Urtero egiten den bezala, abenduaren 15ean eta 16an herriko laborariek beraien lan-tresnak atera zituzten inspektzio teknikoa pasatzeko. Urtero bezala, herriko plazan traktoreak eta bertzelako motordun tresnak bildu eta denek azterketa teknikoa pasa behar izan zuten.

IBARDIN 31780 Bera	BEHOBIA 20305 Irun	LUZAIDE 31660 Luzaide	DANTXARINEA 31712 Urdax
------------------------------	------------------------------	---------------------------------	-----------------------------------

EGUNERO IREKIA, ASTELEHENETIK IGANDERA ARTE
*Abenduaren 25ª eta urtarrilaren 1ª izan ezik

www.venta-peio.com / (Fr) 0820 562 267 / (Es) 0034 902 210 800

TTIPI-TTAPA
SARE SOZIALETAN

facebook
www.facebook.com/ttipi.ttapa

Jarrai gaitzazu!

Zenbait dirulaguntza aitzineratu ditu herriko kontseiluak

San Josepe eskolari eta Olhain ikastolari 2022ko subentziotik aitzinamendua eman die

GANEX

Sarako Herriko Kontseiluak bilkura izan zuen abenduan eta zenbait erabaki hartu zituen. Honela, San Josepe eskolari eta Olhain Ikastolari 2022ko subentzioetatik aitzinamendu bat emanen die. Olhain ikastolak ate idekien eguna izanen du urtarrilaren 15ean, larunbatean, 10:30etik aitzinera.

Bertzetik, leizeetako bisitarren prezioak aldatu dituzte: Helduentzat 10 euro, 5-13 urte arteko haurrentzat 6 euro eta 14-17 urte arteko gazteek 8,50 euro ordaindu beharko dituzte hemendik aitzinera.

Kuriertegiko erosketak ere finkatu du herriko kontseiluak, Euskal Herriko EPFL elkartearekin. Era berean, Portuko lantegian herriak badu lokal bat, Alaiki elkarteak uzten



Leizeetako sartzeen prezioa aldatu da.

duena. Lokal hori Katrin Schel marexalari alokatuko diote 2022ko urtarrilaren lehenetik hasita. Herriko enplegatuen lanpostuak ere berrituak izan dira.

Azkenik, Patricia Gorosurretak erabiltzen dituen herriko lurrak, bortz hektarea pasatuxe, utzi egin ditu eta Eric bere semeari pasatu. Beraz, badugu bertze laborari gazte bat laborantzari emana. Suerte on zuri, Eric.



GANEX

Olentzero eta Mari Domingi plazan

Olentzero Mari Domingirekin etorri zen plazarat abenduaren 18an. Behar zen ikusi haur horien zoriontasuna! Goxoki batzuk eman zizkieten eta haurrek Gabonetako kanta batzuk abestu trukean. Komertzianteen elkarteak eta herriko etxeak krakada eskaini zien. Izigarri ongi pasatu zuten ilunabar hori!



UTZITAKO ARGAZKIAK

Herriko pilotariak trinketean txapelkun

Iparraldeko Pilota Batzordeak antolatutako trinkete txapelketan Sarako bi bikote txapelkun izan dira. Laugarren mailan Ellande Alfaro eta Luran Elizalde, finalean Airetik taldeko bikoteari irabazita. Artekoak B mailan, berriz, Eñaut Iriarte eta Oihan Iribarren Baigorriko bikotearen kontra nagusitu dira finalean.



GANEX

Krakada eta pailazoa San Josepe eskolan

San Josepe eskolako haurrek abenduaren 16an egin zuten Eguberrietako krakada beraien eskola berrian eta biharamunean, Lur Berri gelan pailazoen emanaldia ikusiz, izigarri ongi pasatu zuten denek. Memento alaia izan zuten, horrela oporretara kontentu joan ziren denak, handi eta tiki.



Medailez ohoratuak izan ziren su-hiltzaileak, Santa Barbara egunean. JL BESSONART

Santa Barbara eguna ospatu zuten suhiltzaileak

751 ateraldi egin dituzte 2021 urtean eta bederatzi suhiltzaileri medailak eman zizkieten

TTIPI-TTAPA

Abenduaren 5ean, Santa Barbara ongi ospatu zuten Kinka Ostatuaren aterpean, kanpoan haize eta euri zaparradak baitziren nagusi. Goizeko mezan parte harturik gehienak bildu ziren, bazkari on baten men-turan. Aitortu dezagun segidan, suhiltzaileen zuzendaria Julien Ubiria izan zela egun horretako izarra, azken hitzal-di ofiziala eman baitzuen, ondoko udazkenean bere fun-tzioa senpertar bikote baten eskuetan utziko duelakotz. Gaurko pandemiak zailtasun anitz sortu ditu, eta kutsadu-ra arriskuengatik baldintza zorrotzetan lanera behartuak izan dira suhiltzaileak. Halere azken urte honetan, ateraldien

aldetik sekulako garapena izan dute, 2020an 538 ateraldi eta 2021an 751 ateraldi. Aldaera izugarria sortzen ari da suhiltzaileen munduan, gero eta gehiago garraio sanitarioak egiten baitituzte, anbulantzien eskasagatik. Bere aldetik, Dominique Idiart auzapeza min-tzatu zen bertze inguru herrietako (Sara, Ainhoa, Urdazubi, Zugarramurdi) auzapezen izenean. Denak prest azaldu dira beren laguntza ekartzeko. Julien bere lanagatik ere ongi eskertu eta gorai-patu zuen. Bederatzi suhiltzaile medailez sarituak izan ziren, 10, 20 edo 30 urteko presentziagatik. Orogen buru egun goxo hori bururatu zuten afari eta kantuen artean.

Bi antzezlan ilbeltzean Larreko aretoan

TTIPI-TTAPA

Urte berrian ere kultur ekitaldiak izanen dituzte Larreko kultur aretoan. Hasteko, ilbeltzaren 18an, 20:30ean, Le Petit Theatre de Pain taldearen MU.e antzezlana ikusgai iza-

nen da. Sartze orokorra 13 euro gostako da. Hilaren 23an, igandean 17:00etan, berriz, *Jimmy et ses soeurs* (Jimmy eta bere ahizpak) antzezlana eskainiko dute. Sartzea 10 euro gostako da.



Artekoak sailan Lazkano eta Lopez senpertarrak txapeldun. JL BESSONART

Pilotaren besta izan dute Gantxiki trinketean abenduaren 12an

JEAN LOUIS BESSONART

Zinezko besta ukan genuen abenduaren 12an Gantxiki trinketean, Iparraldeko esku-huskako finalek eskaini zutena. Sekulako egun ederra bilakatu zen, harmailak ongi beterik, giro ezin hobean, pilotazaleek ongi gozatu zuten. Senpereko pilota batzordeak, antolaketa bikaina eraman zuen eta ikusiz zer erantzun ona ukan zuen, arduradunak lorietan gelditu ziren. Ekitaldi honen bitartez ohoratuak izan ziren Evelynne eta Sébastien Tapia, Gantxiki trinkete-osta-

tua 31 urtez hain ongi kudeatzeagatik. Emaitzak azaldu gabe, nola ez aipa halere Senpereko ekipoak irabazi zuen txapela, artekoak sailan Mathieu Lazkano eta Baptiste Lopez bikotearekin. Keinu bat Iban Larzabal herritarra-ri, honek ere Oihan Gonzalezekin txapela jantzi baitzuen Azkainendako, gazte mailan. Orogen buru, lehen mailako finalean, lau pilotariek izigarriko ikustaldia eskaini zuten eta publikoaren erantzuna txalo zaparraden artean zinez atsegingarria izan zen.

Lurberriako urtegiak babesa eman zio herriari abendu hasierako uholdeetan

Senperetik betidanik lotura berezia izan du Urdazuri ibaia-ekin, gehienetan maitasunezkoa, tarteka beldurgarria. Abenduaren 9ko arratsaldean ametsgaizto bilakatu da hiru asteroko eurien ondorioz, bere bidetik atera baizen, bazterrek kalteturik. Zorionez jendetan ez zen biktimarik izan, halere etxebizitza batzuk hunkituak izan ziren, kaltetuenetan karrika nagusiko komertzio andana bat, hemen autoen joan jinek okertu zuten egoera. Azpimarratzeko da Lurberriako urtegiaren eragina, oraingoan ongi bete da (51 m. hei-



Urdazuri ibaia bere bidetik atera zen.

nean) honek babesa eskaintzen baitio Senpere eta Azkaini. Eskertzekoak ere suhiltzaile, herriko langile eta hautetsiak, ahantzi gabe auzoen artean horrelakoetan sortzen den laguntza, behardunen alde.



Azken txanpan sartua da paxaka txapelketa. LAXOA ELKARTEA

Paxaka txapelketako finala hilaren 23an jokatuko dute Iruritan

Txapelketa osoa astebete gibelatu dute eta hilaren 16an jokatuko dituzte finalerdiak

TTIPI-TTAPA

Covid-19ak bere eragina izan da Laxoa Elkarateak antolatutako Nafarroako 22. Paxaka Txapelketan ere. Hasiera batean finala ilbeltzaren 16an jokatzekoa baldin bazen ere, jokalaria batzuk positibo eta

bertze batzuk konfinaturik zeudelako, lehen fasea espero baino beranduago akitu behar izan zuten eta hortaz, astebe- te gibelatu behar izan dute azken txanpa. Joan den igande- an, ilbeltzaren 9an jokatze- koak zituzten final laurdenak

Erratzun, lehen fasean hirugarren gelditutako Xabier Barberena (Irurita), Egoitz Prim (Irurita) eta Aritz Alunda (Arraioz) hirukoteak seigarren gelditutako Jon Apeztegia, Mikel Telletxea eta Iban Santesteban doneztebarren kontra eta laugarren gelditutako Manu Irigoien (Erratzu), Mikel Sagaseta (Irurita) eta Kaiet Itoitzek (Erratzu), bosgarren gelditutako Ioritz Zelaia (Oiz), Laurendi Zelaia (Oiz) eta Iban Juanenaren (Doneztebe) kontra.

Finalerdiak ilbeltzaren 16an eta finala 23an Iruritan

Partida hauetako irabazleen esperoan daude ilbeltzaren 16an Iruritako Aranabian jokatuko dituzten finalerdietan lehen fasean lehenbiziko eta bigarren postuetan geldituta- koak: Oskar Urrutia (Irurita), Iker Bereau (Oiz) eta Juan Mari Maiak (Elizondo) partida guz- tiak irabazi zituzten lehen fasean eta Gorka Urtasun (Iru- rita), Ugutz Zelaia (Oiz) eta Jabi Apeztegia (Doneztebe) bigarrenak izan ziren, partida bakarria galduta. Finalerdie- tako irabazleek final nagusia jokatuko dute ilbeltzaren 23an Iruritako Aranabian.

Bortzirietako eskuz banakako pilota txapelketako txapelak banatuak

TTIPI-TTAPA

Bortzirietako eskuz banakako pilota txapelketako bederatzi finalak jokatu zituzten aben- duaren 31n Berako Eztegar pilotalekuan. Partida ederrak izan ziren baina, aukeran, oreka pixka bat falta.

Umeen B mailan: Aimar Al- mandozek, 3 - Amets Lasak, 18

Umeen A mailan: Beñat Goñik, 18 - Eñaut Zubietak, 12

Kimuen B mailan: Erik Igoak, 18 - Ibai Criadok, 4

Kimuen A mailan: Enaitz Be- reauk, 16 - Ander Etxegaraik, 18

Haurren B mailan: Xuban Lakarrek, 18 - Iraun Zestauk, 15

Haurretan: Amaiur Martinezek, 18 - Nahia Bertizek, 7

Haurren A mailan: Unax Be- reauk, 18 - Aimar Otxandore- nak, 7

Gaztetxoetan: Eukeni Etxeni- kek, 13 - Ekai Madariagak, 22

Gazteetan: Beñat Etxabidek, 22 - Oier Orbegozok, 14



ARANTXA ITURRALDE

Donato Larretxea Labaien en omendua

Pronostikoak bete eta Nafarroako zazpigarren txapela jantzi zuen Iker Vicentek abenduaren 12an Labaienen. Zigako Joxean Etxeberria bigarren izan zen eta Eneko Saralegi hirugarren. Beintza-Labaiengo lagunek Donato Larretxea omendu zuten, «elkarrekin egindako ibilbideagatik».



UTZITAKOIA

Josetxo Urrutia hirugarren ingudearekin

Abenduaren 19an Urdulizen jokatu zen Euskal Herriko ingude-jasotze txapelketan hirugarren izan zen Josetxo Urrutia leitzarria. 84 jasoaldi eman zizkion 18 kiloko ingudeari minutu eta erdian. Josu Marturet nafarra izan zen txapeldun (88) eta Gorka Etxebarria bizkaitarra bigarren (86).



Txarutak antolatutako txapelketako finalistak, sari banaketaren ondotik. FOTO ZALDUA

Baztango 40. pilota txapelketako finalak jokatu dituzte

Maila nagusia, Enaitz Anso oronoztarra eta Antton Apezetxea goizuetarra suertatu dira txapeldun

TTIPI-TTAPA

Txaruta pilota elkarrekin antolatutako Baztango 40. pilota txapelketaren finalak jokatu zituzten abenduaren 18an eta 19an Elizondon eta Iruritan. Hamaika kategoriatan banatu dituzte pilotariak.

Helduen A mailan, Enaitz Anso oronoztarrak eta Antton Ape-

zetxea goizuetarrak 22-10 irabazi zieten Gaizka Otxandorena almandoztarrari eta Aratz Oliden lazkaotarrari.

Helduak B mailan, Ultzamako Javi Murillok eta Almandozko Peio Oskozek 22-14 irabazi zieten Larraungo Iñaki Galarzari eta Elizondoko Axier Ballarenari.

Umeak A: Bortzirietako Ioritz Eguzkiagirre eta Erik Igoak 18-9 irabazi zieten Aurtizko Iñaki Leiza eta Iturengo Enaitz Elizalderi.

Kimuak A: Mattin Leiza eta Mikel Ezkurra aurtiztarrek 18-8 irabazi zieten Iker Anso-la eta Julen Urrestilla azpeitiarrei.

Haurrak A: Iñigo Alberdi eta Jokin Artetxe ataundarrek 18-13 irabazi zieten Aitor Etxeberria eta Unai Zelaiaran oiartzuarrei.

Kadete A: Oihan Etxeberria eta Mikel Leonet oiartzuarrek 18-7 irabazi zieten Elgoibarko Iker Eizagirre eta Amaurko Arkaitz Goienetxeri.

Gazteak: Oiartzungo Xabat Olaiz eta Unax Landak 22-12

irabazi zieten Larraungo Aitor Eguzkiza eta Tafallako Jonan Peñalveri.

Umeak B: Azpeitiko Oihan Zubizarretak eta Adei Lizaralde 18-16 irabazi zieten Astigarragako Inhar Goñi eta Ekhi Goñiri.

Kimuak B: Igantziko Urko Telletxea eta Xuban Magañak 18-8 irabazi zieten Zizurko Julen Gomez eta Uxue Gomez-zi.

Haurrak B: Ataungo Oier Izagirre eta Aetz Lopezek 18-2 irabazi zieten Zizurko Oier Goñi eta Iker Fernandezi.

Kadete B: Leitzako Janitz Sagastibeltza eta Ugaitz Ugarte-mendiak 18-8 irabazi zieten Oiartzungo Manex Olaiz eta Axel Lasari.



UTZITAKOA

Aldabe eta Azpiroz txapeldun

E-remonte enpresak antolatutako binakako erremonte profesionaleko txapelketaren finala jokatu zuten abenduaren 17an Iruñeko Labrit pilotalekuan. Aldabek eta Azpirozek 35-33 irabazi zieten Xanti Uterga doneztebarrari eta Ioni. Hendaiako errebantxan azken hauek irabazi zuten emaitza berarekin.



UTZITAKOA

Canabal eta Aldabe klub arteko txapeldun

Nafarroako Klub Txapelketaren binakako finala irabazi zuten Oberenaren izenean aritu diren Igantziko Oihan Canabal eta Joseba Aldabe pilotariak. Iruñeko Labrit pilotalekuan abenduaren 26an jokaturako finalean 22-11 irabazi zieten Yoldiri eta Beroizi.



(H)ILBELTZA

BAZTAN (H)ilbeltza, Euskal Nobela Beltzaren Astea

Solasaldiak, aurkezpenak, mahai-inguruak eta itzuliak.
Urtarrilaren 24tik 30era, Arizkun, Anizen, Elizondon, Erratzun eta Iruritan.

MUSIKA

LEKAROZ Baztan Kantuz

Herriko plazatik abiatuta,
urtarrilaren 16an, 12:00etan.

ELIZONDO Poesia eta musika emanaldia

Jon Basaguren musikariarekin
eta Iñigo Astiz idazlerarekin.
Arizkun, urtarrilaren 16an,
19:00etan.

LESAKA Trikitixa jaialdia

Harriondoa Kultur etxean,
urtarrilaren 29an.

IKUSKIZUNAK

IRURITA 'Amua' helduendako antzerkia

Axut! konpainiaren eskutik,
Ximun Fuchs, Manex Fuchs eta
Maite Larbururekin.
Gizarte Bilgunean, urtarrilaren
23an 19:00etan.

LEITZA Ekain-Txou zirkoa

Denok Bat elkarteak antolatua.
Herri aretoan, urtarrilaren 26an,
17:00etan. Sarrerak Astitz eta
Maimurren 4-6 eurotan.

IKASTAROAK

GOIZUETA ETA LEITZA 'Plateraren ertzak' hitzaldia

Kikilisaldak antolatua, Eneritz
Mujika dietista-nutrizionistarekin.
Goizuetako jangelan, urtarrilaren
13an, 16:45etik 18:00etara.
Leitzako jangelan, urtarrilaren
14an, 16:45etik 18:00etara.
Izen-ematea urtarrilaren 12ra
arte eskoleko galdetegiaren
bidez edo Anikote kiroledegian
948 510 719 telefonoan.

ELIZONDO Etxeko langile eta zaintzaileen lan-baldintzen saio informatiboa

Berdintasun Zerbitzuak eta LAB
sindikatuak antolatua.
Arizkun, urtarrilaren
15an, 16:00etatik 18:30era.

Kantu herrikoiak barnetik II (arituendako)

Euskal kantu herrikoiak eta
interpretazio ikastaroa Thierry
Biscaryrekin.
Arizkun, urtarrilaren 19tik
23ra asteazkenetan, 18:30etik
20:30era. Izen-ematea
urtarrilaren 14ra arte
948 581 279 telefonoan edo
kultura@baztan.eus helbidean.

JARDUNALDIAK

IRURITA Mahai-jokoen kutxa ibiltaria

Heldu, gazte eta haurrendako.
Urtarrilaren 15ean eta 16an.

ELIZONDO San Anton eguna

Txistulariak, zopak, bertsolariak
eta zozketa.
Herriko plazan, urtarrilaren
17an, goizean.

ARIZKUN Mahai-jokoen kutxa ibiltaria

Heldu, gazte eta haurrendako.
Urtarrilaren 22an eta 23an.

BAZTAN

(H)ilbeltza, Euskal Nobela Beltzaren Astea

Solasaldiak, aurkezpenak,
mahai-inguruak eta itzuliak.
Arizkuno Medikuaren etxean,
urtarrilaren 24an, 19:30ean.
Anizko Mendarte elkartearen,
urtarrilaren 26an, 19:00etan.
Elizondoko Arizkun, urtarrilaren 28an 19:00etan,
29an 11:00etan eta 30ean
19:00etan. Erratzuko elkartearen,
urtarrilaren 29an, 14:00etatik
aitzinerara. Iruriko plazan,
urtarrilaren 30ean, 19:00etan.

ZINEMA

LESAKA 'Zumiriki'

Oskar Alegriaren filma.
Harriondoan, urtarrilaren
15ean, 19:00etan. Sarrerak 2
eurotan lesaka.eus
webgunean.

Haurrentzako zinema

Irain eta Tantirumairu guraso
elkarrekin antolatua.
Harriondoan, urtarrilaren 16an,
17:00etan.

LEITZA Zinema

Bi pase egunean.
Herri aretoan urtarrilaren 15ean
eta 16an. 16:30ean 'La familia
Adams II' 4,5 eurotan.
19:00etan 'La crónica
francesa' 5,5 eurotan. Sarrerak
leihatilari eskuragarri 45
minutu lehenago.

ERAKUSKETAK

LEITZA 'Altsasuko ihauteriak'

Pesta Batzordeak antolatua.
Herri aretoan, urtarrilaren
21etik 30era. Ordutegia
aretoko leihatilan eskuragarri.

Nire aukera

«Proiektua ixteko unea dela erabaki behar izan dugu»

OHARKABE ERROMERIA TALDEA



«Besta giroan sortu eta aitzinera eramandako proiektua» da Oharkabe. 2013ko gazte otordu batean hasi zen; «mahai-giroan trikitixarekin giroa alaitzen zebiltzan bi taldekide elkartzek laster ekarri zuen musika talde bat sortzeko ideia. Lehenengo entseguek azkar elkartu zuten taldea eta herriko plazak kontzertuz kontzertu alaituz, taldea sendotzen hasi zen eta bideari ekin genion». Orain, ordea, ibilbidea eten behar izan dute «taldearen beharrak eta helburuak egungo egoerarekin bat ez datozelako».

Bortz gazteren proiektua

Bortz kidek osatzen zuten taldea hasieran; Janire sunbildarrak eta Nerea doneztebarrak trikitixa eta panderoa jotzeaz gain taldearen ahotsak ziren. Etxalarko Beñat zen

gitarista, Manex zubietarra baxu-jotzailea eta Unai doneztebarra baterian. Denborarekin, aldatzen joan da eta 2017an Aitziber lesakarra sartu zen teklatuarekin eta Andoni etxalartarra baterian, Manex, Janire eta Unai ordezkatzuz. Hala ere, «denboraldi batzuetan hainbat musikariren laguntza izan dugu oholztan; Ion, Mikel, Julen, Mattin... eta eskerrak eman nahi geniozke denei».

Urte eta erdiz entseguekin pasa ondotik «ilusio handiarekin» jaso zuten lehenbiziko deia, baina ez zen dei bakarra izan, bi baizik; «ilunabarrean Agoitzen izan genuen estreinaldia eta segidan Elizondoko gazte egunean jo genuen, goizeko ordu txikitik. Eman-dako kontzertuekin pozik gelditu ginen, baina ikaragarriko elurtea egin zuen eta

Elizondoko errepideak txuritxuri gelditu ziren. Gainera taldeko furgoneta bertan utzi behar izan genuen motorra ez zelako abiarazten... Erronkaz betetako egun luzea aurreikusten genuen, baina horrelako amaiera ez genuen aukeren artean sartu».

Herriz herri, plazaz plaza

Geroztik, plazaz plaza ibili dira herrietako bestak alaitzen; «hilabete aunitzetan prestatutako proiektua jendeari erakusteko unea da guretzat. Gustuko dugun hori egiteko aukera izan dugu elkarren ondoan eta aldi berean gure musikaz jendeak nola disfrutatzen duen bizi izan dugu».

Entseguak urte hasieran egiten bazituzten ere, denboraldia hastean ikasten zuten garrantzitsuena; «abestiei beldurra kendu eta beharrezkoa benetan barneratzeak balio ziguten kontzertuak. Hoiek ziren gure entsegu eraginkorrenak».

Hainbat talderen kantuak moldatu dituzte plazan dantzatu ahal izateko; Gozategi, Betagarri, Zea Mays, Kortatu, Esne Beltza, Huntza... «estilo eta abesti desberdinak genituen gustuko, baina denentzako lekua zegoen. Eskaintzen saiatu garen aniztasun hori da funtzionatu duena». Urtero abesti berriak sartu izan dituzte emanaldietan, «publikoaren eskaerak jasoz», baina argi dute «taldearen esentzia beti mantendu izan dugula, ahots eta instrumentuekin abestiak ahal bezain osatuen aurkeztuz».

Hainbat momentu on bizi izan dituzte taldekideek Oharkaberekin; «eskualdean emandako kontzertuak ezingo ditugu erraz ahanzi: Baztandaren Biltzarra, Doneztebeko errebestak, Errekaren eguna, Lesakako San Ferminak... plaza goraino beteta ikusteak sekulako poza eta aitzinera segitzeko indarra eman digu».

Agur errateko unea

2020ko denboraldia hasi berri zutela «ezustean» harrapatu zituen koronabirusak. «Plazak alaitzea, publikoarekin disfrutatzea eta denon artean besta giro polita sortzea izan dugu beti helburu. Zoritxarrez, bizi dugun egoerak ez zigun helburu hauek betetzea ahalbidetzen».

2021ean «denboraldia aitzinera ateratzeko esperantza genuen baina aurreikusten genituen planak atzeratzen joan dira, eta taldekide bakoitzak bere proiektu pertsonalekin segitu du». Taldea denbora gehiegi egon zen geldirik, «eta urte amaieran erabaki bat hartzeko beharra ikusi genuen. Zaila izan da horrenbeste ilusioz eta bizipenez betetako proiektua ixtea, baina nahiago dugu orain arte egindakoarekin gustura gelditu, aitzinera hala-hola segitu baino».

Etokizunera begira

«Hasieran taldekide soilak ginenak lagun hurbilak gara orain, eta etorkizuneko gogo eta aukerarik izatekotan, ziur gaude ohol-tza gainera bueltatzeko aukera baloratuko genukeela». Baina oraingoz, «bakoitzak bere bidea hartu du».

Batzuen lehentasuna ikasketak dira, bertze batzuen familia edo lana, «baina argi dugu benetan gustuko dugun horretan aritu nahi dugula, eta ahal bada, musikari txoko bat eginen diogula. Musikak elkartu gaitu eta hari esker aunitz ikasi eta disfrutatu dugu».

«Eskerrak eman nahi dizkiegu ohol-tza gaineen eta animatzen ibili diren guztiei, baita urtero gurekin kontatu duten herri eta erakundeei ere. Hagitz aberasgarriak izan dira azken urteak eta hau guztia ezinezkoa izanen litzateke elkarlanik gabe, hortaz, gure eskerrik beroenak proiektuaren parte izan zareten guztiei».

MERKATU TTIKIA

ETXEBIZITZAK

SALGAI

BORTZIRIAK. Borda salgai. ☎647 58 81 63 (deitu gauez).

EROSI

BORTZIRIAK-MALERREKA. Bikote gazte bat zaharberritzeko baserri baten bila ari da, lur eremuarekin. ☎693 10 42 55.

ERRENTAN HARTZEKO

Eskari handiagatik, alokairuko etxebizitzak behar ditugu. Jabearentzat kosturik gabe. Kontratu eta kudeaketa barne. ☎620 02 86 25 / 948 63 05 52.

24-31 urte bitarteko 4 neska etxe bila. Hezkuntza eta nekazaritza uzartzen dituen elkarte batean egiten dugu lan. Bera, Lesaka, Lezo, Oreteta, Oiartzun, Astigarraga... inguruan. ☎660 14 04 91 / 659 66 89 55.

ELIZONDO. Etxebizitza bat errentan hartu nahi dute. ☎641 26 57 60.

Otsailetik ekainera **LESACA, BERA** edo **ARANTZA**n etxe edo logela bat errentan hartu nahi du 27 urteko neska batek. Zerbait jakinez gero eskertuko luke berarekin harremanetan jartzea. ☎639 04 28 61.

GARAJEAK/LOKALAK

ERRENTAN EMATEKO

BERA. Ugalzubi karrikan, aparkaleku estalia errentan emateko. ☎662 96 25 86.

LANA

ESKANTZAK

ZUGARRAMURDI. Bi langileren bila Kattalin jatetxean urte osorako: Laguntzaile bat baxera garbitzeko eta zerbitzari lanerako (frantses pixka bat dakiena). ☎948 59 91 46.

ZUGARRAMURDI. Eguerdian lanean aritzeko zerbitzaria behar dute. Bidali mezua Whatsapez. ☎654 48 99 62.

HERNANIko Zelaia sagardotegian sukaldari laguntzaile baten bila dabilta, urtarilaren 21etik maiatz bukaerara arte lanean aritzeko. Igande eta astelehenak jai. ☎943 55 58 51 / 626 52 38 47.

HERNANIko Zelaia sagardotegian parrillero bila dabilta urtarilaren 21etik maiatz bukaerara arte lanean aritzeko. Igande eta astelehenak jai. ☎943 55 58 51 / 626 52 38 47.

HERNANIko Zelaia sagardotegian kupelak irekitzeko, zerbitzatzeko eta jendearekin egoteko langile baten

IRAGARKIA JARTZEKO:



948 63 54 58



www.erran.eus



744 48 43 61



info@ttipi.eus

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 €** ordaindu behar da

ARGAZKIAREKIN jarri nahi izanez gero **12 €**

Iragarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta

ERRAN.EUS webgunean hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan

Bizum bidez (744 48 43 61)

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz sortu ahal diren operazio bidegabeen erantzukizunik

bila dabilta, urtarilaren 21etik maiatz bukaerara arte lanean aritzeko. Igande eta astelehenak jai. ☎943 55 58 51 / 626 52 38 47.

ELIZONDO. Fco Joaquin Iriarte zahar etxean lan egiteko jendea behar dute, laguntzaile lanetarako eta garbiketarako hainbat postu betetzeko. Bidali curriculum *recepelizondo@ideainnovacion.com* edo deitu. ☎948 58 07 30.

Inmobiliaria munduan lan egin nahiko zenuke? Higiezin aholkularia izan nahi baduzu, euskara dakien pertsona baten bila gabilta Bortziariak inguruan lan egiteko, autonomo. Agentzia gaztea, lan egiteko gogoarekin. Proaktiboa bazara hitz egingen dugu. Bidali curriculumak: *info@moldatuhome.com*.

IRUN. Pertsona bat behar dute kanpoko mantentze-lanetan aritzeko:

sasi garbitzeko makina (*desbroza-dora*), motozerra... ☎659 28 56 20.

ELIZONDOko kiropraktikoaren onizitate zentroan laguntzailea behar dute. «Pertsona baikorra» nahi dute, «komunikazio-trebetasunak dituen, antolatua, jendearekin konektatzeko gaitasuna duena eta gure zentroa hazten laguntzeko prest dagoena». Bidali curriculumak argazkiarekin eta aurkezpen gutuna. *elizondoquiropactica@gmail.com*.

ESKARIAK

Emakume batek interna gisa lan egin nahi luke. ☎612 50 40 27.

BERA. Neska bat interna lan egin nahi du, adinekoak edo haurrak zaintzen. ☎632 75 93 48.

Emakume bat lan bila. Adinekoak zaintzen, sukaldean laguntzaile lanetan eta zerbitzari aritutakoak da. ☎643 04 37 34.

BASERRIA

BEHI-AZIENDAK

Aretze gizenak:

Idixkoak: €/kg kanal

- Extra 4,40
- 1.koa 4,28
- 2.koa 4,01

Urruxak: €/kg kanal

- Extra 4,51
- 1.koa 4,37
- 2.koa 4,26

Oharra: prezioak 180-220 kg kanalean pisatzen duten aretzeenak dira

Aretze tikiak

- (15 egun ingurukoak).

Aretze mestizoak

- Urruxak 125,00
- Idixkoak 150,00

Aretze nabarrak

- Urruxak: 120,00
- Idixkoak 140,00

ZALDI-AZIENDAK

Zaldikoak: €/kg

- Sortu berriak: 3,93/4,33
- Zaldi-behorrak 1,90/2,07

ARDI-AZIENDAK

Bildotsak

- 6-8 kilokoak: 9,60/9,70
- 8-10 kilokoak: 8,40/9,10

ZERRI-AZIENDAK

Zerrikumea (19 kilo): 30 €

Zerri gizona 1,020 €

Zerramak 0,330€ kg/bizirik

Datu iturria: Nafarroako Gobernua abenduaren 24tik 31ra bitarteko prezioak)

ZERBITZUAK


DENETARIK

Neska euskaldunak administrari lanak egiten ditu partikular eta enpresentzat. 15 urte baino gehiagoko esperientzia. ☎670 21 86 13.

ANIMALIAK

SALGAI

Bi urteko behi suitzarra ernari salgai. ☎610 43 11 75.



Masterin salgai. ☎609 49 27 36.

BERA. Hamar ardi ernari salgai, mutur gorriak. ☎607 89 09 66.

Hiru txerrikume eme salgai, pin-toak. Jaten hasiak. Informazio gehiago WhatsApp bidez. ☎690 98 61 18.

EROSI

Zerria erosi nahi dute urtarilean hiltzeko. ☎622 77 41 10

EMATEKO



SUNBILLA. Zakurtxo hau maiteko duen norbaiten bila dabil. Arra eta gaztea da. ☎649 92 47 58.

DENETARIK

SALGAI

Eraikuntzarako materiala prezio onean salgai. ☎666 66 36 42 (20:00-21:00).

Belar idorra salgai, fardo ttikitari. ☎618 96 27 74.



Etxeko **su egurra** salgai. Garraio zerbitzuarekin, etxeraino eramanez dizugu egurra. ☎629 45 14 26.

Gurpil-aulkia salgai, ia erabili gabe. Arrunta, baina gurpila kenduta motorra paratzen ahal zaio, eskailerak igo eta jaisteko. ☎606 77 24 33.

URTEBETETZEAK

IXAPARTEGI
INMOBILIARIA

Arraioz (Baztan):
Herrigunean bi
lur eremu salgai,
familia bakarreko etxea
eta bi bizitzako
etxea eraikitzeko.

API Pinar 7- IRUN
☎ 656 708 180
✉ info@inmotxapartegi.com
www.inmotxapartegi.com

Arkon edo **kutxatzar** baten bila ari dira. Norbaitek sobran badu eta gaitetik kendu nahi badu... gustura hartuko dute. ☎660 94 35 49.



Bi koltxo salgai beraien zorroekin, somierrak eta burkoak. 105x190 neurria. Erabilera bakararekin, espazio faltagatik. ☎625 51 63 99.

GALDU-AURKITUAK

BERA. Toki Ona institutuko atean giltza batzuk agertu dira. ☎848 43 17 10.

ttipi-ttapa
sare sozialetan


facebook

www.facebook.com/ttapi.ttapa

JARRAI GAITZAZU!



Donamariako **Egoi Ariztegi** 3 urte bete ditu abenduaren 27an. Aunitz urte Oinatz eta familiaren partetik. Zorionak eta muxu haundi bat txikitiko!!



Zorionak **Xuban!!!** Urtarrilaren 7an 2 urte bete dituzu. Muxu haundi bat Olaiaren partetik.




Aurtizko **Naikari** eta **Joritz Altzuri** **Mindegiak** urtarrilaren 12an 7 eta 3 urte bete dituzte. Muxu handi bat familia guztiaren partetik eta bereziki Leiane ahizparen partetik. Ongi pasa eguna.



Enaitz Agesta **Petirenak** abenduaren 29an 9 urte bete ditu. Zorionak Haritz, Irene, Izarne eta Sunbillako eta Berako atabxien partetik.



Arantzako **Maialen** **Landa Iparragirrek** 3 urte bete ditu urtarrilaren 2an. Aunitz urtez familia guztiaren partetik, sorgintxo.




Igantzik **Jon Aranguren Irigoienek** 9 urte beteko ditu urtarrilaren 14an. Zorionak eta muxu potoloak zure bi amatxi, Haizea eta gurasoen partetik. Ongi pasatu zure egunean eta muxuak!



Mikel San Sebastian. Bertze urte batez zoritarrez urrun ospatuko duzu zure urtebetetzea. Etxetik urrun baina maitasunez gertu. Familia guztien partetik besarkada bat eta ez ahaztu denak etxean behar zaituzteguna!



Sunbillako **Ander Petirena Gorosterrazuk** urtarrilaren 24an 4 urte beteko ditu. Aunitz urtez etxeko artzain tikiari, familia guztiaren partetik eta bereziki bere anaia Ibairen eta Iraide eta Garaine lehengusinen partetik. Lau mila muxu potolo *prexio*xo.



Sunbillako **Iraide eta Garaine Iriarte** **Petirenak** urtarrilaren 19an 13 urte beteko dituzte. Aunitz urtez Berako eta Sunbillako familien partetik eta bereziki Ibai eta Ander lehengusuen partetik. Urtebetetze egun ederra pasa dezazuela. 13 mila muxu.



Eneko 2 urte beteko ditu urtarrilaren 22an. Zorionak *guapeton!* Ongi-ongi ospatu zure bigarren urtebetetze eguna. Muxu haundi bat Zugarramurdiko eta Etxalarko familiaren partetik.



Zorionak eta muxu haundi bana **Gorka eta Eneko** etxeko bi makinistei. Gorkak urtarrilaren 6an urteak bete ditu eta Enekok urtarrilaren 22an 2 urte beteko ditu. Zorionak eta ongi ospatu etxekoan partetik.



Doneztebeko **Iraide Gogorza** **Etxeberriak** 8 urte beteko ditu urtarrilaren 21ean. Zorionak eta muxu asko amaxoren partetik!!

Aunitz urtez!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak **TTipi-TTAPA!**

Internetez <http://erran.eus/zorionagurra> helbidean sartuta; **TTipi-TTAPA**ren **bulegora** etorrita, **postaz** argazkia eta testua helbide honetara bidalita; Koskontako bidea, 7-1-31770 LESAKA edo **Whatsapez** 744 48 43 61 telefonora idatzita.

Ordaintzeko: 5 € argazki tikiak eta 10 € handia. Bulegoan eskudirutan edo [ERRAN.EUS/TPV/ORDAINKETA](http://erran.eus/TPV/ORDAINKETA) webgunean sartuta; kreditu txartelarekin, transferentzia eginez edo Bizum bidez.

OROIGARRIA

Jose ARRAZTOA APEZETXE
 Irurita, 1933/02/26 - 2021/11/04



Pausorik pauso mugarik muga
 Ibiliz gora ta behera
 Erdiz pasatu berdín Saioa
 Beti joanez aurrera
 Zuk asko maite zenigun guri
 Hortaz oroituko gera
 Nahiz eta gure ondotik joan
 Gurekin egonen zera.

ZURE FAMILIA

OROIGARRIA

Julian IRIGOIEN IRIGOIEN
 Erratzun, 2021eko azaroaren 28an



Mahai baten bueltan elkartuko gara.

ETXELEBERT ELKARTEKO LAGUNAK

OROIGARRIA

Secundina VERGARA ERRANDONEA
 Arantzan hil zen, 2021eko azaroaren 24an, 88 urte zituela



Ama, amaxi maitea
 betiko joan zara
 baina bizi garen bitartean
 zutaz oroituko gara.

ZURE FAMILIA

URTEURRENA

Tomas REKONDO ANDUEZA
 Lesakan, 2018ko abenduaren 12an
 III. urteurrena



Betirako gurekin eta gure artean
 milesker emandako guztiarengatik.

ZURE FAMILIA

URTEURRENA

Miguel Mari IRIGOIEN IPARRAGIRRE
 2020ko abenduaren 26an
 I. urteurrena



Zurekin pasatutako uneak, osaba
 ez zaizkigu ahaztu.
 Urtebete igaro eta gero,
 berriz gerade elkartu.
 Oroitzapenak gugan diraute
 arima zaigu poztu.
 Zureganako maitasunak
 bihotzean irauten du.

ARANGUREN-ERRAZKIN FAMILIA

URTEURRENA

Isabel FERRERO IGOA
 Bera-Lesakan, 2013ko abenduaren 22an
 VIII. urteurrena



Larrosak dira gorriak
 edo bertzela xuriak.
 Hagitzez ederragoak dira
 neskatilaren irriak.

ZURE FAMILIA

OROIGARRIA

Maria ARTIEDA TELLETXE
 Berán hil zen abenduaren 29an,
 97 urte zituela



Maitagarria eta maitatua izan zara.
 Zure goxotasuna bihotzean
 betiko geldituko zaigu.
 Agur eta ohore, María.

ZURE FAMILIA

OROIGARRIA

**Silberio APEZETXEA ZUBIETA
 Jose Mari LOIARTE LOIARTE
 Josu APEZETXEA ETXEBERRIA**
 Gogoan izango zaituztegu beti.



Goizueta, 2022ko ilbeltza

UMORE-ONA ELKARTEA

HILBERRIAK

- **Patricia Telletxea**, Sarakoa, azaroaren 24an, 51 urte zituela.
- **Antxon Fernandez Barcena**, Elizondokoa, abenduaren 4an, 47 urte zituela.
- **Pedro Elizalde Bera**, Zubietakoa, abenduaren 5ean.
- **M^a Angeles Elizalde Jaimerena**, Arizkungoa, abenduaren 10ean, 91 urte zituela.
- **Ana Claudia Coelho Gomes**, Sunbillakoa, abenduaren 10ean, 49 urte zituela.
- **Juan Antonio Etxegarai Bastarrika**, Elizondokoa, abenduaren 10ean, 61 urte zituela.
- **Julian Irigoien Agerrebere**, Arizkungoa, abenduaren 12an, 84 urte zituela.
- **Patxi Goia Etxeberria**, Berakoa, abenduaren 15ean, 78 urte zituela.
- **Maria Edenia Mirabal Arenas**, Lesakakoa, abenduaren 15ean, 79 urte zituela.
- **Jose Manuel Iribarren Arretxea**, abenduaren 20an, 42 urte zituela.
- **Gregorio Telletxea Iribarren**, Lekarozkoa, abenduaren 21ean, 89 urte zituela.
- **Carmen Mitxeltorena Atxa**, Berakoa, abenduaren 21ean, 88 urte zituela.
- **Malen Barandiaran Aldasoro**, Berakoa, abenduaren 21ean, 88 urte zituela.
- **Jose Javier Telletxea Ibarrola**, Elgorriagakoa, abenduaren 21ean, 97 urte zituela.
- **Pepa Larrea Huarte**, Goizuetakoa, abenduaren 21ean, 99 urte zituela.
- **Jose Ibarra Elizondo**, Narbartekoa, abenduaren 22an, 73 urte zituela.
- **Andres Karrikaburu Larraia**, Arraiozkoa, abenduaren 24an, 80 urte zituela.
- **Jose Bertiz Zubiri**, Erratzukoa, abenduaren 24an, 56 urte zituela.
- **Ignacio Telletxea Aroza**, Igantzikoa, abenduaren 24an, 93 urte zituela.
- **Miguel Santesteban Gorosterrazu**, Zubietakoa, abenduaren 25ean, 84 urte zituela.
- **Felix Bergara Elizondo**, Arantzakoa, abenduaren 25ean, 76 urte zituela.
- **Maria Artieda Telletxea**, Berakoa, abenduaren 29an, 97 urte zituela.
- **M^a Margarita Otegi Esteberekorena**, Urdazubikoa, abenduaren 29an, 92 urte zituela.
- **M^a Milagros Indaburu Irisarri**, Etxalarkoa, abenduaren 30ean, 91 urte zituela.
- **Gregorio Arribillaga Ormart**, Amairukoa, abenduaren 31n, 89 urte zituela.
- **Jose Luis Lizardi Gisasola**, Arantzakoa, abenduaren 31n, 73 urte zituela.
- **Juan Goienetxe Irigoien**, Iruritakoa, urtarrilaren 1ean.
- **M^a Angeles Antxorena Jimenez**, Arizkungoa, urtarrilaren 2an, 88 urte zituela.

SORTZEAK

- **Laia Etxegarai**, Sarakoa, azaroaren 18an
- **Kemen Etxeberri**, Sarakoa, azaroaren 26an.



948 05 90 90
ENPATIA, HURBILTASUNA
ETA BEGIRUNA
www.izarratanatorio.com

BEILATOKIAK: Elizondo,
Arantza, Bera, Igantzi
Doneztebe



BAZTAN: **ELIZONDO**n Santiago kalea, 79
BORTZIRIAK: **BERA**n San Jose Beilatokian
MALERREKA: **DONEZTEBE**n Aparan ind. 1-3
web: funerariabaztanbidasoa.com

Baita BERTIZARANA, BORTZIRIAK, URDAZUBI ETA
ZUGARRAMURDIKO ETXEETAKO ZERBITZUAK ere

24 ORDU | **948 48 95 50**
365 EGUN | info@funerariabaztanbidasoa.com

Betika taldea zu laguntzeka

IRACHE
tanatorioak

Nafarroako familien zerbitzura 1976tik

BERA | DONEZTEBE | ELIZONDO | LESAKA | LEITZA

ETXEETAKO ZERBITZUA
Trasladoak Iruñea, Donostia eta Irungo ospitaleetatik edozein herritara

 **948 63 74 04 / 948 19 70 70**
www.tanatoriosirache.es



OROIGARRIAK



· Pertsonalizatuak
· Oroigarri bikoitzak edo sinpleak
· Hainbat neurri eta kopuru
· Fotomuntaketak eta argazki-moldaketak
· Ereduak aukeran
· Gutun-azalekin entregatzen dira

 **KULTURKARI**
Diseinu grafikoa | Publizitatea




Info +:
Tel: **948 63 54 58**
kulturkari@ttipi.eus
www.kulturkari.com

PLAZAN BAZAN



MEZUA

Marrazkitxook ezkututzen duten esaera ezin hobeto dihoakio mutiko honi. Jarri marrazki bakoitzaren azpian bere hizkia eta osatu esaera. Erabili irudi-alfabetoa.




Bide batez, irudia margotu.



DOMINOAN

Bete itzazu hutsuneak argindarraren domino zati honek zentzua izan dezan.




HANDITIK TXIKIRA

Ordena itzazu izotzeko patin hauek, handienari 1 zenbakia emanez eta txikienari 8



ITZALA

Horra non pausatu den txoritxoak! Aurki ezazu irudi honen itzal zuzena.



INTERNETEN ERE BAI !

<http://plazanbazan.eus/>



Kontsultatu soluzioak
www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak



18 ETXEBIZITZA-8 LOKAL

- **2 (80 m²), 3 (90 m²) eta 4 (100 m²) logelako etxebizitzak trasteroarekin Doneztebeko Elizagibela karrikan**
- **Lokal komertzialak**

ERAIKINA EGITEN HASIA!